

Goienkaria

2007ko uztailaren 13a > Egubakoitza > VII. urtea > 296. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

"Caprabo
erostea pauso
garrantzitsua
izan da
zabalkunde
prozesuan"

Agustin Markaide
Eroskiko zuzendari
orokorra > 09



G2a

Chongqing Circus
akrobazia taldea
Oñatin > 43-44

OÑATI
Zozketutako Ugarkaldeko
etxebizitzen zerrendak ikusgai > 33

ANTZUOLA
Herriko ahozko ondarea Interneten
jarri dute eskuragarri > 36

TXIRRINDULARITZA
Mendiko 23. kriteriuma jokatuko
da domekan Elgetan > 37

TURISMOA > IBARREKO OSTATUAK

Debagoieneko ostatuetan 787 turista hartzeko lekua dago

OSTATUAK Ibarrean 29 daude:
8 landetxe, 8 hotel,
6 nekazaritza turismo,
6 ostate eta mendi etxe bat

AURREIKUSPEN ONA

Abuztuan emaitza onak espero
dituzte, nahiz eta oraindik
erreserba gutxi egin diren

ABUZTUAN ITXI Ostatu batzuk
itxi egiten dituzte; batez ere,
kooperatibetara datozen
langileak hartzen dituzte > 04

AITOR LOPEZ REKARTE:
**"Futbolean
jokatzen
jarraitze
ilusioarekin noa
Almeriara"**

Hamar urtez Realeko lehenengo taldeko jokalari izan den Aitor Lopez Rekarterekin izan gara. Arrasatearrak Almeriarekin sinatu du kontratua bi urterako, eta domekan bertan abiatuko da hara. Realean ez du amestutako agurra izan: "Klubak zuk jarraitzeko interes handirik erakusten ez badu, normalean agur tristeak izaten dira. > 40-41



MUSAKOLAN Atzo eguerdian izan ginen Bonba-rekin Arrasateko Musakola kiroldegian.

XABIER URTZELAI

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarritzeta > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-41
Kultura > 45
Sailkatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55

IKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udal Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

BAINUAK:

ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR

Audi A3 Sportback
Automobil hutsa baino gehiago.



Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



GARRAIOBIDEAK > MUGLIKETA, BIZIKLETAK ALOKATZEKO GUNE BERRIA

Diputazioaren asmoa da etorkizunean Arrasaten Mugikleta gunea jartzea

MODELO AITZINDARIA

Donostiako Ibaeta campusean jarri dute lehenengo Mugikleta, hiri barruko motordun ibilgailuen zirkulazioa txikitzeo

MOMENTUZ, LAU

Oraingoz lau gune jarriko dituzte, guztiak Donostian, baina Gipuzkoako beste herri batzuetan ere jarri gura dituzte etorkizunean

BADAGO ZER EGIN

Herriean bizikletan ibili ahal izateko, lehenago neurriak hartu beharko dira herri barruan bizikletan seguru ibiltzeko

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Gipuzkoako Diputazioak hirietako motordun ibilgailuen zirkulazioa txikitzeo helburuarekin Mugikleta egitasmoa jarri du abian. Hala, aurkezen ekitaldian Lur eta Garraioetako zuendari Jose Inazio Olaizolak aipatu moduan, momentuz lau gune jarriko dituzte, eta Donostian egongo dira laurak –Euskal Herriko Unibertsitateko Ibaetako campusean, Eusko Trenen Lugarizko eta Amarako geltokietan eta Renferen Norteko geltokian–, baina etorkizunean Gipuzkoako beste udalerri batzuetan ere jarri gura dituzte; tartean, Arrasaten.

Hasiera baten, egitasmo horren helburua da garraiobide batetik besterako aldakortasuna –trenetik autobusera, esaterako– sustatzea. Hala, Diputazioko Garraioetako zerbitzuburu Aintzane Lauzirikaren esanetan, nahiz eta Debagoienean trenik ez egon, egitasmo hori autobusekin bateragarri izan daiteke: "Oraindik ez dugu herrietako udalekin berba egin, etorkizuneko egitasmoa da-eta. Baina herri bakoitzeko udalarekin edo mankomunitatearekin hitzartu beharko dugu Mugikleta gunea

non jarri. Arrasaten, akaso, autobus geltokia izan daiteke leku aproposa, edo unibertsitatera jendea bizikletan joaten bada, bada, hura izan daiteke leku onena". Mugikleta proiektuaren sustatzaile Koldo Telleriak –hark Kai-72 izena erabilten du proiektua izendatzeko– ere gauza bera azpimarratu du, egitasmoak herri bakoitzeko beharretara moldatzeko duen gaitasuna, alegia.

BIZIKLETA ALOKATU, KONPONDU...
Aurreratu moduan, Telleriak orain dela bi urte hasitako proiektua da Mugikleta, eta egitasmoak Diputazioaren, Eusko Trenen eta Gureak enpresaren laguntza izan du. Hala, bizikletagune horiek modulu mugikor eta erabilera askotarikoak dira, eta modulu bakoitzak 85.000 euro balio du. Orain arte modulu bakkara egin dute –Ibaetan dagoena–, baina Lazkaoko Orpabe enpresan dagoeneko lanean dabilta beste hiru moduluak egiteko –hamabi lagun dabilta jardunean–. Hala, Telleriak esan digu disenua amaitutakoan, lehenengo modulu egiteko bi hilabete behar izan dituztela.

**Mugikleta bakoitzak
informazio gunea,
komunak eta
bizikletei
konponketa txikiak
egiteko tailer
modukoa izango ditu**

**Bizikleta gune
bakoitzak
autoendako bospasei
aparkalekuren lekua
hartzen du, eta
bertan 32
bizikletendako lekua
dauka; horrez gain,
biltegian beste 42
bizikleta gorde ahal
izango dira**

Moduluen ezaugarriei dago kienez, 15,5 metro luze, 3,3 metro zabal, eta 4 metro garaiarenaren, eraikinak 32 bizikletarendako aparkalekua du eta 42 bizikleta gehiago gordetzen biltegia –handitzeko aukera ematen du. Horrekin batera, Mugikleta bakoitzak informaziogunea, komunak, eta konponketa txikiak egiteko tailer modukoa izango ditu. Hori horrela, modulu horiek hiriko altzari izateko pentzatuta daude, eta oinarrizko materialez egin dituzte: egurra, altzairua, beira eta zuntz naturala. Hala, alokairugune guztiak sarean konektatuta egongo dira, erabiltzaileak edozein gune erabiltzeko aukera izan dezan. Eta ezaugarri berezienetako bat da, hain zuzen, trailer baten laguntzaz batetik bestera mugi daitezkeen eraikinak direla, behar handien dagoen tokian jartzeko.

SEGURU IBILI AHAL IZATEA
Telleriak aurreratu moduan, garapen iraunkorraren alde egin dako ekimena da Mugikleta, bisitan dagoelako bizikleta dela hiri eta herri barruan –kutsatu barikibiltzeko garraiobide aproposetako bat. Hala, Diputazioak



AURKEZPENA Koldo Azkotia eta Jose Inazio Olaizola

oraindik ez du esan Gipuzkoako gainontzeko udalerriean noizko egongo den proiektu hori abian, baina komeniko litzateke ordu rako herriean bizikletan ibiltzeko Donostian egin den lana egitea, hiri eta herriak garraiobide horretara egokitzea, alegia.

Alde horretatik, Telleriak berak esan digu orain dela 15 urte lau lagun baino ez zirela ibiltzen Donostian bizikletan: "Eta lau horiek elkar ezagutzen genuen, pentsa. Orain, berriz, bizikletan ibiltzen ez dena da arraroa".

Dena dela, gauza bat da Debagoieneko herriak bidegorri sare batetik lotzea, eta beste bat da herri barruko mugikortasuna sustatzeko neurriak hartzea –bizikleta bideak egin, autoen aurrean bizikletari lehentasuna eman...–. Asko dago egiteko.



- Merkatuko lehen markak
- Mota askotako estiloak
- Gremioen koordinazioa

PROIEKTUA - DEKORAZIOA
Ipar
project, s.l.
SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKA

Telleria 23, D5 pabilioia
Labegaraieta Industrialdea BERGARA
Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44
www.iparproject.com





a diputatu ohiak, beste arduradun batzuekin batera, Ibaetan jarritako Mugikleta eraikinaren aurkezpen ekitaldian.

GOIENKARIA



GOITB

Koldo Telleria > Arkitektoa

"Mugikleta herri bakoitzak duen beharretara molda daiteke"

X.U. > ARRASATE

Koldo Telleria segurarrak bi urte daramatzta Mugikleta proiektuan buru-belerri. Momentuz modulu bakarra egin dute, Lazkaoko Orpabe enpresan, eta beste hiru modulu egingo dituzte. Hark onartu moduan, erabat inplikatu da proiektuan, konbentzituta dago-eta bizikleta dela hirietako auto zirkulazioa txikitzeo bidea.

Zer-nolako harrera izan du Ibaetan jarritako mugikleta guneak?

Oso ona, jende asko gerturatzen da eta galderak egitera. Kontua da azken aste honetan langileak azken orduko lanak egiten dabilzala, eta, lan egitearekin batera, azafata lanetan ere ibili dira, herritarrek egindako galderei erantzuten.

Oraindik, baina, ez dago bizikletarik.

Ez, lehenengo hilabeteen ez dugu bizikletarik jarri. Kontua da hilabete hori herritarrei informatzeko era bilikoa dugula, proiektu hori zer den azaltzea, alegia. Hala, datorren hilean ekarriko ditugula bizikletak.

Nondik sortu da Mugikletaren proiektua?

Bi urte daramatzat horretan lanean, eta iraunkortasunaren alde egin den aurrerapauso polita dela uste dut. Hasierako asmoa zen bizikletendako gune finko bat egitea. Hala, Holandara bidaia egin genuen, ikustekoa da-eta han zenbat era biltzen duten bizikleta. Amsterdamgo tren geltoki ondoan 3.000 bizikletarendako aparkaleku aude. Guk, baina, ikusi genuen horrela-

ko aparkaleku finko batek bi irtenbide izango zituela: inork ere ez era biltzea edo txiki geratzea. Hala, modulu mugikorren aldeko apus-tua egin genuen.

Bizikleta da hiri eta herrietako zirkulazioa txikitzeo tresna aproposena?

Nik baietz uste dut, garraiobide aproposenetako bat bada, behintzat. Alde batetik osasuntsua da, eta bestetik, ni bizi izan naizen hiri guztietan -Errroma, Lisboa, Londres, Bilbao- bizikletan ibili izan naiz leku batetik bestera, eta oso ondo.

Dena dela, hasierako asmoa da garraiobide batetik besterako bidea bizikletarekin erraztea -autobus geltokitik, tren geltokira-. Eta, Gipuzkoako herri guztietan ez daude horrelako zerbitzuak.

Baina hori da Mugikletak duen gauza on bat, ez dagoela hiri konkretu batendako pentsatuta. Hau da, herri bakoitzean dauden beharretara molda daitekeen proiektua da. Leku batean balio dezake tren geltokitik autobus geltokira joateko, baina beste herri batean zerbitzua bestelakoa izan daiteke.

Nonegon daiteke Mugikletaren arrakastaren gakoa?

Ba, bestek beste, moduluek izango duten konponketetarako tailerto xoan, uste dut horrek asko lagunduko due-la. Horrez gain, lehenago, gogoan dut herrietan bizikletak alokairuan egoten zirela, eta gaur egun jada ez dago horrelakorik. Eta, uste dut badagoe la horretarako beharra.



Bost aparkalekuuk hartzen duten lekuak behar du Mugikletak

Mugikleta modulua jartzeko orduan, Telleriak argi dauka eraikin hori asfalto gainean jarri behar dela; hau da, ez duela oinezkoei dagokien espaziorik hartzeari: "Ideia da bizikletak autoa ordezkatzea. Alde horretatik, eraikin horrek bost aparkalekuak leku hartzen du. Hala, bost aparkaleku horiek, gehienez, 25 lagun emango diete zerbitzua. Eta, Mugikletak 74 lagunendako zerbitzua ematen du. Aurreratu moduan, modulu bakoitzean 32 bizikleta egongo dira alokatzeko, eta beste 42 gorde ahal izango dira.

SSANGYONG RODIUS BERRIA

22.900 €-tik aurrera

MONOBOLUMENA 7 ESERLEKU ETA MALETATEGI IZUGARRIA

MERCEDES-BENZ MOTORRAREKIN 270 XDI 165 ZP

SSANGYONG VERTIZ MOTOR

Olaso pol. 27 - ELGOIBAR Tel.: 943 74 41 10

Frantzia pas. 14 - DONOSTIA Tel.: 943 29 22 66

Sarroeta pas. 13 - MARTUTENE Tel.: 943 46 92 99



OSTATUAK Debagoienean 14 landetxe eta nekazaritza turismo ditugu; irudian, Bergarako Lamaino Etxeberri. Eskuinean, Ormazabal hotela.



GOIENKARIA

TURISMOA > DEBAGOIENEKO OSTATUAK

Ibarreko ostatuak abuztuan betetzea espero dute ostalariek

Oraindik erreserba gutxi egin diren arren, abuztuan emaitza onak izatea espero dute ostatuetako arduradunek

AINTZANE IRIZAR > BERGARA
Debagoienean turistik jasotzeko 29 ostate edo lo egiteko toki ditugu. Guztira, 787 pertsonarentako tokia dago.

Uztaila aurrera doa eta gehienek esan digute ez doala oso ondo udako denboraldia; gehienek aipatu digute eguraldia, arrazoieng gainean galdetuta. Denok dakigu eguraldi kaskarra izaten ari garela aurtengo udan.

Abuztuari begira erreserba gutxi izan dituztela azaldu digute gehienek, baina baikor ere azaldu zaizkigu; Antzuolako Ibarre nekazaritza turismoko Pilat-

rrek horrelaxe berba egin digu: "Iazkoa izan zen azken urteotako onena; aurten gehiago ari zai-gu kostatzen abuztua betetzea, baina nik uste dut lortuko dugula". Aramaioko Etxebarri landetxeko arduradunak ere hauxe esan digu: "Azkeneko urteetako txarrenetakoia izango dela dirudi, baina itxaropena daukat oraindik abuztuan bete egingo dela".

BARRUALDEAREN BEREZITASUNA
Oñatiako Etxe-Aundi hotelean esan digute barrualdera datozen bisitariek azkeneko momentuan egiten dituztela erreserbak, ez direla denbora luzeko aurrerapenarekin ibiltzen; gainera, egun gutxi batzuetarako etortzen dirella. Turistek ez dute egonaldi luze-rik egiten gurean. Oñatioko Ongi ostateko arduraduna ere iritzi bereko da. Eskoriatzako Mendi- goia hoteleko ordezkariek ere antzera berba egin dute: "Aurten- go abuzturako erreserba gutxie- ago dugu, baina kontuan hartu

behar dugu jende gehiena azke- neko momentuan ibiltzen dela. Iazko abuztuan lanez lepo ibili ginien".

Arrasateko ostalari batek honako azalpenak eman dizki- gu: "Kostaldean tokirik aurkitzen ez dutenak dira gurera etor- tzen diren asko; horregatik, azke- neko momentuan etortzen zaizkigu toki bila". Sindikan ere gauza bera azaldu digute: "Kos- taldean batere tokirik geratzen ez denean, segituan beteko dira gureko ostateak".

URTEAN ZEHAR, LANGILEAK
Debagoieneko toki askotan, abuz- tua ez da garairik onena izaten. Horixe da, esaterako, Arrasate- ren kasua; urtean zehar, langile- ak izaten dituzte bezero, batez ere, kooperativetara datozenak. Horren adibide da Arrasateko bi ostate, Arteaga landetxea eta Uri- zar pentsioa, itxita egongo dire- la abuztuan. Baita Bergarako Zabala pentsioa ere.

SU-ETENAREN AMAIERA

Aramaioko Uxarte nekazaritza turismoan esan digute iaz saso- honetan ia beteta zutela abuztua; aurten, berriz, oso erreserba gutxi jaso dute. "Jendea zain dago, ea

zer gertatzen den zain. Su-etenak eragina izan duela uste dut. Dena dela, oraindik badaukat itxaro- nea, azkenean, dena betetzea lor- tuko dugula", adierazi digu Ara- maioko ostalariak.

Ostatuetako plazak herriz herri

HERRIA	OSTATUAK	PLAZAK
ARRASATE	Uxarte Pentsioa	10
	Arteaga Landetxea (1)	18
	Arrasate Hotela	22
	Mondragon Hotela	43
	Urizar Pentsioa (1)	14
BERGARA	Ariznoa Pentsioa	30
	Ormazabal Hotela	29
	Zabala Pentsioa (1)	10
	Lamaino Etxeberri Nekazal Tur.	12
OÑATI	Anduri Landetxea	9
	Hospederia Hotela (2)	84
	Etxe-Aundi Hotela	21
	Goiko Benta Pentsioa	20
	Ongi Ostatua	32
	Sindika Hotela	74
	Soraluze Hotela	24
ARETXABAleta	Arregi Nekazal Turismoa	16
	Mitarte Garai Nekazal Turismoa	12
ESKORIATZA	Areano Nekazal Turismoa	12
	Mendigoia Hotela	170
ANTZUOLA	Ibarre Nekazal Turismoa	16
ARAMAIO	Etxebarri Landetxea	14
	Muru Landetxea	7
	Uxarte Landetxea	10
ELGETA	Elgeta Landetxea	14
	Barrenengua Nekazal Turismoa	18
	Eguzkitza Landetxea	16
LEINTZ GATZAGA	Gaztainuzketa Mendi Etxeak	20
	Aterbe Landetxea	10

ITURRIA: OSTATUAK

¹ ABUTUAN ITXITA. ² BERRIKUNTZA LANENGATIK ITXITA

GUZTIRA: 787



comercial BRUNET

ECHO
sasi-garbitze makina

**Estatu Batuetan gehien saltzen den marka
orain Bergaran!**

Kontsumo txikia
Martxan jartzeko erraza

Potentzia handia
Zarata gutxil

www.comercialbrunet.com
Telleria 2 Labegaraiaeta industrialdea • BERGARA • Tel.: 943 76 31 52



GERTAKARIA > HIRU EGUN EGON DA GALDUTA

Onik aurkitu dute Isidoro Reche

Deshidratazioa, nekea eta desorientazioa erakusten zuen 80 urteko arrasatearrak

MIRIAN BITERI > ARRASATE Hiru egun eman ditu galdua Isidoro Reche arrasatearrak Errioxan. Uztailaren 7ko goizean desagertu zen San Asension. Martitzenean, 18:30ak aldera, onik aurkitu zuen Guardia Zibilak, esandako herria eta Hormilleja bitarteko mendiarate batean erorita. 80 urte ditu Rechek.



AGERRALDIA Antzuolan egin zuten, martitzenean.

GOIENKARIA

EUSKARA > UDALEI ESKAERA

EHEk hizkuntza politika "eraginkorra" eskatu du

M.B. > ANTZUOLA Euskara bultzatzeko hizkuntza politika "eraginkorra" martxan jar dezatela eskatu die Euskal Herrian Euskarazek ibarreko udalei. Horretarako, agerraldia egin zuen joan zen martitzenean Antzuolan.

Euskara egungo legedien "armiarma sarean itota" dagoela aipatu du eta normalizazio prozesuak "azken urteetan izan

ez duen jauzia emateko garaia" dela gaineratu du.

Horren harira, hainbat eskaera egin ditu, hala nola hizkuntzaren normalizazio "osoa" lortzea, instituzioetako langile eraldun guztiak euskalduntena eta langile berri guztiak euskaldunak izatea, instituzioetako lan hizkuntza euskaraz izatea eta behar diren baliabide ezberdinak ezartzea.

Desagertu zen egun berean jarri zuten salaketa senitartekoek. Segituan, Reche bilatzen hasi zen Guardia Zibila. Boluntario talde batzuk ere gauza bera egin zuen. Arrasatearrak agertu zen tokia aurretik arakatua izan zen.

DESHIDRATAZIOA ETA NEKEA Topatu bezain pronto familia-rekin bildu zen eta ondoren, Logroñoko San Pedro ospitaleko larrialdietara eraman zuten. Deshidratatuta, desorientatuta eta nekatuta zegoela jakinarazi zuen medikuaren diagnostikoak.

¡¡Azkar ibili, ihes egiten dute eta!!



Imanol Biain > Arrikutz kobazuloko gidaria

"Askorendako sorpresa izan da gure lur azpian horrelako edertasuna aurkitzea"

AINTZANE IRIZAR > OÑATI Hilabete pasatu da Oñatiko Arrikutzeko kobazuloa jendearendako zabaldu zutenetik. 3.000 bat bisitari izan ditu lehendabiziko hilabetean. Kobazuloan gidari lanetan dabilen Imanol Biainekin berba egin dugu.

Lehenengo hilabetean 3.000 bat bisitari izan duzue. Datu ona da, ezta?

Bai; Udalari eta Turismo eta Garapen Agentziari dagokie balorazioak eta aurreikuspenak egitea, baina, langile moduan, guk ikusten duguna da bisitari asko izan dugula. Egunero ditugu bisitariak, asteburuetan txanda guztiak beteta izaten ditugu.

Egunero, batez beste, zenbat bisitari jasotzen dituzue?

Astean zehar, laurogei bat eta asteburuetan, 225 bat lagun.

Abuztuari begira datuok gaindituko dituzuela uste duzu?

Ez dakigu; dena dela, momentuz, eguneko 260 bisitari jaso dezakegu, ezin dugu kopuru hori gainditu. Izan ere, egunero, gehienez, 12 txanda ditugu eta txanda bakoitzean 20 lagun edo zerbaite gehixeago sartzen dira. Hasiberriak gara eta ez dakigu zer gerda daitekeen, baina pentsa dezakegu uztaila eta abuztua izango direla hilabeterik jendetsuenak eta gero jaitsi egingo dela bisitari kopurua.

Zelako bisitariak jaso dituzue orain arte?

Gehienak gipuzkoarrak izan dira, ez bakarrik oñatiarrak eta debagoiendarrak. Donostialdetik eta beste zona batzuetatik jende asko etortzen da. Debagoieneko jende asko etortzen da; beharbada, oñatiarrak baino gehiago. Bestalde, jende motari dagokionez, asko dira erretiratua, ingurune hau ezagutzen dutenak eta familiak. Udatiarrak ere, kanpotarrak, atzerritarra, hasi dira etortzen, europarrak zein Europanik.



Imanol Biain, Arrikutzeko gidarietako bat.

GOIENKARIA

"Bisitari asko dira erretiratua, ingurunea ezagutzen dutenak eta familiak umeekin"

"Bisita zientifikoagoak egiteko aukera aztertzen hasiko gara udazkenetik aurrera"

Nondik jasotzen du jendeak kobazuloaren berri?

Askok esaten digute Internet bidez izan dutela Arrikutzzen berri, baita egunkarietan irakurrita ere. Kostaldeko turismo bulegoetan eta ostatuetan ere ematen dute informazioa.

Orain arteko bisitarien zer diote?

Orokorrean, nik uste dut gustura joan direla. Askok esaten digute ez zutela pentsatzen hemen horrelako toki ederrik zegoenik.

Ingurune hau ezaguna izan da bere edertasunagatik, baina lur azpia ez; askorendako, sorpresa izan da hemen, gure ingurunean, lur azpian horrelako edertasuna eta aztarnak aurkitzea.

Galdera asko egiten dizuete?

Bai; adibidez, galdetzen digute ea lehoien eta gainerako animalien aztarnak benetakoak diren. Jendeari harridura handia sortzen dio jakiteak orain dela milaka urte zelako animallak bizi izan ziren hemen. Bestalde, momentu honetan erreka urik ez daramanez, jendeak jakin nahi du noiz egongo den ura, berriro eterri ahal izateko.

Zerbait aldatzeko beharra iku si duzue gidariok?

Ikusi dugu beste mota bateko bisitak egiteko aukera handia ematen duela kobazuloak: bisita zientifikoagoak, esaterako. Dena dela, udazkenetik aurrera hasiko gara gai hori aztertzen.

100etik gora ibilgailu

erdiberri
edo **OKM**-koak aukera

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

Feel the difference



AHT > UZTAILAREN 27TIK ABUZTUAREN 5ERA

Aurtengo AHTren aurkako kanpaldia Aramaion izango da

Tailerrak, mendi martxak, hitzaldiak, umeendako jokoak, antzerkiak eta kontzertuak izango dira, besteak beste

MIRIAN BITERI > ARAMAIO

Abiadura Handiko Trenaren Aukako Asanbladaren urtero-ko kanpaldia Aramaion izango da, *Geldituko dugu!* lelopean. Hamabigaren aldia da esandako gunea antolatzen duena. Hamar egun iraungo du, uztailaren 27tik abuztuaren 5era bitartean. Tailerrak, mendi martxak, hitzaldiak, haurrendako jokoak, antzerkiak eta kontzertuak nagusituko dira egun horietan.

Inoiz aurreikusitako azpiegitura "erraldoien" dela eta "konponezinezko" kalteak eragingo dituela gogorarazi du. Aramaioko ibarra horren adibide garbia dela eta, hortaz, aurtengo kanpaldia han egitea erabaki dela aipatu du.

"Bere inguruaren esentzia zeharo aldaturik geratuko da",

azpimarratu du asanbladak. 1.405 metro luze eta 85 metro garai izango den biaduktua eraikitzeaz gain, Barajuen, Azkoaga, Zabola eta Suña auzoetako zelaia, esaterako, "oso degradatuak" geratuko liratekeela aipatu du.

Untzilla eta Aramaioko erreka ere "txikituko" lituzkeela eta tunelen zulaketatik ateratako hondakinek ibarreko mendi magalak "zakartegi" bihurtuko lituzkeela gaineratu du AHTren Aukako Asanbladak. Horregatik, Aramaioko kanpaldian biltzeko dei egin du, "garapen suntsitzalea gelditu eta AHTren aurkako borroka gero eta gehiago zabaldu behar dugulako", azaldu du.

EKITALDI UGARI

Esan bezala, antolatutako ekinmenak uztailaren 27an, egubakoitzta, hasiko dira. 19:00etan, bertso-poteoa izango da herrian eta afaldu ostean, batzarra egingo dute. Zapaturako prestatutako ekintzen artean, Luku eta Urbina artean egiten ari diren lanetara bisitaldia egingo dute. AHT Gelditu Elkarlanak! deituta, 18:00etan manifestazioa izango da Urbinan.

Hilaren 29an, bestalde, Aramaion kalteturiko inguruneak oinez bisitatuko dituzte. Azkoaga, Zabola, Suña eta Barajuen, hain zuzen. Uztailaren 31rako aurreikusitako ekitaldiei dago-kienez, Leze Txiki eta Kobate aldera egingo den mendi martxa nabarmenzen da egitarauan. Abuztuaren 1ean desobedientzia ekimen bat aurkeztuko dute eta hurrengo egunean egun osoko mendi martxa egingo dute, Izpizte eta Orrixol inguruan.

Abuztuaren 4an, zapatua, Gasteizera joango dira, hango gaztetxetik abiaturako den azpiegituraren aurkako kale antzerki eta kalejiran parte hartzeko. Gasteizko gaztetxeak Andra Mari Zuriaren jaiak direla-eta antolatu du ekintza hori. Domekan herri kirolak, erromeria eta aurtengo kanpaldiaen balorazioa egingo dituzte. Esandako ekintzez gain, tailerrak, hitzaldiak, antzerkiak eta kontzertuak nagusituko dira kanpaldi osoan zehar.

AHTren Aukako Asanbladak antolatutako gunean parte hartzeke ez da izenik eman beharko. Eta jateko bonuak han erosai ahal izango dira.

FORU ALDUNDIA > DIPUTATUEK ATZO HARTU ZUTEN KARGUA

Rafael Uribarren (EAJ) eta Iñaki Galdos (EA) diputatu

Nekazaritza eta Kirol diputatu izango dira, hurrenez hurren, bi debagoiendarrak

M.B. > BERGARA

Atzo, eguna, hartu zuten kargua Gipuzkoako Foru Aldundiako foru diputatu berriek. EAJk eta EAk hitzartutako foru gobernuak aldaketa nabarmena izan du azkeneko lau urteetan alderatz gero; izan ere, orain arteko hamar diputatutak bakarrak baino ez du jarraituko agintaldi berrian. Hain justu, Rafael Uribarren arrasatearra da jarraituko duen bakarra. Uribarren legegintzaldi erdian sartu zen gobernu taldean, eta, orain arte bezala, Nekazaritza diputatu gisa jarraituko du. Arrasateko Udaleko zinegotzi ere bada.

EAJk hamar sailetako sei hartuko ditu bere gain eta Rafael Uribarrenen batera sartuko dira gobernuan Arantxa Tapia, Maria Jesus Aranburu, Edurne Egaña, Carlos Ormazabal eta Eneko Goya.

EA alderdiak lau diputatu izango diru, horien artean Iñaki

ki Galdos oñatiarra. Gipuzkoako EAko presidenteak Kiroltako eta Kanpo Ekintzetarako diputatu izango da. Baita diputatu orde ere.

ATERAKO DIRENAK

Koldo Azkoitia aretxabaletarrak diputatu izateari lagako dio. Lurralte Antolamendu eta Sustapenerako diputatua izan da.



GOIENKARIA



GOIENKARIA

KIA auto erakusketa berritua Arrasaten! Etor zaitez ezagutzen, KIA produktu-gama zabala!



KIA MOTORS
Araba Etorbidea z/g - ARRASATE
(Honda Tecnocar ondoan)
Tel.: 943 79 00 11 Faxa.: 943 71 27 38





LEHENAK Arrasatera eta Aretxabaletara heldu diren lehenengo haur sahararrak martitzenean iritsi ziren.

ELKARTASUNA > OPORRAK BAKEAN PROIEKTUA

Saharako 27 haur etorri dira egunotan ibarrera

Poza eta urduritasuna nabaritzen zen Saharatik etorri berri diren neska-mutilen aurpegietai

Bi hilabete inguru dituzte aurretik haurrek udaz gozatu eta ibarreko bizimodura egokitzeko

M.B.> BERGARA Ibarrean daude dagoeneko Saharatik etorritako haurrak. Guztira, 27 neska-mutil iritsi dira egunotan gurera. Hasieran poza eta urduritasuna igartzen zen haien aurpegietai. Batzuk lehen

aldiz etorri direla kontuan hartu behar da. Haur sahararrak etxeen hartu dituzten lagunak ere urduri samar zeuden, horiek noiz eta zelan helduko ziren zain zeuden-eta.

BI HILABETE

Aurretik bi hilabete dituzte guztiak egoera berrira egokitzeko eta udaz gozatzeko. Irailaren 9an eta 10ean itzuliko dira haurrak jaioterrira.

Nubi eta lesbaa elkarteen bidez, 17 ume heldu dira ibarreko. Arrasaten geratu dira gehienak. 12 neska-mutil, hain zuzen. Aretxabaletan eta Oñatin bina daude eta Eskoriatzan bakarra. Hiru hegaldi ezberdinatetan iritsi ziren haur horiek, martitzenean, eguztenean eta egunean. Dagla eta Aaingo kanpamentuetakoak dira guztia. Bubisher elkartea beste hamar umeak ekartzeaz arduratu da.

Sei Bergarako familiatan daude eta bina Antzuolan eta Elgetan. Hiru hegaldi ezberdinatetan heldu ziren horiek ere.

Ohikoa den moduan, ongietorría egingo diete Debagoieneko udaletan. Datozen egunetan ekitaldi xumeak egingo dira zenbait herrian.

GAUR ANTZUOLAN ETA BERGARAN

Lehena Antzuolan izango da. Gaur eguerdian ongietorría egingo diete herrira etorri diren bi ume sahararrei eta opari bana jasoko dute.

Bergaran daudenei ere harreira egingo die alkateak eta ondoren, merienda ederraz gozatuko dute udaletxeko arkueetan. 18:30ean hasiko da ekitaldia.

Arrasaten martitzenerako utzi dute. Bergaran bezala, alkateak ongietorría egingo die eta ondoren, merienda izango dute. 18:00etan hasiko da.

Garbi®

Ibarluzetako poligonoa, B-12. pab.
20120 Hernani
Tel.: 943 33 18 37
www.garbicontroldeplagas.es



Denborarekin eraman behar da ibilgailua tailerrena.

GOIENKARIA

Autoa berrikusteko tailerren lana %40 handitzen da uda partean

GOIENKARIA > BERGARA

Oporrak hasi aurretik, bidaiatzeko erabiltzen den ibilgailua berrikusi egin behar da. Tailerrena eramatea azken ordura arte uzten du jende askok. Ohitura hori kentzea gomedatzen dute urtero tailerrekoek, pilaketak eta ondorengo buruhausteak ekidin gura badira. Kontuan hartu behar da tailerren lana %40 handitzen dela uda partean eta berrikuspena astebetze luza daitekeela, *Consumer* aldizkariak jakinarazi duenez.

Ikerketen arabera, ura, oliao, likido hoztailea eta hazieta-garbigailuak berrikustea eskatzen da gehienbat uda partean. Gurpilaren pneumatikoak, olio nahiz haizeen iragazkiak, balaztak eta ibilgailuaren direkzioa ere askotan aztertzen dira. Argiak funtsezkoak diren arren, ez zaie la horrenbesteko garrantzirik ematen ohartarazi du.

Europar Batasunak eguzkiko kremak kontrolpean ditu

Europar Batasunak eguzkiko kremen etiketatzean *Babes osoa* eta halako leloak jartzea debekatu du. Babes osoa duten kremak ez direla existitzen eta horrelako esaldiek nahasketea eragin eta urtero milaka heriotza izatea laguntzen dutela esan du.

Hemendik aurrerako etiketatzek izpi ultramore logo-tipo berria izango dute eta babes txiki, ertain, handi edo oso handikoak diren azalduko dute, orain arte erabili izan diren zenbakirik gabe.

Aurten, hala ere, saltzen diren eguzkiko kremen %20k baino ez dute eramanago etiketatzeko.

Merkuriozko termometroek agur esango dute

Zeinek ez du izan etxean merkuriozko termometro bat inoiz? Gutxi geratzen zaio horri, Europar Batasunak haien ekoiztea debekatu du-eta. Neurria ez da, hala ere, berehalakoa izango, eta urte eta erdi izango dute merkatutik kentzeko.

50 urte baino gehiago dituztenak, gainera, ez dira kendu beharko, ondasun kulturaltzat hartzen dituelako.

Europar Batasunak industria-erabilera kentu gura du merkurioa. Osasunaren dako eta ingurumenaren dako txarra izan daitekeela ohartarazi dute adituek.

Egurraren tratamendua (pipiak, termitak...)

Orain hezetasunaren tratamenduak egiten ditugu

gure artekoak

ALFA ROMEO 147 > Automobil deportiboetan da nagusi Alfa Romeo etxea eta oraingoan ere era horretakoa dakarkizuegu. Bergarako Markiegi Autoetan izan gara automobil hori ezagutzen, Meltxor arduradunarekin.

Meltxor Markiegi > Markiegi Autoetako arduraduna

"Segurtasun handia ematen dio Q2 sistemak automobilari"

AINTZANE IRIZAR > BERGARA

Automobil deportiboak dira Alfa Romeo etxearen espezialitatea eta oraingoan ere deportibo bat aurkezten dizuegu: Alfa Romeo 147, hain zuzen ere. Diseinuaz eta gidatzeko moduaz gain, deportibotasun hori azpimarratzeko, kolore aukera oso zabala eta berezia eskaintzen digu.

Q2, SISTEMA BERRI-BERRIA

Alfa Romeo etxeak sistema berria estreinatu du: Q2. Alfa Romeo 147 1.9 JTD 150 ZP Q2 automobia dugu sistema berri horrekin. "Aitzindaria da, zentzu guztietan", azaldu digu Meltxor Markiegik. Aurreko gurpilen ardatzean kokatzen da Q2 sistema, trakzio adimentsuaren sistema. Bere oinarritzko elementua da kontrolatutako lerratzea differentzial bat. Gidatzeko baldintzen eta errepidearen baldintzen arabera jokatzen du sistema horrek eta kontrol osoa ematen dio autoari. Segurtasun sistema aitzindaria eta punta-puntakoa da Q2.

EKIPAMENDUAN, BI AUKERA

Ekipamenduari dagokionez, bi modelo dauzkagu aukeran: Sport eta Collezione. Bigarrena gama handiagoa automobila da. Collezione modeloa ere deportiboa da; hala ere, beste dotorezia bat,



Meltxor Markiegi Alfa Romeo 147 automobilarekin.

Alfa Romeo 1.9 JTD 150 ZP Q2

Prezioa	16.000 eurotik hasita
Luzera	4,170 metro
Zabalera	1,729 metro
Maletategia	---
Kontsumoa	5,9 litro /100 km ⁽²⁾
Abiadura	208 km/h ⁽³⁾
Otik 100era	8,8 seg.
CO2 isurketa	157 g/km

- (1) Gehienezko edukiera
- (2) Batez besteko kontsumoa, hiri barruko eta errepidekoak kontuan hartuta
- (3) Gehienezko abiadura

seriotasun bat ematen dio automobilari modelo horren diseinuak eta ekipamendua.

COLLEZIONE MODELO DOTOREA

Ukitu berezia, dotorea, dauka Collezione modeloak, zalantza barik. Aleazioko hagunak, ateen helduleku kromatuak eta kalandra kromatuak dira ukitu berezia ematen dioten elementuen hainbat adibide. Barruko aldeari dagokionez ere, dotoretasuna eta erosotasuna dira ezaugarri azpimarragarienak; eserlekuak larruzkoak dira, baita bolantea eta aldagailuaren palanka ere.

etxeko leihotik

Eneko Azkarate > GOIENKARIAko zuzendaria

Gure herriko ondare aberastasun ezezaguna

Uztail fresko honetan zeri buruz idatzi ezin asmatu nennen. "Eguraldia bezalako gai errepikaria?", neure buruari. Izan ere, aurtengo udaberri-udako gogorra da gero. Sikiera, euli eta eltxorik ez da apenas ageri. Gaitz erdi! Eta, halako batean, Oihana Elortza lankideak jarri dit gaia: "Bergarako Jauregi etxeko erliebea mudejar estilokoa dela uste dute". Zer? Bagenekein Jauregi etxea eta bere erliebe figuratiboa oso aberatsak zirela ikuspuntu arkitektonikotik, eta bakarrenetakoak Euskal Herri osoan ez ezik, Iberiar Penintsula osoan ere. Baino batik bat Aragoiren hegoaldean ugaldu zen arte kristau eta arabiarren arteko nahasketa den mudejar estilokoa izan zitekeela, ezta tutik ere. Ziurtatzen bada, garantzia handikoa da.

Eta honek denak hausnarketa hau egitera narama: zein gutxi ezagutzen ditugun bergararrok, eta gutxiago oraindik Debagoieneko gainerakoek, Bergarako ondare aberatsa, Euskal Herrian oso herri gutxik duten modukoak. Eta larriena: ze gutxi eginen dugun gure ondare aberastasuna kanpoan ezagutarazteko eta gure hirigunea dotore eta eroso edukitzeko. San Martin plaza eta Irala kalea dira horren adibide.

"Ze gutxi egiten dugun gure ondare aberatsa kanpoan ezagutarazteko"

> **Oñati eredu** da gure ibarrean, turismoa erakartzeko proiektuak bultzatzen. Hirigune eta natura paraje bikainak ditu, eta ondo saltzen du hori. Arrikutz (3.000 bisitari lehen hilabetean) da azken adibidea.

> **Iñaki Galdos** oñatiarrak izango du, Foru Aldundi berrian, Gipuzkoa kanpoan ezagutarazteko ardura, kirolarekin batera. Hemen izan dezakegu bergararrok aliatu bat. Ikusi behar.

begi-bistan

Sugetzarra Larrion (Aretxabaleta)
2007/06/08

Argazkia: Iratxe Bengoa.
Testua: Aintzane Irizar.

Suge handi hori hegazti batek akabatu zuen argazkilariaren aurrean eta gero han laga zuen, argazkian ikus daitekeen moduan. Hurrengo bueltan, baina, ez zegoen han; hortaz, eroan egingo zuen.

Har ezazu parte:
Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera:
goienkaria@goiena.com

izen propioak

Xabier Mugartza
ULMA

Xabier Mugartza da Ulma Taldeko lehendakari berria; Jose Luis Madina goitiak lagatako kargua hartu du. Mugartzak 33 urte ditu, Enpresa Zientzietan lizentziaduna da eta AEBetan Ulma Construccióneko filialeko finantza arduraduna izan da bost urtean.



Carlos C. Lista
THE OÑATI INSTITUTE

Irailetan aurrera zuzendari berria izango du Oñatiako Nazioarteko Lege Soziologiako Era-kundeak. Carlos C. Lista da hura, argentinarra; Argentinako Kordobako Unibertsitateko da. Azken bi urteetan Jose Ramon Bengoetxea izan da The Oñati Instituteko zuzendaria.



Pedro Oyanguren
TXILETARRA

Oraingo astean ospatu dute Bilbon Euskal Gizataldean IV. Mundu Biltzarrera. Biltzarrean parte hartu du oñatiar jatorriko Pedro Oyanguren txiletarra. Txileko Santiangoko Euzko Etxearen zuzendaria da. Zañartu auzoko Etxeberri baserriko zuen aitaita.

Espaniako merkatuan toki privilegiatua lortu nahirik, Caprabo marka erosi du Eroskik, eta

Permira (Dinosolen jabea), Carrefour edota El Arbol etxe-ei aurre hartu. Hautsak harro- tu dituen operazioa izan da; 1.300 milioi euro inguru ordaindu ei ditu Eroskik. Bezeroei atxikita jarraitza da helburu nagusia, Agustin Markaide zuzendariaren esanetan.

Agustin Markaide > Eroskiko zuzendari orokorra

"Zabalkunderako pauso handia da, nahi genuen lekuetan dagoelako Caprabo"

EDU MENDIBIL > ELORRIO

Bostehunetik gora supermarketren jabe den Caprabo marka katalanaren %75 erosi berri du Eroski taldeak. Katalunian ez ezik, Madril, Balear irletan eta Nafarroan bere presentzia modu nabarmenean handitu ahal izango du Eroskik. Agustin Markaideren (Arrasate, 1957) hitzetan, "lehia horretan ez gaudeatzean, ezta lehenak ere. Etorzunean podiumean egoteko ari gara lanean". Eroskiko zuzendari orokorak Elorriion, enpresako egoitza nagusian, hartzaintzen.

Hainbat iturriren arabera, 1.300 milioi ordainduko ditu Eroskik Capraboren partaidetzagatik...

Kopuru zehatza hemendik hilabete batzuetara jakin ahal izango da, baina oraingoz ez dugu nahi horren inguruan eztabaida pizterik. Ez da egia banaketa alorrean, Europa mailan, enpresa bategatik inoiz ordaindu den kopururik handiena izan dela. Akaso Espanian ordaindu den handiena izan daiteke, saldu den enpresa handiena izan delako. Operazioa gauzatzen denean argituko dira kontuak. Edozelan ere, zabalkunderako pauso handia izango da, justu nahi genuen lekuetan dagoen enpresa delako Caprabo.

Zein da, gaur egun, Eroskiren tokia Espania mailako lehia horretan?

Ez gaude atzean, ezta lehenak ere. Oraindik ere etapa asko dau de jokatzeko eta etorkizunean podiumean egoteko ari gara lanean. Gure lehiakideak indartsuak dira eta nork bere indarrak ditu: batzuek munduan zehar presenzia nabarmena daukate, beste batzuek aniztasun hori ez izan arren formatu berezia dute... Gure indarra hauxe izatea nahi dugu: bezeroengandik hurbil egotea eta langileak izatea gure den den aldeko differentzia markatzentzen dutenak.

Konpetentziatik bereiztea gero eta zailagoa gertatzen da gaur?

Berezitasun batzuk baditugu beste batzuekin konparatuz. Espania osoan 2.300 denda inguru ditugu gaur; horietatik 100 merkataritza-gune handiak dira eta beste guztiak denda txikiak dira. Eskaintza zabala betetzen dugu alde horretatik eta beti bilatzentzen dugu kontsumitzaileengandik gerto egoten. Hain zuzen,



Agustin Markaide arrasatearra Eroski taldeko zuzendari orokorra da 2001. urtea ezkerrean.

GOIENKARIA

ESKAINTZA ZABALA

"Espanian 2.300 denda inguru ditugu; horietatik 100 merkataritza-gune handiak dira"

bidaia agentziak edo lurrindegiaiak zabaltzean hori bilatzen dugu. Alde batetik, kontsumitzaileen kooperatiba garelako eta diru kopuru handi bat bideratzen dugulako bezeroei informazioa emateko. Bestalde, saltzen ditugun produktu freskoak (900 ekoizle ingururekin) aipatu behar dira.

GERTUTASUNA

"Bidaia agentziak edo lurrindegiaiak zabaltzean, bezeroengandik hurbil egotea da asmoa"

Eta azkenik, gu gara enpresaren jabeak eta bezeroekin tratuan gabiltzanak. Horrek abantaila ederra ematen digu beste batzuekin konparatuz gero. Negozio ugari dituzue gaur: perfumeriak, kirol dendak, optikak, gasolindegiaiak... Zein-

ERRONKAK

"Telefoniarekin batera, Abac liburu dendak izan daitezke hurrengo apustuak"

tzuk izaten dira horiek martxan jartzeko irizpideak?

Orokorean, kontsumitzaileok gero eta diru gutxiago eskaintzen diegu elikadura produktuei. Beste gauza batzuetan dirua gasatu nahi izaten dugu, eta bezeroen behar horiei adi egon behar dugu. Hala ere, nahiz eta aukera

egon, gauzak ondo egiteko gai garen aztertu behar dugu lehenbizi. Hortik ateratzen dira produktuak eta testak. Testak ondo ateratzen badira, proiektua gauzatzeko urratsak ematen ditugu. Dena dela, aktibitate edo jardue-ra gehiago izateari baino gehiago, ditugun aktibitateak handitzeari ematen diogu lehentasuna.

Telefonia alorrean hasteko zaretela zabaldu da...

Egitasmoa baino ez da oraingoz. Beste batekin ere ari gara probak egiten azken bi urteotan. Aisialdi eta kulturaren aldeko gure apustua da Abac: Gasteizen, Boulevarden, dago denda bat eta Madrilren bestea. Familiari zuden-dutako hezkuntza eta aisialdi produktuak eskaintzen dira eta ez dugu joko sexistarik ezta belikorik saltzen. Ondo aterako balitz Abacen apustua, hori izango litzateke hurrengo proiektua, telefonoarekin batera.

Zenbat langile ditu Eroskik gaur? Horrelako enpresa handi baten zailagoa da balio kooperatibistei eustea?

Caprabo erosi aurretik, 32.000tik gora langile ginen eta orain 15.000 gehiago izango gara. %40 dira parte-hartzaleak; Euskal Herrian garenon artean kooperatibistak dira batzuk eta Euskal Herritik kanpoko 5.000 inguru ez dira kooperatibistak. Beste formula bat erabiltzen da, baina eragin berarekin: parte hartzen dute kapitalean, erabakietan eta irabazietan (edo galeretan) ere. Hurrengo bi urteetarako gure asmoa hauxe da: 32.000 langile horiei kooperatibistak izateko aukera eskaintza.

Enpresa txikia edo handia izan, balio kooperatiboei eustea zaila da; akaso azken urteotan ez dugu ondo lan egin, baina *kooperatibazio* debate horretan ari gara eta galduko denbora irabaziko dugu laster.

Debagoienera etorri, Arrasteko hiperra handituko duzu...

Udalean egitasmoa aurkeztu genuen eta erantzunaren zain gaude. Inguruan estazio intermodala egitekoak dira Udala eta Diputazioa, eta proiektu biak ondo aztertzeko denbora beharko dute. Merkatari txikien kexuak? Guregana ez dira zuzendu, baina lehiakideak izatea ez zaio inori gustatzen. Dena dela, erosleak erakartzeko lanean ari gara guztiok.



zabalik

Oskar Elizburu

Oporrik ez, mesedez!

Urteko egutegia aurrean, bizkor eta jakin-minez oporre-tako zati gorri erakargarri hori zenbatekoa den ikusi eta noiz helduko den esperantzaz ekiten diogu lanari. Bakoitzak daukan lanaren araberako zatia dagokio baina, eta 15 egunetik ia 3 hilabetera artekoa izaten da gehienetan.

Egunero jarduna, eginkizuna edo betebeharra burutu dugun seinale eta ondorio izan behar lukete oporre; egindako lanari atera diogun etekina, alegia. Hortaz, *merezitakoak* behar dute izan **bakaziñuek**, duda barik eskuratu egin ditugunak eta ez eman edo oparitu diguten zerbait. Irabazi ditugu baina?

Ez jarri horrelako betozkorik, ez dut dudan jartzen lana-ren ondorioz oporrak merezi ditugun, zertan hartzen ditugun da neurri ardura sortzen didana. Urte osoko ordutegi, ardura, presa eta erantzukizunen ondoren, denari uko egin eta patxadan egoteko joera dugu gero eta gehiago. Dena dela, hori ez litzateke txarra izango arlo batzuk *tunbing* horretatik aparte lagatzeko ardura bageneuka. Hainbat eginkizunek etenik ez dutela kontuan hartz behar dugu; euskara da bat"

"Gure hizkuntza normalizatu arte ez dugu oporrik irabaziko"

Euskara dugu hauetako bat. Batzuek urte osoa ematen dute euskara ikasten eta hauendako aukera ona izan daiteke opor garaia gehiago ikasteko eta erabiltzeko. Beste batzuek egunero erabiltzeko dauagun ohituran ezin dugu presioa jaitsi eta erderarako joera indartzen utzi. Kanpora joaten garela, beste lagun batzuekin elkartu garela, ez dago aitzakiarik!

Gure erronka da, Euskal Herrian gure hizkuntza normalizatu arte ez dugu oporrik irabaziko; *euskarari* oporrik ez, beraz!

Goienkaria

Argiratzalea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarte • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE Lehendakaria Esteban Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Saitetako arduradunak Ubane Madera (Herríak), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Oiseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) Erredakzioa Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Iriaraz, Mirian Biteri Oinarritzko diseinua Goi Arana Maketazioa Alex Azkarate, Kepa Martelo Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziorita Martín, Imanol Elortza, Itxaso Bereziar Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarin, Ane Bereziar, Marielu Unamuno.

EGOTZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

Posta-e: goienkaria@goienea.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasate@goienea.com

ARETXABAleta 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxabaleta@goienea.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93

Posta-e: publi@goienea.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goienea.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 19.400 ale • Difusioa: 19.056 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria



LAGUNTAZIALEK



Eusko
Jaurlaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiako
Udala



Aretxabaleta
Udal



Eskoriatzako
Udal



Antzuolako
Udal



Aramaioko
Udal



Elgetako
Udal



Leintz Gatzagako
Udal

herriarrak galdezka

'OVERBOOKING' EGOERAN ZER
EGIN DAITEKE?

**Abuztuko oporen atarian gadea.
Hainbat debagoiendarrek oporrak
igarotzeko lekura joateko hegazki-
na hartuko dute, eta, debagoiendar
horiek bezala, milaka pertsonak.
Hori horrela, overbooking-a gerta-
tu ohi da maiz. Oñatiiko irakurle
batek ere hegazkina hartuko eta
halakoetan zer egin jakin nahi du.**

Kontsumizaileen Gidara jo dugu *overbooking*-a gertatz gero kontsumizaileak nola jokatu behar duen eta haren eskubideak zein diren jakiteko. Eginkizun hori ez dago legez debekatuta, baina Europar Batasunak araututa dauka. Hain justu, 2005eko otsailaren 17an, Europako Legebiltzarraren araudia berria sartu zen indarrean, besteak beste *overbooking* egoera jasan behar duten bidaiaiaren konpentsazioak gogortzeko asmoz.

Overbooking-a izaten denean, hegazkinera igo gabe geratuko diren bidaiaiaren kopurua murrizteko, antolaketa berria ezzarri da: lehenik eta behin, konpainiak eskatu beharko ditu hegazkina hartz barik geratuko diren boluntarioak–boluntariook euren erre-

serba lagako dute konpentsazio ekonomiko batek truke edo besetako pizgarri baten truke-. Horrez gain, aukera hau eskaini beharko die boluntarioei: txartelaren kostu osoa itzultzea gehi itzulerako hegaldia.

Nahiko boluntario ez badau-de, ontziratzeko lehentasuna izango dute: adinekoek, ezintasunen bat dutenek eta bakarrik doazen adingabeek.

Halabeharrez ezin ontziratu-

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaligu-zu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoikionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxe: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goienea.com

ta geratzen diren bidaiaiaren kasuan, inprimaki bat eman behar die konpainiak eskubide gisa dituzten konpentsazio-araauak adierazita. *Overbooking* kasuan hauek dira: egin gabe geratutako bidaia-zatiaren txartelari dago-kion prezioaren dirua itzultzea, penalizaziorik gabe, eta dagokio-nean, abiapuntura eramatea; lehenbailehen jomugara eramatea eta bidaiaiari ondo datorkion beste egun batean eramatea.

Hiru aukeretako edozein hau-tatzen badugu ere, hegazkinera igotzea ukatu bezain laster, gutxineko konpentsazio bat ordaindu behar du konpainiak: gehienez 1.500 kilometroko hegaldietan, 250 euro; Europar Batasunaren barruan, 1.500 kilometro baino gehiagoko hegaldietan eta 1.500 eta 3.500 artekoetan, 400 euro. Eta aurreko bi ataletan barne hartu ez diren hegaldietan, 600 euro.

Konpentsazio horiez gain, konpainiak hartu beharko ditu bere gain: bi telefono edo fax dei, jomugara; nahikojanari eta edari, itxaron denboraren arabera, eta, gaua igaro behar izanez gero, hotelera eramatea eta gauaren kostua.

marrakiz

Alex Ugalde

Kontxo! Nire hipoteka daukan basketxeak 7.000 milioi irabazi ditu aurten, eta lanean nabilen enpresak 2.000 milioi. Eta horrez gain, sekula berbarik egin ez duen nire loria "zapateroy" esateko gauza da orain.



Toki arteko borroka eta errauskailuak

Markos Zapiain

www.eibar.org/blogak/zapiain

Errauskailuak direla eta, klase arteko borrokaren bilakaera eta aldaki berriak nabaritu zaizkigu. Esaterako, bizilekuaren arteko, hiriburuen eta herri txikien arteko.

Geure diputazioetako eta gobernuetako aurrekontuen

ehuneko ikaragarri handi bat hiriburuko zerbitzuak, eraiki-nak eta bideak zaintzeko dira.

Hiriburuetan daude Ospitaleak, Epaitegiak, Kontserbatorioak, Telebistak, Audientziak Neurtzeoak, Unibertsitateak, Baluarte, Guggenheim...

Probintziari aldiz miseria eskaintzen zaio: goitik behera zulatu hiriburutik hiriburura lehenbailehen iristearren eta gainera errauskailuz eta zabortegiz kakaztu. Hiriburuko biztanleen zaborra probintzian erre behar.

Nork bere zaborra erretzea, hori litzateke zuzenena.

Hiriburuetako zaborra hiribu-

ruetako lurretan erre beharko litzateke. Eta bide batez Aldundiaren aurrekontua ez ditzatela hiriburuek ia erabat irentsi.

Zaborra ere justiziaz eta berdinatasunaz banatu beharra dago: zenbat sortu, hainbat badugu zaborgile nagusi, hiriburuko lurretan behar da zaborra erre. Odon Elorzar berriki ziurtatu du errauskailua onuragarria dela ingurako. Orduan jar ditzala pare bat Boulevardean, erantzun zioten.

Boulevardean, ez Egián. Hiriburuan mugen barruan ere bai baitago eta klase arteko

blog

plazara

Reala bigarren mailara jaitsi da. Rafa Mungia kazetariaren iritziz, errudunak ez dira "Fuentes eta konpainia". Taldea gainbehera

ze goen azken urteetan eta Deno- nerrealak lurrera erortzeko azken ostikoa baino ez dio eman. Mungiaren ustez, Realak behar duen

erreza magikoa hauxe da: Eibarrren jarrera zelaian eta Osasunaren abilezia bulegoetan. Eta, noski, zaleen babesia.

Rafa Mungia *

Guk ez dugu ezagutu...

Guk ez dugu ezagutu garbi-gailurik gabeko etxerik, ez dugu ez goseric ez hotzik pasa, Francoren garaia telebisatzen edo nagusiek esandakoez baino ez dugu ezagutzen. Petisuisaren eta Colacaoaren belaunaldiakoak gara. Futbolaren berri Naranjitorren eskutik jaso genuen eta Realaren golak Josean Alkortaren ahots urratuaren bidez entzuten genituen umea garaian.

Bai, egia da, guk ez dugu Reala bigarren mailan ezagutu eta harro gaude horretaz, harro haizeak irailetik aurrera A Malatan, Los Pajaritos edo Ipuruan utzi beharko ditugun arren.

Reala jaistearen errua ez da Fuentes eta konpainiarena soilik. Azken bospasei urteetan, azpitxapeldun suertatu zen urtean izan ezik, Realak arbolan usteldutako sagarraren antza hartua zeukan. Lurrera erortzeko azken golpea baino ez zitzaita falta eta zoritzarrez Denonerrealko hitz eta asmo onei muzin eginnez. Tokitan gelditu dira harrobia, betiko Realak, sustraietan oinarritutako taldea eta antzerako hitz goxoak. Denonerrealari bozka emandako makina bat akziodun sentitu da traizionatuta. Horrek ez du esan nahi Santosek presidentetza hartztu izan balu gauzak hobeto joango lirantekeenik, baina...

1989an Alkizak atzerritarra ekartzea erabaki zuenetik, talde txuri-urdinak makina bat izan ditu. Hasiera batean kanpotar kopurua mugatua zen eta etortzen zirenek normalean ber-



MIKEL ARROIABE

takoek baino maila hobea ematen zuten. Urteek aurrera egin ahal, ordea, atzerritarren kopuruak gorantz egin du eta hauen mailak, aldi, beherantz, salbuespenak salbuespen. Ez pentsa atzerritarren kontrako apologia egiten ari naizenik. Baina ezin dira zaku berean sartu Aldridge, Oceano, Kodro, Nihat edo Kovacevic bezalako jokalariak eta honako zerrenda amaigabe hau osatzen dutenak: Yaw, Purk, Peiremans, Bonilla, Demetradze, Collet, Rivas, Herrera eta abar. Gakoa bizpahiru atzerritar on fitxatzean datza, eta ez dozena bat erdipurdiko. Ez dela erraza? Ez, noski. Ezin dela beti asmatu? Ezta ere.

"Gakoa bizpahiru atzerritar on fitxatzean datza, eta ez dozena bat erdipurdiko"

"Realak behar duen erreza magikoa: Eibarren jarrera eta gosea zelaian eta Osasunaren abilezia bulegoetan"

Baina horretarako daude *ojeadore*, kirol zuzendari eta antzerako kargudunak.

Eta ez pentsa etxeen daukgun guztia ere ona denik. Bertako jokalarien mailak ere nabarmen egin baitu beherantz azken urteetan. Ikustea besterik ez dago talde donostiarrean ari diren euskaldunengatik zeeskaintza gutxi iritsi den Anoetako bulegoetara. Badira jokalariak *primeran* etorri zaienak Euskal Herrian jaiotzea, bestela agian Realean edo Athleticen beharrean batek daki non ariko ziratzekeen.

Bukatzeko, Realak behar duen erreza magikoa: Eibarren jarrera eta gosea zelaian eta Osasunaren abilezia bulegoetan. Eta, batez ere, Reala izatea. Bertako jokalari, sentimendu eta balioekin. Azken urteetan filosofia argirik gabe beste talde bat gehiago bilakatu baita. Ea John Benjamin Coleman-ek asmatzen duen harrobiaren eta bizpahiru fitxaketa onen arteko oreka bilatzen. Aukeran Sevillaren *berpizkunde* nahiago (bigarren mailatik Uefan agintzera), baina ez ahaztu zer gertatu zaion Oviedori (ondoak jota). Eta zaleentzat oharra: Poli Ejido ez da Real Madrid, Hercules eta Barçak antz gutxi, baina hauei irabazteko ere Realzaleen babbesa ezinbestekoa da, eta ez bakarrak doako sarrerek Anoetara hurbiltzen diren *jarraitzaileekin*. Reala Reala baita, lehen zein bigarren mailan.

*Rafa Mungia kazetaria da, Realaren partiduak jarraitzen ditu ETBrako

zer deritzozu?

www.goiena.net

Hondartzak garbi daudela uste duzu?

BAI	%66,6
EZ	%33,3

> BAI

Garbi daudela uste dut. Ni Laidara joaten naiz, hura da nire gustuko hondartza eta garbi dagoela iruditzen zait. Dena den ez zaidana ondo iruditzen da dutxak eta komunak bezalako zerbitzuak bainu denboraldian bakarrik zabaltzea. Denboraldik kanpo bada ere, komunak, behintzat, zabaldik egon beharko lirateke. Hondartza ez da soilik udan eguzkia hartzera joateko-eta.

Miren

> URA ZIKIN

Hondartzaren arabera aldatzen bada ere, nik uste dut ura ez dagoela oso garbi. Deba eta Saturraren, esaterako, ez naiz uretan sartzen.

Aitor

> NAHKO GARBI

Erretzaileek errespetu handiagoa izan beharko luketela uste dut eta zigarro mutxikinak hareetara ez bota. Dena den, nahiko garbi daudela uste dut.

Ainara

DATORREN ASTEKOAK: Zer deritzozu euskal federazioen aurkako helegiteari?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzunak.

Mantxuga

Anjel Lertxundi
www.berria.info/blogak/lertxundi

Beherapenetan gaude eta ni ere propaganda egitera noa. Baina liburuena, beherapenik handienarekin datozenketa-eta: dohainik. Bostehun mila liburu inguru sartu ditu E-Book izeneko Nazioarteko Feriak Interneteko pakete batean, eta eskaintza dohain librea -ez duzu legerik urratzen- abuztuaren hasiera artekoa da. Benetako mantxunga bat.

Behingoagatik, ezingo duzu liburuak garestiak direnik esan.

Ez, ez da txantxa. Sartzen zara Interneten, idazten duzu <http://www.worldbookfair.com> / helbidea, eta horra miraria: nahi dituzun liburuak -gehienak ingeles- eskuratzeko aukera aparta. Haur, gazte, heldu literaturakoak. Klasikoak eta modernoak. Ilustratuak eta marrazkirkir gabeak. Nobelak eta saioak...

Hor pasatu dut asteburua liburuak jaitsi eta jaitsi (edo jetzi eta jetzi, nola begiratzen zaion). Zer egin eskuraturakoezin, ez dut horretaz aholku emango didan ezer topatu...

koplak

Iratzi Agirreazaldegia

San Ferminak, amaierako minak

Aste osoan izan direnez Iruñean San Ferminak Orain alperrik izango dira tripa ta buruko minak.

Aste osoan goiz, zortziretan entzierroan zezenak kale hoielan zezenen para arratsaldez mozkor denak.

Aste osoan peñen giroa nagusi da zezen plazan muletak dantzan ez jarri arren jendea pozik da dantzan.

Aste osoan atzerritarra berdin hemengo zein hango nazioarteko jai ez direnik inortxok ez du esango.

Aste osoko jaien ostean zapatuau pobre de mi euria sobran daukagu udan malkorik ez da komeni.

Aste osoan hara joateko izan ez bada aukera asteburuan jaiak direnez, denak Antzuola aldera.

borroka, auzoz auzo, non zer ipini. Donostiako Egian badabil tramankulu zikintzaile franko. Baina Egian langileak bizi dira, euskal idazleak, etorkinak... jendaila. Beraz, arazorik ez.

Aitzitik, Urdanibian errauskailua jartzeko asmoa aipatu orduko, egundoko larrialdia, apokalipsia. Medikuak, enpresarial eta abokatuak bizi baitira Urdanibian. Medikuek inoiz ez zuten inongo kezkarik erakutsia Pasaiako biztanleez, nahiz eta isuri arriskutsuagoez inguraturik bizi. Baina gremioa ukitu orduko urduritasuna, kexua, prentsurrekoak.

Berriro ere lapurrik Elgetako gaztetxean

Kepa de Vega
(Elgetako Gazte Asanbladako kidea)
Elgeta

Inguru honetan esperientzia handiduna da Elgetako gaztetxea. 11 urte hauetan gaztetxe lapurren etxea bihurtu delarik behin baino gehiagotan, gazteena izateari utziz. Oraingo honetan sortutako desordena ez da izan handia, baina diru kantitatea ez da inondik inora txantxa bat, nahiz eta gaztetxe batean lapurtutako kantitatea ez den inoiz izango txantxa bat. Honez gain, hainbat likore botila eraman dituzte, sortu duten mina edanez ahalzeko, ez baitute beste biderik aurkituko horretarako.

Nahiz eta beste kasu batzuetan egindakoa larriagoa izan, inondik inora ez dugu lapurreta hau ezta beste bat ere ez ahalzu, eta ez dugu inoiz ahalzuko, lapur hauetan sortutako zauria denboraren medikamenduak ez duelako ixten.

Lehenago esan bezala ez da lehena eta nahiz eta guk azkena izan nahi izan, lapurrek min gehien egiten duten lekura joko dute, gure izerdia-ren fruitua aurkitzen duten lekura, autogestioaren atea itxiz, gazteek eta beste hainbat herritar zaurituz eta herriaren

Oso ideia ona: Antzuolako jaietara joateko autobusa

Mirari Mujika > Bergara

Bergarar bat naiz, bergarar ama bat, nerabe baten ama. Eta lerro hauek idatzi nahi ditut eskertzeko, zorionteko eta nabarmentzeko Antzuolako Udalak hartu duen erabakia: autobusa jartza gauez Antzuolako jaietara joan eta berri zere herriko etorrera egiteko. Zumarraga-Antzuola-Bergara ibilbidea egingo du bus zerbitzu horrek, eta Bergaratzik 23:00etan aterako da lehenengo. Goizaldeko 6ak arte orduro egongo da autobusa Bergaratzik, salbuespena ordu bietatik laurak bitartean izango da.

Berriro diot: oso ideia ona iruditzen zait, ze bestela alternatibak dira: jaietara ez joatea, edo itzultzea oinez, autoz edo motorrez. Gainera, sarritan, gurasoak izaten gara seme-alaben bila joaten garenak ezorduetan. Argi dago, beste alternatiba horiek baino askoz hobea da Antzuolako Udalak ipini duena. Zorionak!

bizitzaren zati handi bat puskatz gutxika-gutxika, herria konturatzeko ari ez dela pentsatuz, baina oker daude ez gauide isilik uste dugunaren inguruan eta ez gara isilduko.

Autogestioa dugu oinarri gaztetxeok, laguntza minimo batzuk jasoz, Elgetako gaztetxearen kasuan, Elgetako Jai batzordearen zati delako Ferixa Nagusiko jaietan, Sagardo Egunean eta Asentzio Egunean jasotzen ditugu laguntza hauet. Eta hori gutxi balitz beste batzuk atea ixten doaz gaztetxearen egoera kolokan jarritz, nahiz eta elgetarrek lagundu Elgetako

gaztetxea aurrera eramatzen. Diru beharra geneukan aurrera joateko eta gure konfiantza Elgetako biztanleen gainean jarri dugu, bereziki jatetxe, taberna, alojamendu lekuetan, masaje eta estetika zentroetan, dendetan eta ile-apaindegietan gaztetxearentzako laguntza eskatuz, beraiek emandako laguntzakin zozketa bat egiteko asmoarekin.

Beraien erantzuna behin baino gehiagotan eskertzekoada, baina orain Elgetako biztanleen laguntza falta zaigu, nahiz eta ziur gauden elgetarren erantzuna ere milaka aldiz eskertzekoia izango dela.

Demokraziarik gabe 30 urte (1977-2007)

Amaia Agirre
(Askatasunaren izenean)
Debagoienea

Euskal Herrian okupazio polizia eta militarra errealitye bat da. Indar okupatzaleak Espainiako eta Frantziako eredu politikoa euskaldunoi inposatzeko eta bermatzeko daude eta hauek dira estatuek diseinatutako zanpaketak estrategia egunerokotasunean praktikan jartzen dutenak: atxilotak, tortura, jazarpena, jendarte kontrola etab.

Hauen jardunbideak ez du inoiz etenik izan eta horren adierazgarri dira ETA erakundearen su-etenak iraun duen bitartean askatasunak jasotako datuak: 2.056 kontrol euskal errepideetan; 38 herriaren Espainiako Armadako maniobra militarrak; Guardia Zibilaren kaserna berriak: Santurtzi, Lekunberri, Intxaurrondo (handitze plana); 126 mobilizazio poliziak oldartua; 112 mobilizazio debekatuak; 125 herriaren mobilizazioetan zaurituak; 975 herriaren inguru identifikaturik mobilizazioetan edota propaganda politikoa jartzeko unean; 62 zitazio Audientzia Nazionalean; 307 atxilotak, horietatik 79 inkomunikaziopean; 15 tortura salaketa...

Hau ez da demokrazia! Euskal Herrian salbuespen egoera inposatu dute eta herritarren eskubideak ez dira existitzen. Horregatik, gatazka eta guda inposatzeko helburuz etorri diren indar okupatzaleak Euskal Herritik alde egin behar dute.

Uztailaren 16an, eguerdiko 12etan indar okupatzaleek desfile militarra burutuko dute Donostiako kaleetan zehar, portu inguruan hain zuzen. Eta gu beraien aurrean mobilizatzeko gara. Argi ikusi behar dute ez ditugula hemen behar, eta ez ditugula hemen nahi. Euskal herritarren hitza eta erabakia errespetatuko dituen marko demokratikoaren bidean, indar okupatzaleek alde egin behar dutela ozen esango diegu.

Kantari

Ainara Fernandez
Arrasate

Debagoienean Kantari izeneko ikuskizuna jarri dute abian Goienakoek. Eta izena eman dute bailarako ia 600 neskatik. Zelako ideia ona! Eta ze arrakasta, saioa zuzenduta dagoen parte-hartzeari dagokionez. Orain, ea telebistatik eta Goienako beste medioetan Debagoienean Kantari jarraitza lortzen den. Ni, behintzat, gogoz nago ze itxura, formatu... daukan ikusteko, eta ibarreko neska-mutikoak euskaraz kantuan ikusteko.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIK eskubidea du gutuna laburtzea. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauet: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefona:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

UDA HONETAN, JANTZI KILOMETROAK 07

KMK'07 ARANZADI IKASTOLA BERGARA



PUNTU ZORAGARRIAK DITUZU



Ordaindu **kutxako** zeure kreditu-txartelarekin,
puntuak batu eta oparia aukeratu.

Erabil itzazu **kutxako** zure txartelak, eta puntuz josiko zara. Eta opariz!
Ikus nolakoak diren www.kutxa.net-en.



zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEVERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

LORENZO M. JOOSTEN

Arrasate / Arrasate Pasealeku 29, Ezk behea / 943 79 29 13

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)

Bergara / Zurradero 6, behea / 943 76 70 67 / 607 48 71 19

ETXEVERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / Zerkaosteta 19, behea / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparagirre 1, behea / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfonso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

OÑATI / ATZEKO KALEA 6, BEHEA / 620 124 843 / 943 71 61 82

DIETISTAK

ALBERDI MIREIA

Bergara / Masterreka 11, behea / 943 76 33 99 / 646 43 34 58

RAQUEL PEREIRA GALDOS (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)

Nafarroa etorbidea 3 / 943 79 44 22

ENTZUMEN ZENTROAK

GAES

Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ITZIAR UGARTE OPTIKA - AMPLIFON

Arrasate / Arrasate Pasealeku 35-37 / 943 08 26 87

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA

Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96

ARZAK MIREN

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

BASTERRETXEA MARIA

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

EKIN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Belorrieta 6 – 7 / 943 79 95 64

IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA

Bergara / Burdiñate 2 / 943 76 21 31

IRATZARRI FISIOTERAPIA LOGOPEDIA ZENTROA

Arrasate / Uribarri etorbidea 7 / 943 53 39 90

UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.

Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

IRATZARRI LOGOPEDIA FISIOTERAPIA ZENTROA

Arrasate / Uribarri Etorbidea7 / 943 53 39 90

MASAJISTAK

ABUIN JOSE LUIS

Arrasate / San Josepe 10, behea D – Kirolegian

943 77 01 33 / 943 77 16 77

ARANTZABAL SAIOA

Elgeta / Domingo Iturbe 10 / 646 50 00 29

ARANTZETA JUAN MARI

Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

CASANELLAS JABIER

Bergara / Boni Laskurain 5-2E / 943 76 03 78

ELORTONDO FLOREN

Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

ETXEVERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

OPTIKAK

ARRASATE OPTIKA

Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98

BEGIENDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

ITZIAR OPTIKA

Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88

ITZIAR UGARTE OPTIKA

Arrasate / Arrasate Pasealeku 35-37 / 943 08 26 87

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95

PORTALOI OPTIKA

Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

ETXEVERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

AZPIAZU ARANTZAZU

Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerlekuzeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-32 Oñati > 33
Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Elgeta > 37 Leintz Gatzaga > 38 Aramaio > 39-41



> **ARRASATE**
Musakolako kirolegiaren 30. urteurrena da asteon > **18-19**



> **BERGARA**
EAE-ANV bederatzi batzorderen kargu egingo da eta Aralar, birena > **24**



> **OÑATI**
EAJk 11 batzordetatik bederatzi hartuko ditu eta Eak, bi > **33**



> **ESKORIATZA**
Guztiekin hartuko dituzte batzordeak, EB-Aralar eta PSE-EEk izan ezik >**34**

Juan Antonio Untzurruntzaga > Esklerosi anizkoitza du

"Optimista izan beharra dago; izan ezean 'jausi' egiten zara-eta"

ARRITXU BARRUSO > BERGARA
Joan den domekan, esklerosi anizkoitza duten gaixoei elkartasuna eta laguntza emateko Busti Zaitezkan-paina izan zengurean. Zoritzarrez, geroago eta ezagunagoa da gaixotasun hori; dena dela, oraindik ere bada esklerosi anizkoitzaren inguruaren ezjakintasuna. Zalantza horietako batzuk argitu ditu Juan Antonio Untzurruntzaga bergararrak, esklerosi anizkoitzaren Gipuzkoako ADEMGI elkarteko kideak.

Labur-labur, gogorarazi zer den esklerosi anizkoitza.

Da gaixotasun bat nerbioena. Ez da hezurrena, jende askok pensatzen duen moduan. Eta da endekapenezko gaixotasuna (degeneratiboa). Sintometako batzuk honako hauek dira: ez duzu ikusten ondo, urduritasuna, ahultasuna eta mugikortasuneara ere igartzen da. Ez da hilkorra, baina gurpil-aulkian geratzea ekar lezake, nahiz eta hori gertaera ere ez den derrigorrezkoa.

Zuri noiz detektatu zizuten?

Oraintxe, uztailean, lau urte beteko dira. Lehenengo, musuan sentiberatasuna galdu nuen. Eta egon nintzen hilabete batzuk pensatzen zela hotzaren ondorio bat. Eta laga egin nuen. Baina denborra pasatu zen eta medikuarengana joan nintzen, neurologoaren gana. Han esan zidaten izan zitekeela esklerosia, baina beste gauza batzuk ere bai. Ez zidaten ez mediamenturik eta ez beste ezer eman, eta poliki-poliki pasatu egin zen. Baina handik urte erdira, otsail inguruan gauza bera gertatu zitzaidan, baina ezkerreko hankaren. Berriaz joan nintzen medikuarengana eta orduan, erresonantzia eta froga mordoa egin zizkidaten eta orduantxe esan zidaten baietz, esklerosi anizkoitza zela. Oraingoz, aurpegikoa joan da eta ez da geratu ezer, baina hanketan, bai, ezkerrean indar txikiagoa daukat.

Zein erreakzio izan zenuen eta zein gomendio emango zenioke gauza bera gertatzen zaio pertsona bat?

Nire kasua izan zen pixka bat kuriosoa. Nik ez neki zer zen



Juan Antonio Untzurruntzaga bergararrari orain dela lau urte diagnostikatu zioten esklerosi anizkoitza.

JOSEBA ANTIA

"Niretako onena izan zen ADEMGIra joatea (esklerosi anizkoitzaren Gipuzkoako elkarreta)"

"Medikuek diote zenbat eta nagusiagoa izan, erreakzioa orduan eta motelagoa dela"

esklerosi anizkoitza. Justu egun hartako egunkariak zekarren gaixotasun haren gaineko albisteak eta hura irakurri nuen; gero Interneten ibili nintzen eta gero liburuetan.

Besteak zer esan? Kasuaren arabera. Esklerosi anizkoitzaren kasu asko dago, broteak izaten dira. Nirea *flojona* izan zen, eta, gainera, urte askorekin. Mediakuek diote zenbat eta nagusiagoa izan, erreakzioa orduan eta motelagoa dela. Zorte hori daukat.

Bai, esango nieke optimista izan beharra dagoela. Optimista izan ezean *'jausi'* egiten zara. Niri hori gertatu zitzaidan joan den urtean.

Niri, adibidez, hasieratik esan zidaten baja hartzeko, eta nik lanean jarraitu nahi nuen, ahal dudan bitartean, minik ez badaukat eta ni bakarrik konpon banaiteke.

Hala, lana aldatu egin zidaten, lasaiagoa ipini, eta ondo. Baina egunetik egunera indar txikiagoa nuen eta azkenean depresioa izan nuen eta baja hartu nuen. Bederatzi-hamar hilabetez egon nintzen, baina orain berriro hasi naiz lanean.

Dena den, badago non eskuratu laguntza, ezta?

Bada Donostian ADEMGI elkartea. Askotan laguntzen du. Dade psikologoa, fisioterapeutak, logopedak... Adibidez, berba egiteko, batzuetan trabatu egiten naiz, urduri ipintzen naiz... Eta han ematen dute laguntasun guz-

tia. Nik esango nioke jendeari hara joateko. Oso ondo funtzionatzen du, jende gaztea da eta oso jatorra. Niretako onena izan zen hara joatea. Astero-astero joaten naiz orain, eguztenetan, errehabilitazioa egitera eta psikologoarekin egotera.

Gaixotasun hau gero eta gehiago zabaltzen dabilela diote...

Gertatzen dena da jende asko orain dabilela jakiten zer den. ADEMGI ikusten dugu baxkide gehiago egiten dabilzala, eta gehiago gerturatzenten dira. Lehen, asko etxean geratzen ziren.

Zortzi orduan behin esklerosi anizkoitzaren kasu bat diagnostikatzen dute

Esklerosi anizkoitza gaitz neurologikoa da, eta, zirkulazio istripuen atzetik, bigarren ezintasun kausa da. Hain justu ere, gazte helduen artean gaixotasun neurologikoetatik gehien gertatzen dena da. Ez da haren jatorria ezagutzen eta ez da hilkorra eta ezta kutsakorra ere, baina sendaezina da eta ezintasuna eragiten du. Emakumezkoen gizonezkoen baino gehiago eragiten die.

Euskal Herrian 2.000 pertsona baino gehiagok dute gaixotasun hori eta Espanian, berrioz, 40.000k. Zortzi orduan behin diagnostikatzen da esklerosi anizkoitzaren kasu bat Espanian.

Sintoma ohikoak honakoak dira: arazo sentsitiboak, orekarenak eta mintzairarenak; ikusmenaren eta gernu sistemaren alterazioak, zorabioa eta nekeak; gorputz-adarren ahulezia eta kasu larrienetan, paralisia.

zerbitzuak**GUARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

Zapata, 14	Irizar	Erguín 15	943 79 12 39
Domeka, 15	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Astelehen, 16	Español	Araba etorbidea 14	943 79 18 65
Martitzena, 17	Etxeberria	Zarugalde 42-44	943 77 16 30
Eguaztena, 18	Azkoaga	Ferreries 1	943 79 15 15
Eguena, 19	Corcueria	Maisu Aranbarri 1	943 79 22 26
Egubakoitza, 20	Español	Araba etorbidea 14	943 79 18 65

BERGARA

Zapata, 14	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Domeka, 15	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Astelehen, 16	Urritikoetxea	Oixirondo 4	943 76 11 74
Martitzena, 17	Estella	Matxategi 5	943 76 19 63
Eguaztena, 18	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Eguena, 19	Urritikoetxea	Oixirondo 4	943 76 11 74
Egubakoitza, 20	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87

ONATI

Zapata, 14	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Domeka, 15	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Astelehen, 16	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Astelehen, 17	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Eguaztena, 18	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguena, 19	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Egubakoitza, 20	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22

ARETXABAleta

Zapata, 14	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Domeka, 15	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Astelehen, 16	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Martitzena, 17	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Eguaztena, 18	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Eguena, 19	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Egubakoitza, 20	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43

TELEFONO JAKINGARRIAK**((112))
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larraldia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorriá (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramai.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 03 54 30
Udalitztingoak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

GARRAOAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaio.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 77 91 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Oñati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegia alternatiboaik	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Oñati.....	943 78 36 67
Kirodegiaik	
Aramaio.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Oñati.....	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola.....	943 76 60 65
Aramaio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Aramaio.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

URBANOAK**ARRASATE**

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)	
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibar, Ospitalea, Biterrí, Legarre, Muskola eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (2 Linea)	
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.	
IBILBIDEA: Eroski, Bengoa, S. Teresa, C. Obregón, Oberenreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguín A eta Gorostiza.	

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)

08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenreka, C. Obregón, Galizia, Bengoa eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (1 Linea)	
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05, 21:05.	
IBILBIDEA: Eroski, Muskola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguín A eta Gorostiza.	

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)

08:05, 09:05, 10:05, 11:0

kale inuesta

Nola ikusi dituzu aurtengo jaiak? Gustukoak izan dituzu?



Susana Crespo
Langilea
Elgeta



Santi Gonzalez
Langilea
Elgeta



Jose Ramon Arantzabal
Erretiratua
Elgeta



Eider Ormaetxea
Ikaslea
Elgeta



Agustin Peñalver
Erretiratua
Elgeta

Nahiko txepelak izan dira. Iazkoak hobeak izan ziren. Umeendako puzgarri gutxiago egon dira, adibidez. Txikienak, gainera, ezin izan dira ibili. Nagusi eta txikiendako bereiztu behar dira horiek.

Taberna batean lan egiten dut, eta egunean zehar jendea ibili da. Gauean, hala ere, beste urte batzuetan baino jende gutxiago izan dela esan didate. Ohiturak aldatzen ari dira eta kanpora joatea nahiko dugu.

Gustura ibili naiz. Dantza egiten jende mordoa ibili zen, aspaldian ez da horrenbeste egon. Barikuan eta zapatuaren ederto pasa nuen, giro ederra zegoen. Domekan, berriz, apur bat jaitsi zen.

Oso ondo egon dira. Gazzetxeko kontzertuan gusturna egon nintzen, giro bikaina zegoen han. Paella dastatzean ere parte hartu nuen. Ez dut alda-keta nabarmenik nabari-tu beste urtekin.

Mugimendu txikiagoa egon da aurren. Faltan igarri dut sardina jana, jaien bukaerarekin batera egi-ten dena. Urteak eman ditut antolatzen. Aurren txistorra eta hirugiharra banatu dute.

txaloak eta txistuak



GOIENKARIA

Gesalibarko seinalea txarto jarrita dago



Gesalibar auzoko seinalea leku desegokian jarrita dagoela eta hango bizilagunei eragiten diela salatu du irakurle batek. Aterik ate zerbait banatzenean, adibidez, seinaleetik aurre-rago dauden etxeetara ez dela iristen aipatu du. Seinalea toki egokian jartzea eskatu du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlitzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

22

Gaur, egubakoitza, bertso-lari eta bertsozaleen arteko futbol partidua jokatuko da Antzuolan, 18:30etik aurrera. 22 alditan jokatu da partidu hori herriko jaiak direla-eta. Aurten ere horrelaxe izango da, baina, antolatzaleek azaldu dutenez, egiten den azkena izango da.

Lan handia egin dute Anelkarrekoek. Arreoa batu eta antolatu, antzinako ezkontzaren antzezpenean parte hartzeko herritarra aurkitu, jantzi eta antolatu, antzezpena bera irudikatu... eta guzti hau egiteko dokumentazio lan ikaragarria egin dute.

Arreoa ikusteko aukera izan dugu. Orain ezkontza bera ikusiko dugu. Ausarte-nek, gainera, parte hartzeko aukera izango dute.

5 galdera...

Ainara Gomez

Euskalteleko arduraduna
Arrasate

1. Poltsikoko telefonoaren-kin lotuta hainbat bel-dur daude. Bateriari dagokionez, joan zen astean txinatar bat hil zela jakin dugu, hura lehertuta...

Jendeak ez du iztutu behar. Kontuan hartu behar da pertsona horrek eguzkitan eduki zuela den-bora luzez telefonoa. Kontu apur bat eduki behar dugu eta berotan izatea ekidin, bateria eta pantaila izorratzen direlako.

2. Fundamentuzkoa al da hainbat gizonek praketa-ko poltsikoetan izateko beldurra, gizontasun arazoak eragin ditzakeelako?

Askotan entzun dut hori. Txarra izan daitekeela pentsatzen dut. Lanean eskuko telefonoekin ibiltzen naiz egunero gora eta behera eta askotan "elektrizitatea" ematen dut. Hori baino ez. Ez dut uste horrenbesterako izango denik. Nik, behintzat, ez diot beldurrik.

3. Uhinek buruan gaitzen bat eragin dezaketela ere esaten da...

Gauza bera pentsatzen dut horren inguruan ere. Poltsikoko telefonoek horrelakorik eragin dutenik ez da entzun orain arte. Entzuten denean, horretaz mintzatu ahal izango gara.

4. Esaten da egunero hau-ren negarra entzuten duten andreei titiak handitzen zaizkiola. Eskuko telefonoan soinu hori sartu du enpresa batek. Norbait etorri da hori eskatzen?

Ez, ez da inor etorri. Gainera, ez neukan entzunda hori eta harri-tu egin nau. Hori egia izanez gero, silikona ez litzateke larregi erabili-ko hemendik aurrera!

5. Uretan bustiz gero, izoz-kailuan eta arrozean sar-tozea eraginkorra da?

Ez. Ezinezkoa da eraginkorra izatea. Poltsikoko telefonoa bustiz gero, oxidoa barruan geratzen da eta izorratzen amaitzen da. Agian funtzionatzen jarraitzen du hasie-ran, baina, denborak aurrera egin ahala, izorratu egiten da. Teklatua apurtzen da kasu gehienetan.



ZERBITZUAK > MUSAKOLAKO KIROLDEGIAK 30 URTE

Musakolako kiroldegia: 30 urtean kirol topagune

1977ko uztailaren 11n estreinatu zuten kiroldegia eta uztailaren 15ean inauguratu

Sanjuanetan zabaltzeko asmoa zuten, baina ur ihesa izan eta atzeratu egin zuten data

UBANE MADERA > ARRASATE

Uztailaren 11n, 30 urte bete dira Musakolako kiroldegia estreinatu zutela. Berez, eta kiroldegien aurrealdeko monolitoak dioen moduan, urte bereko (1977) ekainaren 24an inauguratu eta zabaltzeko gertu zuten guztia, baina arazoren bat izan zuten hodiekin, ura irten egin zen eta ezin izan zuten ordurako kiroldegia zabaldu. Hala du gogoan sasoi hartan zinegotzi zen Bixente Azkarate *Zelaitxo-k*.

Hark kontatu du institutuaren harira egin zutela kiroldegia: "Udalak institutua egin zuen. Baino sasoi hartan, derrigorrezko baldintza zen institutuek izan behar zituztela kirol instalazioak. Hortik eta herriaren eskerak kontuan hartuta eterri zen Musakolako kiroldegia".

50 MILIOI PEZETA PASATXO

Hala, 1975. urte inguru eta kiroldegiaren proiektua esku artean zutela, lursail bila joan ziren udal ordezkarriak institutuaren aurrealdera, ondoko argazkiak erakusten duen moduan. Bisiarien artean izan ziren Santiago San Martin diputatu nagusia, Pedro Bazterretxea alkatea (1975era arte; kiroldegia eraiki zutenean, Jose Antonio Altuna *Txatillo* zen alkate) eta Jose Mari Agirreurreta, Bixente Azkarate, Guillermo Azpiazu eta Tomas Atxa

zinegotziak. "Madrildar batzuek ziren terrenoak". Hantxe eraiki zuten kiroldegia. "50 milioi pezeta baino gehiago kosta zen, 54 bat milioi-edo. Eta den-dena ordaindu genuen Diputazioak eta Udalak", dio Azkaratek.

Horren harira, Jose Luis Elex-puruk, kiroldegia zabaldu eta gutxira sorosle moduan lanean hasi zenak -oraindik ere badihardu-, Guillermo Azpiazu egindako

lana nabarmendu gura du: "Hura izan zen promotorea. Madrilera 27 bidaia egin zituen, Marcelino Ore-jarekin batzartzen; Kanpo Arazoetarako ministroa 1976ra arte eta senataria, 1979ra arte".

UDALBATZAKOAK LEHEN BAZKIDEAK

Beraz, uztailaren 11n zabaldu zuten kiroldegia. Inaugurazioa, berriz, 15ean egin zuten. Lehenengo bazkideak orduko udalbatza osatzen

zuten zinegotziak eta alkatea izan ziren. Langileei dagokienez, berriz, lau hasi ziren lanean, eta haietako bik, gainera, oraindik ere lanean dihardute jendeari harrera egiten: Ivonne Azkunagak eta Miren Muxikak. Hain zuzen, Azkunagak gogoan du inaugurazio egunean zela eterri zen, besteak beste, Gipuzkoako gobernadorea eta janaria ekarri zutela Durangoko Etxebarri jatetxetik.

URTEKO ABONAMENDUA: 750 PTA

Hasierako datuekin jarraituz, aurreneko prezioak ere badira aipagarriak: 750 pezeta balio zuen 14 urtetik beherako abonamendua; 14-17 urte artekoenak 1.250; eta 18 urtetik gorakoenk 2.275. Abonamendu familiarrak ere baziren: 18 urte baino gutxiago-ko seme-alaba bat zutenek 3.375 pezeta ordaintzen zuten, adibidez.

Dena den, abonamendu barik sartzea ere bazea: neguan, 14 urtetik beherakoek ordaindu behar zuten 35 pezeta bainuko eta 14 urtetik gorakoek, 60. Udan, berriz, prezioak garestiagoak ziren: 14 urtetik beherakoendako 50 pezeta eta nagusiagoendako 80 pezeta.

Hala ere, kiroldegia zabaldu zeneko urte hartan, denboraldi erdia geratzen zela-eta, abonamendu erdiak ordaindu zituzten.

TABERNA ETA JANGELA

Ivonne Azkunagak bestelako datu batzuk ere gogoan ditu: "Sarrerako atea eskuz zabalten zen, eta aurre-aurrean zegoen harrera egiteko mahai. Horrez gainera, kiroldegia zabaldu zenean, taberna ere bazuen, jangela eta guzti. Ezkontzaren bat zein beste ere ospatu izan da".

Igerilekuari dagokionez, jakina, hark zuen arrakasta handien. "Bergarakoa zabalik zegoen ordu-



LURSAILAK Udal eta Diputazioko ordezkarriak Musakolako lursailak ikusten, kiroldegiko planoak esku artean dituztela. BIXENTE AZKARATE

(19. orrialdean jarraitzen du)

AGR
Leihoa, Atea, Zoruak, Armairuak
Garcia Ripa

ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 beheha (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoa eta itxiek

Egur aroztegia
Leihoa
Atea
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztiak zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkia

BASATI TABERNA

943 711768

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

(18. orrialdetik dator)

rako, baina Aretxabaletan eta Eskoriatzan ez zen ezer. Eta Arrasaten zegoen bakarra zen Zerrajerakoa, gizonezkoendako bakarrik; beraz, hau zabaldutu zutenean... Gainera, orduan ez zeuden desberdin-duta berdegunea eta igerilekua, eta guztia egoten zen jendez gainezka. Behin edo behin itxi egin behar izan genuen sarrera, ez zelako beste inor kabitzen".

HERRITAREN ESTIMAZIOA

Baina igerilekua ez zen arrakasta zuen zerbitzu bakarra. Bi urte geroagoko datuek era-kusten dute hori. Hain zuzen ere, 1979ko memorian jasota dagoenez, "kirol instalazioek herritarren estimazioa dute, instalazioen saturazioak era-kusten duen moduan eta bestelako herrietatik izandako bisisitengandik jasotako etengabekeko zorion agurrek erakus-ten duten moduan". Akta horrek dioenaren arabera, spinningik eta halako kirol modernorik ez zegoen orduan Musakolako kiroldegiak, baina bai bestelako zerbitzu ugari: 1.200 bat lagun ibili zen urte hartan igerian ikasten, Jose Luis Elexpuru begiralearekin; gimnasia eskolak ere ematen zituzten. "Geroago eta parte-hartzaile gehiago dabil", diote urte hartako aktek, eta baita ere neskak hasita zeudela gimnasiako eskolak hartzen: "Nahiz eta denbora gutxi dela hasita ibili, baditugu ikasle batzuk orain arte bakarrik maila handiko lehiaketetan ikusten genituen ariketak egi-ten dituztenak". Horrekin batera, karate, boxeo, eskola kirola, futbol, eskubaloi, tenis eta areto futbol txapelketak jokatzen zituzten. Eta sauna zerbitzu ere bazeen. Kontu modernoa, urte haietarako.

MOJATEGIKO INSTALAZIOAK

30 urte igaro eta gero, hasierako instalazio haiei Mojategiko berriak gehitu dizkiete orain: "Lanak bukatzean daude", jakinarazi du Obrak Saileko teknikari Izaro Agirrek; "atletismoko pista bukatzea falta zen. Orain, homologazioak besterik ez dira falta, eta gero, jarduera baimena izan bezain laster erabiltzeko moduan izango da", esan du.

OBRAK > ZERKAOSTETAKO OBRAK

Irailaren 30erako bukatu beharko dituzte Zerkaosteta kalean egiten dabiltsan obrak

Aurreikuspena zen San Juanetarako bukatzea, baina enpresak abisatu zuen atzeratuta zebilela

Oraindik lan handia falta zaie Iturbide egoitzatik
Biterirainoko zatian

UBANE MADERA > ARRASATE

Oraingo eguztenean jakinarazi dute Zerkaostetako lanak bukatzeko data: irailaren 30a. Egun horretarako azpiegitura berri guztia sartuta eta kalea zolatuta utzi beharko dute. Izan ere, horixe dabiltsa egiten: argindar, ur, telebista eta bestelako zerbitzuekin lotutako azpiegitura zaharrak kendu eta berriak ipintzen.

Horrekin batera, Iturbide egoitzatik Zerkaostetara igotze-ko dauden eskaileretan eta alda-pan ere egingo dituzte obrak: "Orain dauden eskailerak oso estuak dira, zabalagoak ipiniko



AZPIEGITURAK Argindar, telefono, ur eta bestelako zerbitzuei dagozkien azpiegitura berriak sartzen dabiltsa.

JOSEBA ANTIA

dituzte; eta aldapak, berriz, ez ditu betetzen irisgarritasun arauak; beraz, egokitu egingo dute", azaldu du Obra Saileko arduradun Moises Altuna teknikariak.

Era berean, biribilgune txiki-txo bat dabiltsa egiten Biteri plazatik gertu: "Biztanleen Arreta Zerbitzuaren ondoko garajeeta-

koek noranzkoa alda ahal izateko da hori", azaldu du Obra teknikari Izaro Agirrek.

Izan ere, Zerkaostetako obrak bukatzen dituztenean, kale horrek orain arte izan duenaren kontrako noranzkoa izango du: Biteritik Iturbide egoitzara joan ahal izango da automobilarekin.

LEHEN ZATIA BUKATUTA

Obra osoaren lehenengo zatia bukatuta dago: San Viator eskolaren kanpoko aldetik Kontzezi-norainoko kale zatiari dagozkion obrak. Azpiegiturak berritzearaz gainera, bestelako artean, lur azpiko edukiontiak ipini dituzte egoitzaren ondoan.

AUZOAK > GESALIBAR

Domekan hauteskundeak egingo dituzte Gesalibarren

Hautagai bakarra aurkezu da: Joserra Askasibar, oraingo auzo alkatea

U.M. > ARRASATE

Udal hauteskundeen ostean, auzoetan hauteskundeak egitea egokitzen da. Eta, hain justu, horixe egin behar dute Gesalibar auzoan, etzi, domeka.

Hitzordua egin dute Gentil Olan, auzoko batzordearen lokalean, 11:30etik 13:30ak arte.

Daude deitura auzoko 115 bizilagun, guztia ere 18 urtetik gorakoak, jakina.

Hautagaiei dagokienez, bakarra aurkezu da: azken lau urteotan alkate izan den Jose-rra Askasibar.

Hark adierazi du domekan bertan jakinaraziko dituztela emaitzak: "Momentuan bertan kontatuko ditugu botoak; 14:30erako-edo izango dugu emaitza".

Edozelan ere, legeak aginduta, auzoaren aukeraketa osoko bilkuraren berretsi beharko du gero udalbatzak.




ARIZMENDI

Arizmendi: 20 urte udalekuak egiten

Arizmendi ikastolakoak buru-belarri dabiltsa udalekuetan. Aurten 5-14 urte bitarteko 320 neska-mutiko dabiltsa, 55 begiralek gidatuta, aisiaidiaz gozatzen. Hori bai, bestelako helburuak ahaztu barik: "Euskaran erabilera indartu, naturarekiko harremanak bideratu eta lagunarteko giroa sendotu".

Garagardo ona, giro hobea



T a b e r n a
Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

BERGARA
AUTOAK

- AUTO BERRIEN ETA AUKERAKOEN IMPORTAZIOA:
- TURISMOAK, FURGONETAK ETA MONOBOLUMENAK
- GARANTIA IDATZIZ
- FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- PREVER PLANA • ELBARRITASUNAGATIK DESKONTUAK

Amillaga, 10 • BERGARA • ☎ 943 76 04 58



Autoen eskaerak
aukeran:
jlegana@terra.es

JAIAK > SANTA MARINAKO JAIAK

Adin guztieta rako ekitaldiak Santa Marinako jaietan

Egubakoitz gaelean rock kontzertua egingo dute ibarreko Scam eta 23F taldeek

Zapatu eta domeka gaelean su artifizialak izango dira Makatzenatik

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Arrasateko Santa Marina auzoan jende asko bizi da, eta hango auzotarrek urte asko daramate jaiak antolatzen. Hala, auzoa *Distrito 33* moduan ezagutzen zenetik gaur egunera arte auzoko jaiak ez dira galdu, eta bizi-bizirik jarraitzen dute. Hain zuzen ere, adin guztieta rako auzotarren dako ekitaldiak antolatu dituzte.

Gaur, egubakoitz, 18:00etan hasiko dituzte jaiak. Horren ostean umeendako jokoak, bomba japoniarak eta beste izango dira Agerre plazan. Eta gerotxoago, 20:00etan buruhandiak irtengo dira. Gauerako, rock taldeen kontzertua antolatu dute. Scam talde aretxabaletarrak punk-pop doinuak eskainiko ditu; eta 23F arrasatearrak, aldiz, punka. Herriko gazteek gustura asko hartuko dute emanaldia.



ERRETIRATUEN EGUNA Zapatuan, urtero moduan, auzoko nagusienei omenaldia egingo diente Santa Marinan.

GOIENKARIA

Bihar, zapatua, berriz, Gorriti eta haren animaliek ikuskizuna egingo dute 11:00etan.

ZAPATUA, ERRETIRATUEN EGUNA
Eguerdian, urtero moduan, auzoko erretiratuentako meza esango dute Mesedeetako Amaren elizan; eta jarraian bazkaria izango dute Mesedeetako Amaren komentuan bertan.

Arratsaldean tute eta mus txapelketak jokatuko dituzte; eta umeek bits-jaia eta buruhandiak izango dituzte aukeran. Iluntzean herri txikiteoa eta Akelarre txarangarekin kalejira izango dira. Eta zapatua bukatzeko, Cristal taldearekin dantzaldia eta su artifizialak, hain zuzen ere. Azken horiek 00:30ean botako dituzte.

Domeka ere ekitaldiz beteta egongo da. Goizean krosa izango da eta umeen gunea ere jarriko dute. Eta eguerdian, paella eta gazpatxo leihaketak egingo dituzte. Arratsaldean, tute eta mus txapelketen finalak jokatuko dituzte; bonba japoniarak jaurtiko dituzte; eta iluntzean dantzaldia eta su artifizialak izango dira.

MUSIKA > TALDE BERRIA

High School Gunners, musikari ezagunen ildo berria

Isarevolution taldeko errautsetatik sortu dute rock-and-roll indartsua egiten duen talde berria

I.B. > ARRASATE
Rock-and-roll talde bat sortu dute Arrasaten: High School Gunners. Talde berria bada ere, atzean dauden musikariak ez dira ezzagunak. Hain zuzen ere, esan dezakegu proiektu hori Isarevolution taldearen jarraipena dela.

Iazko urrian Isarevolution eten ostean, Iñigo baxu jotzaileak eta Yago gitarra jotzaileak entseatzen jarraitu zuten, Ines abeslaria eta Txotxe bateria jotzailea barik. Hala, Txarli abeslaria eta Julio bateria jotzailea

batu zitzaizkien. Heriotza eta Ekon taldeetan ibilia da Iñigo; Amatxon eta Ekon taldeetan, Yago; Arkada Sozial taldean, Julio; eta Urretxuko Spezial Guest taldean Txarli.

INDAR HANDIKO ROCK-AND-ROLLA
High School Gunners taldeak indar handiko rock-and-rolla egiten du, ingelesez abestuta. Hala, euren kantuez gain, Hellacopters, The Clash, Neurotic Outsiders eta beste talde batzuen abestiak jotzen dituzte.



HIRU KONTZERTU Orain arte hiru kontzertu egin dituzte. Argazkian, joan den egubakoitzean Oñatin egindakoa.

SDEAZ

GASTRONOMIA

Domekan Gazpatxo Eguna egingo dute

Domeka eguerdian eta arratsaldean gazpatxoa doan banatuko dute

I.B. > ARRASATE
Azkeneko urteotan moduan, Corazon de Encina kultura elkarreak Gazpatxo Eguna antolatu du domekarako.

Corazon de Encina Extremadurako kultura zabaltzeko elkarreka da, eta Arrasateko Araba etorbideko 3. zenbakian dauka egoitza.

EXTREMADURAKO ERARA
Gazpatxoa oso ezaguna da Andaluzia aldean, baina Corazon de Encina elkartekoek jakinarazi digute Extremadura aldean ere oso ezaguna dela: "Gure ustetan extremadurarra andaluziarra baino gozoagoa da", jakinarazi digute, irribarretsu.

Hala, gura duten arrasatear guztiekin dasta dezaten, 40 bat litro gazpatxo prestatuko dute eta doan zerbitzatzuko diente domekan elkartera geruratzen diren guztiei.

ZAPATUAN, SAIHESKI-JANA
Bestalde, bihar, zapatua, saiheski-jana egingo dute elkarteko bazkideek eta gaintzeko lagunek opor aurretitik agurtzeko.



ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.

Etxetresnetan sekulako eskaintzak!

Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



BERMEO
2
URTE

1.850
X
598
X
600 mm

A Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA COMBI 6 FAC-495
420 € 70.140 pta



BERMEO
2
URTE

1.700
X
600
X
600 mm

A Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA 4FE-01E41
320 € 53.440 pta



BERMEO
2
URTE

A Sailkapen energetikoa
ONTZI-GARBIGAILUA LJA-0250
KARGA ERDIA
305 € 50.935 pta



BERMEO
2
URTE

1.000 b/min
5 kgr.

A Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA LA-110
305 € 50.935 pta



LABEA
BITROZERAMIKA
STA1410

LABEA eta BITROZERAMIKA
INSTALATUTA
335 € 55.945 pta



BERMEO
2
URTE

AIRE EGOKITU PORTATILA
FAP-2 CR HOTZA
2000 KCL/orduko
325 € 54.275 pta



BERMEO
2
URTE

AIRE EGOKITU PORTATILA
ADR 66 HOTZA
2000 KCL/orduko
290 € 48.430 pta



"EVA" MAHAI
110x70 zm

365 € 60.731 pta



BEROTU SUKALDEA C-85 NC **1925 €** 321.475 pta

Sukalde itxia, berotzen ez duena, igeltserotza lanik barik. Kutxa eta gaineko sukalde bikoitzarekin.

Altuera: 85 zm.
Luzera: 85 zm.
Sakonera: 60 zm.

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batzaz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.

A+ 70%
A 45%
B 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperativistendako prezio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

Goza ezazu
aparteKo
udaz



Nokia 5200
0 €



Sony-Ericsson K610i
19 €



LG Chocolate
0 €

baita **Udako Unika Tarifaz** ere

dei guziak, edozein ordutan eta edozein operadoretara

ROUTER
COMUNICACIONES, S.L

Errebal, 15
Eibar

943 700 369

Biteri Plaza, 4
Arrasate

943 71 27 81

euskaltel

-en Banatzaile Ofiziala

* Unika: Dejaren ezartze-kostua, 15 zent, estatuko finko eta mugikorretarako deletan. Hilean 1.000 minutuko muga, minutuko o zeintimoan. Kontrataturako Unikaren arabera, hileko gutxieneko konpromisoa ezarriko da, eta, mugaz horretara iristen ez badala, kobraut egindako 2007/06/21etik 2007/09/25era Unikaren kontrataturako alda berrirentzat balio du sustapenak. Sustapenaren amailera-eguna, 2007ko irailak 30a. Euskaltel Hautaketa/Leihoko bezeroentzako PSPa eta sustapena, betiere ondoren ordaintzeko linea mugikor berri bat kontratatzeko badute, hilean gutxienean 6 € (LG Chocolate-ren kasuan) edo 15 € (beste bi modeloaren kasuan) konsumitzeko konpromisoarekin. 18 hilabete irauteko konpromisoa. Muga: 50 unitate ale bakolitzeta. Jakinarrazpenetan diren prezioei dagozkien zeharkako zergak aplikatu behar zaizkie. Penintsula eta Balear Uharteak: BEZa (% 16). Kanariak: IGI/Celik salbuetsita. Ceuta: IPSI (% 3). Melilla: IPSI (% 4).

Aitor Txabarri > Anaitasuna Helvetia taldeko atezaina

"Jokalari asko Asobaletik jaitsitakoak dira, eta hori igarri egiten da"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Aitor Txabarrik (Arrasate, 1981) Iruñeko Anaitasuna Helvetia eskubaloi taldeko atea defendatzen egin ditu azken hiru urteak, eta zaletasun hori Arkitekturako ikasketekin tartekatu du. Ohorezko maila Asobal kategoria baino koska bat behereago dago, eta, gorriak eta bi ikusi baditzute ere, mailari eutsi diote.

Urte gogorra izan da.

Bai, nahiko gogorra. Ohorezko mailara igota, taldearen helburua izan da kategoriari eustea, eta azkeneko jardunaldiak estres handikoak izan dira. Jaitsiera postuak oso gertu izan ditugu, eta gure atzetik zetorren taldeak azken unera arte estutu gaitu. Baino lortu egin dugu helburua.

Zein izan da denboraldiko une gozoenetako bat?

Kanarietan jokatu genuen norgiehiagoka oso erabakigarria izan zen, eta partidu hura oso-oso-

rik jokatu nuen. Irabazi egin genuen partidu hura, eta kontrarioak kategoria galdu du. Hala, partidua irabazteko nik ere neurri ekarpena egin nuen, eta oso gustura amaitu nuen.

Gainera, taldearen errekonozimendu berezia izan duzu.

Bai, eta ez nuen horrelakorik espero. Klubean urte mordoa egin duten hainbat jokalarik taldea utziko dute, eta pentsatzen

"Ohorezko mailan Asobalen egon diren jokalari askok jokatzen dute, eta igarri egiten da"

"Kanarietan jokatu nuen partidua izan zen urteko politenetakoak; garaipen garrantzitsua izan zen"


nuen jokalari horietako bat sartuko zutela. Baino izan dudan progresioagatik saritu naute, eta sorpresa polita izan da.

Orain dela lau urte territorial mailan zeunden, eta ohorezko mailara iritsi zara. Progresio horretan, Asobal da hurrengo pausoia?

Hori asko esatea da. Alemania ligarekin batera Asobal da mundu mailako liga onena, eta jokalari onenak etortzen dira hona. Hori horrela, oso zaila da kategoria horretara salto egitea.

Zelako kategoria da ohorezko maila?

Igarri egiten da kategoria semi-profesionala dela, eta Asobal ligan jokatu duten jokalari asko daudela. Beheragoko kategorietan, beti egoten da gainontzekoengandik nabarmenzen diren bizpahiru jokalari, baina ohorezko mailan guztiak jokatzen



Aitor Etxabarri, oporraldiaz gozatzen; abuztuan itzuliko dira lanera.

x.u.

dute ondo. Bestalde, nahiz eta jokalariak ez diren Asobalekoak bezain handi eta pisutsuak, hemen ere azkar eta indartsu jokatzen da.

Arkitektura ikasita, zelan tartekaten dira ikasketak eta goi mailako eskubaloia?

Egia esateko, nahiko nekagarría da, bai. Momentuz, gu arratsaldero entrenatzen gara, baina beste talde batzuk goiz eta arratsalde entrenatzen dira. Hala, goizak ikasketei eskaini dizkiet, eta arratsaldeak entrenamenduei. Txarren da ikasketa horiek eskolatik kanpora ere orduak eskatzen dituztela, eta, nire kasuan, lo egiteko ordetatik hartzen nuen denbora.

Arrasaten, territorial mailan utzi zenuen taldea, eta dagoneko Euskadiko Txapelketan dago. Gainera, besteak beste, Bergarako ikastetxeak jokatuko dute aurten...

Bai; Pitxi Herrero entrenatzaile geneukala izan zen Arrasateko nire azken urtea, eta orduan pena handia hartu genuen, gutxigatik ez ginen-eta Euskadiko Txapelketara igo. Dena dela, ikustekoia izan da aurtengo urtea, kategoria berrira igota, talde indartsuei ere aurre egiteko gauza izan dira-eta.

Horrek erakusten du territorial mailan talde sendoa izanda, Euskadiko Txapelketan ez dagoela horrenbesteko aldea. Igotzea izaten da gaitzena.

Hemen, baina, gorago egiteko babesleak falta dira.

Bai, beste leku batzuekin alderatuta, hemengo enpresak kirol taldeetan gutxiago implikatzen direla esango nuke. Baino arazo hori ez da hemen bakarrik gertatzen, guk ere finantzaketa lortzeko zailtasunak izaten ditugu-eta; dena dela, egia da gure aurrekontua nahiko handia izaten dela. Bestela, ikusi Bidasoa taldeak zelan amaitu duen, zorrez beteta.



AUKEA

Bigarren hamabostaldian ere, tenisa eta patinajea nagusi

Eguaztenean amaitu zen Uda Kanpainako bigarren hamabostaldian izena emateko epea, eta AUKEAtik esan digute oraingoan ere patinajea eta tenisa izan direla arrakasta handien izan duten kirol ekintzak.

Ezin ditugu alde batera utzi aerobik, spinning eta batuka eskaintzak, baina horiek urte osoan izaten dute arrakasta.



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebedun hizkiak

Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealeku 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

nire bidaia hora

Arantxa Landaluze

Yemenen izan zen > 2006ko abuztuan

"Mundu islamiarra ezagutzeko aukera izan dut Yemenen, batzuetan beldurra sentitu badut ere"

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Yemen ezagutzeko aukera izan zuen iaz Arantxa Landaluzek. Bisitatuako tokien artean, Saba Erreginaren tenplua dago. Alegia, joan zen astean atentatua gertatu zen lekua. Gustura ibili bazen ere, momentu zehatz batzuetan beldurra sentitu zuela jakinarazi du arrasatearrak.

Hamabost egun eman zituen Yemenen 52 urteko arrasatearrak, bikotekidearekin batera. Herri "ezezagunak" ezagutzea gustuko duela eta bidaia agentzian Yemenera joatea eskaini ziotenean animatu egin zela azaldu du. Gainera, "hiru aste baino ez ziren gertaten bidaia hasteko, eta, beraz, ez zen aukera handirik geratzen".

"Banekien harrituko ninduela, Interneten onena baino ez dizute erakusten-eta", jarraitu du esa-



Irudian, Arantxa Landaluze.

ten. Ez zebilen oso oker Sanaá hiri-burura iristean "benetako errealtitatea" ezagutu zuen-eta.

Harritura geratu zen erlilioak duen indarrarekin, baita emakumeak jasaten duen zapalkuntza-rekin ere. Hamar urtetik aurre, neskato bat, adibidez, ezin da

etxetik bakarrik irten eta andre nagusiegi begiak baino ez zaizkie ikusten. Gorputza tunika beltz batekin estaltzen dute. Aurpegia, berriz, *niqab* delakoarekin.

KAT BELAR MINGOTSA

Yemengo landare tipikoa probatzeko aukera izan zuen Landaluzek: kat izeneko belar mingotsa. Hangoak egun osoz dabilta hori mastekatzen. "Herriak kat-arekin inguratua daude eta Yemendik kanpora ezin da saldu, han konsumitzen da guztia", esan du.

Hamabost egun horietan zirkuitu bat egin zuen arrasatearrak, 3.000 kilometro ingurukoa. Taldea hamar pertsonaz osaturik zegoen eta hiru autotan mugitzen ziren, hango gidari eta eskoltekin batera. "Han turista bat ezin da mugitu Gobernuaren baime-

nik gabe, ez eta segurtasun neu-rririk gabe", azpimarratu du Landaluzek.

Sanaán egun bat igaro ostean, herrialdean mugitzen hasi ziren. Saba Erreginaren tenplua bisitatu zuen taldeak, atentatua gertatu zen toki bera. Herrialdetik banatuta dauden jauregi ederrak ere ezagutu zituen; besteak beste, harri baten gainean egindako dorrea. Shabam Hadramut hirian, 2.600 metroko altuerara dagoen Shaharan eta hegoaldeko hondarretan ere ibili zen.

Ibilbidean zehar, batzuetan beldurra sentitu zuela dio. Gogorarazi du han edonor dabilela metrailearekin, eta "gu ez gaude ohitura. Gauean tiroak entzuten genituen", esan du. Herri "politik" iruditu zitzaion arren, bidaia ez zukeela errepikatuko aipatu du.

bere ustez



Oihan Zubizarreta

Mihi pozoitsuen kutsadura

Ez da erraza zutabe hone-tan berba gutxi batzuk josten hasita, espazioa galtzeko beldurrez, berba solte batzuekin gauzak azaltzea. Berba solte batzuk, ondoren norberak ordena ditzan. Norbere burua jarri behar genuke aztergai, inguruarena epaitzen hasi aurretik.

Zertaz hitz egin jakin gabe, ezertaz hitz egitera ausartu gabe baina denaz hitz egiteko gai garela sinetsita bizi baikara. Norbere zilborretik inguruari begiratu gabe, norbere zilborrari begi-

"Merkurioak kutsadura eragin dezake, mihi pozoitsuek bezainbestekoak"

ra bizi gara, inguruak ere norberaren zilborrari begiratzen diolakoan.

Komunikabideek mezuak eta irudiak borborka jauntzen dizkigute, azaleko mezuak ergelak eta irenteko errazak. Tripak atera, barrenak odolustu eta burmuinetako isurkinak irentsi. Arinkeriaz eta lotsarik gabe jardun eta jardun, ari eta ari, tira eta tira. Basatiak, bortitzak eta gupidagabeak.

Berbak amaiagabe zerrenda daitezke, baina ikuspegia, dimentsioa eta zentzia falta zaie. Egoerari temperatura har diezaiogun, tertulianoen termometroetan merkurioak gainezka egin aurretik. Jakinak baita merkurioak kutsadura eragin dezakeela, mihi pozoitsuek bezainbestekoak.



Arantxa Landaluze, Saba Erreginaren tenpluan, Jose Luis Corcuera senarrarekin batera. Ezkerraldean dagoen bikotea da.

PUB MAIZEA

OLMO

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

UDALA > AGINTALDI BERRIA

EAE-ANV bederatzi batzorderen kargu egingo da eta Aralar, birena

Atzo, eguna, egin
zuten osoko bilkuran
onartu behar zuten
udal eraketa berria

Udalaren
"akonfesionaltasuna"
ere proposatu zuen
Udal berriak

OIHANA ELORTZA > BERGARA
Agintaldi berriaren Udal eraketa
onartu behar zuten, besteak
beste, atzo, eguna, egin zuten
osoko bilkuran. EAE eta Aralar
alderdiek osatuko dute gobernu
berria, eta bien artean banatu
dituzte karguak. Horrela, 11
batzordeetatik, bederatzi EAEk
hartuko ditu eta Aralarrek, bi.

Hauexek dira EAERen batzor
deak: Ogasuna, Aitor Goiti;
Gobernazioa eta Zerbitzuak eta
Kultura, Gazteria eta Jaiak, Ena
ra Minguezek; Obra eta Hirigintza
eta Hezkuntza, Agurne Barrusok;
Osasuna eta Gizarte gaiak,
Roberto Martinezek; Baseria

eta Auzoak eta Euskara, Maite
Guridi eta Turismoa, Ondare
Artistikoa eta Informatika, Mikel
Elkoroberezibarrek. Eta Aralar
renak: Kirolak, Martin Etxebe
rria eta Ingurumena, Mikel
Etxanizek. Zinegotzi ez den per
sona bat ere joan daiteke batzor
de informatzaileetara.

BILKUREN MAIZTASUNA
Bileren maiztasuna ere atzoko
osoko bilkuran onartu behar
zuten. Proposamena izan da hile
ko azken astelehenetan egitea
ohiko osoko bilkurak eta gober
nu batzordea astelehen guztietan
biltzea, lehen bezala. Gobernu

batzordean alkateak eta beste
bost zinegotzik (Minguez, Goiti,
Guridi, Etxeberria eta Etxaniz)
izango dute botoa, baina udalba
tzako zinegotzi guztiak daude
gonbidatuta parte hartzen.

UDALAREN ORDEZKARIAK

Bestalde, alkateordea eta Udalak
beste erakunde batzuetan izan
go dituen ordezkarien onarpena
ere atzo bozkatu behar zuten.
Horrela, hauexek dira egindako
proposamenak: Debagoineko
Mankomunitatean izango dituen
hiru ordezkariek: Agurne Barrus
o, Enara Minguez eta Iñigo Iñurrat
egi; Mendi Nekazaritzan, Maite
Guridi; Ur Partzuergoan, Agurne
Barruso; Euskaltegiko Fundazio
Publikoan, Maite Guridi eta Mikel
Elkoroberezibar; Suradesan eta Debagoineko
Industrialdeko Administracio
Kontseiluan, Agurne Barruso eta
Roberto Martinez eta Haurresko
lako Batzar Nagusian, Agurne
Barruso. "Erakunde bakoitzera
ko, gaiarekin lotura duten ardu
radunak izendatzen saiatu gara",
argitu du alkateak.

Alkateordeen izendapenak
ere proposatu zituzten atzoko
osoko bilkuran: Minguez, Etxaniz,
Goiti, Guridi eta Etxeberria.

UDALAREN AKONFESIONALTASUNA

Udal eraketaren inguruko pun
tuez gain, Udalaren akonfesional
tasunaren inguruan ere eztabai
datu behar zuten atzo. "Gaur egun
mota askotako erlijioak daude
gizartean, Bergaran ere bai.
Horregatik, proposatu dugu Uda
laren akonfesionaltasuna. Hau
da, antolatzen diren erlijio eki
taldietara Udal ez joatea; ez kor
porazio moduan, behintzat", azal
du du Agurne Barrusok.

Gai zerrendan zituzten beste
puntuatko batzuk dira: hasiera
ko onarpena duen Plan Orokorre
ko planok ikusteko epea urriaren
8a arte luzatzea; Laramendi
industria eremuko Plan Partzia
la behin betiko onartzear; lanpost
tuen zerrendaren eta hainbat lan
postuen balorazioa onartzear eta
2006ko kontu orokorra onartzear.

Hurrengo osoko bilkura
uztailaren 23an, astelehena, egin
go dute.

BATZORDEBURUAK



Agurne Barruso - EAE



Enara Minguez - EAE



Mikel Etxaniz - Aralar



Aitor Goiti - EAE



Maite Guridi - EAE



Martin Etxeberria - Aralar



Mikel Elkoroberezibar - EAE



Roberto Martinez - EAE

SOLDATAK

Liberatutako karguen soldatak

"Soldatik jaisteko hiru irizpide
jarraitu ditu EAEk: liberatuek
Udalean sartu aurretik zuten
soldata erreferentzia moduan
hartzea, aurreko agintaldiko
soldatik jaistea eta, bi liberatu
egon arren, inoiz ez gainditzea
aurrekoak zuen kostua", azaldu du
alkateak. Agintaldi berriako bi
pertsona liberatzea da Udalaren
proposamena: Agurne Barruso eta
Enara Minguez. Alkateak emanda
ko datuen arabera, soldata hauek
proposatu dituzte: Barrusok
35.631,54 euro urtean (2.545,11
euro hilean) eta Minguezek,
20.091,40 euro urtean (1.435,10
euro hilean). Aurreko agintaldiko
liberatuek 62.189,46 euro kobra
tzen zituen urtean, gordinean.
Horrela, agintaldi berriko bi
liberatuek 55.722,94 kobraztuko
lukete, aurrekoak baino gutxiago.
Gizarte Segurantzako gastuak
izango dira: 73.777 euro, bi
lagunena; aurrekoarena, 73.838
euro. Datozen hiru urteetan,
Udaleko langileen igoera bera
izango dute liberatuek.

JAIK ile apaindegia

Asteartetik ostegunera: 09:30 – 12:00 / 15:00 – 18:00
Ostirala: 09:30 – 18:00
Zapatua: 08:30 – 12:00


Ireki berria

Tel.: 943 76 38 95

Bidekurutzeta 42 • Bergara

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotolea
pintura industriala

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295


**JAUJA
KIROLAK**
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

JAIAK

Hiru auzok
jaiak
ospatuko
dituzte

Santa Marinan,
Basalgon eta
Goimendin jaiak,
hila bukatu arte

O.E. > BERGARA
Santa Marinan, Basalgon eta Gomendin auzoko jaiak ospatuko dituzte datozen egunetan. Santa Marinakoak izango dira lehenak; gaur, egubakoitza, bertan hasiko dituzte. Basalgo eta Goimendi auzoetan, berriz, Santiago jaiak ospatuko dituzte, uztailaren 21etik 29ra.

DONEVAK ETA ZEZENTYOAK

PUNTAK ETA ZEZENTXAOK
Santa Marinako jaiak gaur, egubakoitza, eguerdian hasiko dira etxafuegoekin. Iluntzean, *Aupa Etxebeste* filma emango dute Agorrosinen. Zapatuan, erretiratuendako ibilaldia egingo dute goizean, eta arratsaldean, poneyak eta zezentxoak ekarriko dituzte San Martin herri eskolara. Ondoren, mahai futbol eta dardo jaurtiketa egongo da umeendako. Domekan kalejira egongo da eta eguaztenean, hilak 18, Aritzeta abesbatzarekin ospatuko dute Santa Marina eguna. Aste guztian zehar, karta eta bestelako jolas txapelketak jokatuko dituzte *aitonetan* eta herri afaria, disco-festa, bizikleta martxa eta blues gaua ere egingo dituzte.

BERTSOLARIAK ERE BAI

Goimendi eta Basalgo auzoetan bertsolariak egongo dira, beste ekitaldi batzuez gain. Hilaren 21ean, adibidez, Joxe Agirre eta Amets Arzallusekin bertso afaria egingo dute eta hilaren 29an, Joxe Agirre eta Imanol Lazkano arituko dira bertsotan. Pilota parti-duak eta herri kirolak ere antolatu dituzte auzo bietako jaietarako. 29an, Haimar Irigoien harri-jasotzailea etorriko da Goimendira.

ONDAREA > JAUREGI ETXEA ZAHARBERRITZEN

Mudejarrek egindakoa izan daiteke plazako Jauregi etxea

Erromara bidalitako
laginek diote
igeltsuzkoa dela,
mudeiarrenak bezala

Datu hori konfirmatzen
badute, garrantzi
historiko handiagoa
izango du eraikinak

OIHANA ELORTZA > BERGARA
Plazako Jauregi etxea mudejarrek egindakoa izan liteke. Konfirmatzeko dago datu hori, baina eguztenean jasotako txosten batetik dio igeltsuz eginda dagoe-la eraikin horren erliebea, eta igeltsua mudejarrek erabiltzen zuten. Beraz, pentsa daiteke Jaurregi etxearen erliebea mudejarrek egin zutela. Horixe uste dute, behintzat, etxearen fatxada herriztatzen ari diren adituiek

GARRANTZI HISTORIKOA

GARRANTZI HISTORIKOA
Historialariek uste hori baiezatzen badute, garrantzi historiko handia duen gertaera izango da, zaharberritzaileen esanetan. "Pentsatzen genuen igeltsuz eta karez eginda egongo zela erliebe hori, baina Erromako institutu-
ra bidali ditugun laginak diote igeltsuz bakarrik dagoela eginda.
Hori mudejarrek egiten zuten, eta hau ere eurek egin zutela baiezatzen bada, Aragoitik etorrita-
ko mudejarrek egina izan liteke, notizia garrantzitsua izango da.
Bergarako klima ez da Maroko-
koa bezalakoa", esan du Eudald
Guillamet berriztatzaileak, Jau-
regi etxearen zaharberritze lanen
arduradun teknikoak.

EGOERA TXARREAN

EGUREA TXARRAKA
Jauregi etxea XV. mende bukaerakoa edo XVI. hasierakoa da. "Etxea benetan berezia egiten duena da lehenengo solairuan erliebea egotea. XIX. mendean obra garrantzitsuak egin zituzten; hiru



ERLIEBEA Erliebean landareak ikusten dira, baita 10-12 errege bikote eta basurde ebizaren eszena batzuk ere. **APRITXU BARRUSO**

solairu gehiago egin zizkiont, adibidez, baina erliebea mante-
du egin zuten", azaldu du Xabier Aranburu museologoak. Erliebea,
baina, apurtzen hasi zen denbo-
rarekin, paretatik hamar zentime-

troko zirrikitua azaldu da zati batzuetan. Horregatik, zaharberri-tzaile profesionalak kontratatzea pentsatu zuen Udalak, eta Eudalad Guillamet eta Petra koopera-tiba elkartea kontratatu zituen.

Lanen kostuari dagokionez, Banco Guipuzcoanok, Aldundiak eta Udalak jarriko dute dirua. Banketxe horrek 100 urte egingo ditu bi urte barru Bergaran, egun dagoen erakin berean.

Profesionalak diren 12 lagun ari dira Janean aldamioan

1970eko hamarkadan eraberritu zuten azken aldiz Jauregi etxeko erliebea eta goiko aldeko esgrafia-tua. Orduko teknikek, aldiz, mesede txikia egin diote eta oztopo ere bihurtu dira oraingo zaharberritze lanak egiteko. 2005ean larrialdiko lan batzuk egin zituzten eta ekainaren 11n hasi ziren oraingo eraberritzte lanekin. 12 lagun egoten dira aldamioan lanean eta, abuztuan ere egingo dute lan.



Epe barruan dabilta lanak egiten, eta irailerako bukatu nahi dituzte. O.E.

MARGOAK
josean pintore

Dekorazio-pintura eta
industriala

barnealdeak eta
kanpoaldeak

Bergara - Arrasate - Oñati

Tel.: 609 54 89 89
943 53 27 16

josehernandez@euskalnet.net

OGIZUN

koop. elk.

okindegia

CLARINS ESKAITZA

MUSIKA > UDAL BANDAREN 175. URTEURRENA

Bandaren emanaldia domekan

Emanaldiaren ostean 175. urteurreneneko herri bazkaria izango da Udal Pilotaleku bertan

EDU MENDIBIL > BERGARA

Bergarako Udal Musika Bandaren 175. urteurreneneko ospakizunekin jarraituz, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren taldeak emanaldia egingo du etzi, domeka, Udal Pilotaleku, 12:00etan. Santa Marinako jaien egitarauaren barruan kokatzen da emanaldia.

Bandako kideek *Kalez kale musikaz* izenburuko martxaren estreinaldia egingo dute kontzertuaren hasieran. Gonzalez Chirlaquek berak konposatutako pie-

za da. Ondoren, beste hiru lan joko dituzte: *Ross Roy* (J. De Haanen obertuta), *El barberillo de Lavapiés* zarzuelako selekzioa (Barbierirena) eta, bukatzeke, *Las playas de Río*, K. Vlak konpositorearena.

HERRI BAZKARIA

Domekakoa ez da ohiko kontzertua izango. Izen ere, emanaldiaren ostean herri bazkaria egingo dute Udal Pilotaleku bertan. 200 bat lagunek eman



BANDA Bi emanaldi egingo dituzte asteburuan: zapatuan Antzuolan eta domekan Bergaran.

GOIENKARIA

dute izena. Dena den, oraindik ere badago apuntatzeko aukera. Interesa dutenek Lazkano oinetako dendarra (943 76 25 03) jo dezakete. Izenemateak 30 euro balio du. Bazkalostean, Koxko-

rrena taldeak alaitutako dantzadlia izango da Udal Pilotaleku.

Udako oporren aurretik Bandak emango duen azken kontzertua izango da domekakoa. Bihar,

zapatua, Antzuolako jaietan saioa egingo dute, 12:30ean. Aurretik kalejira egingo dute 11:30ean hasita. Irailean ekingo diote ikasturte berriari eta 175. urteurreneneko ekitaldieei eutsiko diete berriro.



GOIENKARIA

Hainbat bergarar gaurko jazz gauean

Arrasate Musikal Big Band taldeak emanaldia egingo du gaur, egubakotza, Espoloian, 22:30ean. Zigor Martinez berargarra zuzendutako taldea 23 lagunek osatzen dute eta tartean dira beste hainbat bergarar: Amaia Arriaran abeslaria, Isuzko Igartza eta Mikel Markiegi tronboi joleak, Aitor Elortza eta Jesus Alvarez (saxoa) eta Miguel Angel Maniega (tronpeta). Dagoeneko bi disko kaleratu dituzte. Jazz klasikoko bertsioak eta pieza modernoagoak (funky, latin eta swinga) eskainiko dituzte gaur.

> IKASTAROAK

Oihulari Klown taldearen eskutik, 'clown' ikastaroak egiteko aukera hurrengo asteotan

Oihulari Klown taldeak hainbat ikastaro iragarri ditu uztailerako: *clown* sakontze ikastaroa (hilaren 17tik 19ra), *clown* hastapen ikastaroa (hilaren 21ean eta 22an) eta *clown* eta sormen ikastaroa (hilaren 23tik 27ra). Virginia Imaz eta Jose Carmelo Muñoz dira irakasleak. Argibide gehiago 607 20 45 03 telefono zenbakian.

> FILM LABURRAK

Film laburren Bergarako II. lehiaketa: lanak aurkezteko epea irailaren 3ra arte dago zabalik

Udaleko Kultura Zerbitzuak bigarren urtez deitu du lehiaketa: film laburra, abesti baten bideoak, iragarkia edo bestelako lanak aurkez daitezke, bakarka zein taldeka. Irabazleak 300 euro jasoko ditu eta 250 euro izango dira bigarrenarentzat. Lanak irailaren 3ra arte jasoko dituzte. Argibideak 943 77 91 60 telefonoan.

> PINTURA

Bidasoako margolarien erakusketa Aroztegi aretoan ikusgai dago, domekara arte

Bidasoako pintoreen erakusketa domekara arte dago zabalik Aroztegi aretoan. Jabier Sagarzazu, Carmen Maura eta Susana Zaldibar margolarien lanak daude ikusgai Barrenkaleko aretoan, ohiko ordutegian.



GAZTELU
BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak

Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Fax: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

ARANE
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behe
943 76 59 54 BERGARA

Ainhoa erloju denda

Boni Laskurain 2

Akort publizitatea

Mugertza 7

Amparo ile apaindegia

Boni Laskurain 3-4

Antia harategia

Matxiategi 8

Aralar taberna

Matxiategi 3

Belire eskulanak

Oxirondo 4

Berotzi ile apaindegia

Fleming 5

Eladio oinetakoak

Matxiategi 2

Estella ortopedia

Matxiategi 5

Etxalar kafetegia

Boni Laskurain 4

Etxeberria estankoak

Fleming 7

Gorosti loradenda

Matxiategi 1

Herran

Matxiategi 3-4

Ikasle liburu denda

Fleming 11

Itziar mertzeria

Matxiategi 1

**Juana Elgetarra
mertzeria**

Zubieta 38

Kayak taberna

Matxiategi 3

Mizpildi okindegia

Matxiategi 1

Saloki mertzeria

Matxiategi 2

Toki-ona bodegoia

Matxiategi 1

Yon Bilbao elektrizitatea

Fleming 11

Ondo pasau Santamaiñetan!

UDA KANPAINA > PARTAIDETZA, IAZ BAINO TXIKIAGOA

490 lagun parte hartzen ari dira kirol ekintzetan

Txandetan banatutako ekintzetan beherakada handia igarri da aurten

M.B. > BERGARA

Aurtengo Uda Kanpainan 490 lagunek eman dute izena. Iaz, aldiz, 583 pertsonak parte hartu zuten. Beherakada, beraz, nabarmena izan da.

Txanda bakarreko parte-hartzaleen artean ez dago alderik. Iazko kanpainak 229 berigarar izan zituen eta aurten-

goak 230. Alde nagusia txandetan banatutako ekintzetan dago. 354 lagun izatetik 260 izaera pasa da. Igeriketako ekintzetan, adibidez, 84 parte-hartzaile gutxiago izan dira.

Gaztetxoen ekintzei dagokienez, piraguismoak eta euskal pilotak izandako harrerarekin pozik azaldu dira antolatzaleak. Patinajea izan da, hala ere, ekintzarik arrakastatsuna. Nagusien eskaintzan, berriz, uretako aerobika, hirugarren adineko gimnasia eta patinajea izan dira emaitza onena lortu duten ekintzak.



BEHERA Igeriketa ekintzek behera egin dute.

GOIENKARIA

FUTBOLA > IPINTZAKO TXAPELKETA

Getokuak eta A Ze Flaxa taldeko mutilen norgehiagoka izango da gaur Agorrosinen

Martitzenean eta eguztenean nesken finalerdiak jokatu ziren, eta Ostruka eta Zeribarren sailkatu ziren finalerako

MIRIAN BITERI > BERGARA

Gaur arratsaldean amaituko da Ipintzako futbol txapelketa. Mutilen finala jokatuko da Agorrosin Ekintza Gunean, 19:30ean. Norgehiagoka gogorra espero da Getokuak eta A Ze Flaxa taldeen artean. Ondoren, maila ezberdinak irabazole guztiek saritu egingo dituzte.

Nesken finalerdiak, bestalde, astean zehar jokatu dira. Martitzenean Bersora eta Ostrukaren arteko norgehiagoka ikus-teko aukera izan zuten zaleek. Bana berdindu zuten eta penaltiak jaurti behar izan zituzten. Ostruka irten zen azkenean garai.

Eguaztenean, berriz, Zeribarren eta Potzu eta Zapaburuak taldeko nesken txanda iritsi zen. Partidu hori asteluhenerako zegoen aurreikusita, baina azken



NESKAK Lagunak infantiletan gailendu da.

GOIENKARIA

orduko arazoengatik eguztene-ra atzeratu zen; Zeribarren taldeak 5-1 irabazi zuen. Aurre har-tu zuen hasieratik eta ez zuen arazo handirik izan finalean sartzeko. Ostruka eta Zeribarren taldeen arteko finala atzo, Ipintzian, jokatzekoan zen.

ORAIN ARTE JOKATUTAKOAK
Gainontzeko maitetako finalak jokatu dira dagoeneko. Kopa txapelketan, adibidez, Escaliburreko mutilak nagusitu ziren, The Pur-

ple taldekoen aurrean. Hasieran parekatu samar ibili baziren ere, bigarren zatian aldea atera zuten Escaliburrekoek. 8-1 irabazi zuten joan zen egubakoitzean.

Beteranoen mailan Errota Gai-nekoak gailendu dira aurten, Ugarrixaren kontra. Infantiletan, bestalde, Lagunak taldeko neskatilek lortu dute saria. Botobekutzekoek izan zituzten aurrean. Esan bezala, gaurko partidua amaitu ostein jasoko dute saria irabazle guztiek.

SANTAMAIÑAK 2007

Uztailaren 13a, ostirala. Umeen Eguna

Astean zehar, AITONETAN, tute, mus, briska, toka, rana, bolo eta billar kanporaketak jokatuko dira. 10:30ean, Umeendako PONIak, BAKILLAK eta KUKAÑAK. San Martin herri eskolan. 12:00etan, Etxafleroak eta kanpai hotsak jaiak adierazteko. 20:00etan eta 22:30ean, ZINEA "Aupa Etxebeste" Agorrosinen.

Uztailaren 14a, larunbata. Jubilatuen Eguna

10:30ean, Aitonetan, XIX. IBILALDI NEURTUA jubilatuentzat. 16:30ean, AITONETAN: tute, mus, briska, toka, rana, bolo, billar, finalak jokatuko dira. Ondoren, Aitonetan SARI banaketa.

Uztailaren 15a, igandea

9:00etan, Herriko txistularien KALEJIRA 11:00etan, Bergarako Udal Musika Bandaren KALEJIRA 12:00etan, Bergarako Udal Musika Bandaren KONTZERTUA Frontoian. 15:00etan, Bazkari herrikoia Frontoian, Bergarako Udal Musika Bandaren 175. urteurrena ospatzeko.

Uztailaren 18a, asteazkena. Santamaiñak eguna

19:00etan, Herri Meza Santamaiñako elizan. Ondoren ARITZETA abesbatzaren kontzertua.

Uztailaren 19a, osteguna

22:00etan. BLUES GAUA "Mahaster River" taldearekin Agorrosinen.

Uztailaren 20a, ostirala

19:00etan, XV. BOCCIA txapelketa. Agustin Toledori omenaldia. Espaniako BOCCIA txapelketan brontzezko domina lortu du-eta. Ordu berean, PETRIKOL dastatzea auzoko tabernetan. 20:00etan, CAPOEIRA (Brasilgoa, borroka eta dantza) erakustaldia USONDOKO parkean. 21:30ean, AFARI HERRIKOIA dantzaldiarekin Agorrosinen. Ondoren, bakoitzak ahal duena.

Uztailaren 21a larunbata

16:00etan, TXIRRINDULARITZA lasterketa XVI. Santamaiñako saria 17:00etan, PETRIKOL dastatzea auzoko tabernetan. 23:00etan, goizaldera arte DISKO-FESTA Matxategin.


Uztailaren 22a igandea.

18:30ean, Bizikleta MARTXA MOZORROPUTA nahi duen guztientzat. Ondoren ume, gazte eta nagusiendako TXOKOLATADA Matxategin

Ondo pasau Santamaiñetan!

Eskerrik asko laguntzaile guztie!

Jai batzordea.



R. Otaño

mingainari tiraka

Miriam Cabo > Keixa ile apaindegiko arduraduna

"Eroso eta eder joatea bateragarria da"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Hilabete bat baino gutxiago darama zabalik Keixa ile apaindegia. Miriam Cabo hango arduraduna da, eta udan kalean ikusiko diren azken joerak azaldu dizkigu.

Bergarako emakumeek garrantzi itzela ematen diote orrazkerari. Lanik ez duzu faltan izango...

Hala da. Hilabete eskas daramagu lanean eta oso pozik gaude erantzunarekin. Ile apaindegi asko dago herrian, baina guztien-dako lana dago. Beti esan izan da Bergaran oso ondo orraztuta joaten garela...

Zertan oinarrizten zara bezeroak orrazteko orduan?

Azken joerak bakoitzaren gustuetara moldatzen saiatzen gara. Gogoko duena eta ondo geratzen zaiona kontuan hartzen da, baita orrazkera erosoa izatea ere.

Erosotasunean ala edertasunean pentsatzene dute ile apaindegira joaterakoan?

Bietan; izan ere, ez dute zertan banatuta joan.



Zer tindagai eskatzen dira gehien?

Txokolateak eta marroiak. Oso naturalk direnak. Hala ere, hori oso erlatiboa da, bakoitzak gustu ezberdinak ditu-eta.

Motza edo luzea eta kizkurra edo lisoa?

Gauza bera esango nizuke. Adatsa modan dago, baina aukera asko dago. Denetarik eramatzen da. Gainera, adina ez dago lotuta orrazkera zehatz batekin.

Zuretako zer orrazkera mota aukeratuko zenuke?

Momentu honetan dudana. Adats luzea, txokolate kolorekoa, eta ilea nahasi samar. Azken joerak jarraitzea gustuko dut.

Gizonaz hitz egitea ezinbesteko da, gero eta gehiago arduratzentz delako irudia zaintzeaz. Igarri al duzu?

Bai. Argia dago gero eta gehiago zaintzen direla. Depilatzeria etortzen direnak eta kremak erosten dituztenak ditugu. Ilearri dagokionez, bi mota daude: gura dutena argi daukatenak eta ile apaintzaileari uzten diotenak.

bere ustez



Lander Juaristi

SGAE ez,
mila
esker!

Pasa den astean SGAE delakoak Jardun euskarra elkartera deitu zuen: Ekainaren 2an, Trikiti Egunean, inongo irabazi asmorik gabe eta doan antolatu zuen kontzertuarengatik dirua eskatzen, eta ez gutxi gainera.

Ez naiz musikari ez eta autore. SGAE azaletik ezagutzen nuen, lagun musikarien komentarioak, zerga jasotzale orok sortzen digun ezin iku-sia, baina egia esan ez dit zuze-nean eragin eta ez dizkiot burubuelta gehiegia eman. Gaur da eguna, SGAEk eragiten dida-

"SGAEk musikaren eta kulturaren industriaren interesak zaintzen ditu"

na, nire argazki kamararekin, nik ateratako, nire argazkiak, CD batean bildu nahi ditudanean Kanon bat ordaindu behar omen diot SGAEri. Zein autorerri eta zergatik ordaindu behar diot zerbait?

SGAEk autore eta musikarien interesak zaindu baino, musikaren eta kulturaren industriaren interesak zaintzen ditu. Horregatik, irabazi asmorik gabe kultur ekintzak antolatu, kultura zabaltzen duenak, popatik hartzera bidaltzeko zilegitasuna du.

Badira bestelako kultura baten aldeko apustuak: Copiffet delakoa, software libretik sorkuntza orotara zabaltzen ari den ideia. Kultura, sorkunta oro, ahalik eta modu errazenean eta merkatutik atzabaltzea komeni dela uste duenak egiten duen aukera da hau.



GOIENKARIA

Kantabria aldean ibili zen gora eta behera txirrindulari talde bat joan zen asteburuan

Uztailaren 7an irteera egin zuen Bergarako txirrindulari talde batek. Guztira, 28 lagun joan ziren Kantabria aldera, 30 eta 60 urte bitartekoak. 130 kilometro egin zituzten goizean. Lierganesen hasi zuten ibilbidea eta Portillo de Lunada igo ostean, Puerto de los Tornosaino joan ziren. Romalesetik Santoñarantz abiatu ziren orduan. Ibilbidea Nojan amaitu zuten. Han ederto bazkaldu ostean, autobusean bueltatu ziren Bergarara. Primeran pasa zutela azaldu digute. Irteeran parte hartu zutenen irudi bat ere bidaли digute, 1.350 metroko altuerara dagoen Portillo de Lunadan aterata dagoena.

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

MIZPILDI

OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

Ferranaga
BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
San Pedro, 9. Teléfono: 761051
R.S.I. 209374 - 55
BERGARA

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen □ bada
giro!

ARLUTZ
TABERNA
Gustuko musika
Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

Ezkutu
TABERNA
Zatoz gure musikaz gozotzen
Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01

VALDEZATE
Bokatak eta plater konbinatuak
Araba ibilbidea 5, behea - Tel: 943 25 07 40

IOSU
taberna harategia
Urdaitegia-gozotegia
Kroasategia
Gertatutako janariak
Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08

Dorleta
DORLETA
Loteria primitiboak eta kinielak
DORLETA TABERNA
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA

OTZETA JATETXEA
Aramburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

BASABE
Menuak eta afariak
Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 07 94

Gurea
TABERNA
Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

HIRUSTA JATETXEA
Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57

Only
aretxabaleta
Herriko plaza Aretxabaleta Tel.: 943 79 09 33

ZARAIA
taberna
Goizeko 06:00etik irekita
Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95

Matikua jatetxea
Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

OSOKO BILKURA > AGINTALDI BERRIA

Hilaren 19an egingo dute osoko bilkura, udal batzordeak osatzeko

Oraindik ez dute zehaztu zeintzuek osatuko duten udal gobernu batzordea; programa adosten jardun dute EAEk, Aralarrek eta EAk azken asteotan egindako bileretan

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta
Datorren egunean, hilak 19, egingo du udalbatzak ezohiko osoko bilkura, udal batzordeak osatu eta batzordeburuak izendatzeko.

PROGRAMA ADOSTEN
Ekainaren 16an osatu zituzten udalbatzak herrieta, eta batzordeak osatu eta batzordeburuak izendatzeko epea uztailaren 23an bukatuko zaie guztiei. Aretxabaletako udalbatzako hainbat alderdi kontuak adostu guran dabil azken asteotan. *Gobernu onerako hitzarmena* sinatu zuten



UDALBATZA Ekainaren 16an osatu zen udalbatzako kideak udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

nak kuantifikatzen ibili gara, aurreikusitako helburuetatik abiatuta".

Jakinarazi digu, gainera, EAJrekin oraingoz ez dutela ezer adostu. *Gobernu onerako hitzarmena*-ren kopia eman zien orain dela aste batzuk, eta horren gaineran duten iritzia jakin gura dute Eusko Abertzale Ekintzak, Aralarrek eta EAk: "Hitzarmenarekin bat etorriz gero, gobernuan egoteko aukera eman diezaiekegu", azaldu digu Garrok.

BATZORDEAK OSATU

Datorren egunean egingo duten osokoan jakinaraziko dute zeintzuek osatuko duten udal gobernu batzordea. Gainerako batzordeak ere osatuko dituzte, eta batzordeburuak, alkateordeak eta beste erakunde batzuetara joango diren ordezkarriak izendatuko dituzte. Alkateak Udalean izango duen lan jarduna eztabaidatuko dute, gainera. Datozen lau urteotan ohiko osoko bilkurek izango duten maiztasuna ezarriko dute eta noiz egingo dituzten zehaztu.

KULTURA > ANDRAMAIXETARAKO HORMA-IRUDIA ETA ESALDIAK

Jokin Carrillok jaso du jaietako horma-irudi lehiaketako saria

44 esaldi aurkeztu dituzte aurten, eta epaimahaiak bereziki hartu ditu kontuan Andramaixak neurri onean pasatzena gonbidatzen dituztenak

M.A. > ARETXABAleta
Andramaixak iragarriko dituen horma-irudiaren saria banatu du Kultura Sailak. Hamar aurkeztu ziren, bi ordenagailuz eginda eta gainerakoak eskuz, eta Jai batzordeak Arrasateko Jokin Carrillorena hautatu zuen. 300 euro eta plaka eman zizkioten martitzenean.

Prebentzio Sailak, bestalde, esaldi lehiaketako sariak banatu ditu. 44 aurkeztu ziren, eta egitarauan agertuko dena Aitor Irurek eta Mirari Aiastuik asmatu zuten: *Andramaixak herrixen; jaixak eta euskera agerixen, juergia ta ligiak neurrikan, zahar edo gazte izen... zure zain gaz*

abuztuan erdixen; pegatinak egi-teko erabiliko dituzten bi Iratxe eta Gorkarenak dira: Gauean samba, goizean salda eta Bat, bi, hiru, lau Andramaixetan ezin ligau; eta hirugarrena, berriz, Basabeazpiko Gurasoak taldekoek egindakoa: Zuk bai jakin, Andramaixetan gurekin.



IRABAZLEA Jokin Carrillo irabazlea, saria eskuan.

KULTURA SAILA



EGUZKIGRAF
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

> ZINEMA
'Pequeña Miss Sunshine' filma gaur, 22:30ean, plazan

Gaur, egubakoitzak, komedia ganberro eta atsegina eskainiko du Kultura Sailak, 22:30ean, Herriko Plazan. *'Pequeña Miss Sunshine'* filmak Estatu Batuetako familia xelebre baten bidaia kontatzen du, Hoover familiak Kaliforniara egiten duen bidaia, alabak edertasun lehiaketan parte har dezak.

Nazioarteko hainbat zinema jaialditan eskuratu ditu sariak aipatutako filmak; tartean, bi Oscar sari aurten eta Donostiako Zinemaldian publikoaren saria.

> OSPAKIZUNA
San Kristobalen omenez ospakizuna Larrinoko elkartean

San Kristobal eguna izan zen martitzenean, hilak 10, eta Larrinoko bizilagunek gogoan izan zuten auzoko zaindaria.

Larrinon dagoen gastronomia elkartean ere ospatzen dute San Kristobal eguna, santuaren egunaren inguru. Bihar, zapata, hainbat ekitaldi izango dituzte: 17:30ean, umeendako jolasak; eta 19:00etan, txokolate beroa, trikitilariek girotua; eta 21:30ean afaria egingo dute elkarteko bazkideek.

> IKASTAROA
Ahotsa lantzeko ikastaro motza hilaren 24an eta 26an

Jaiki elkarteko antolatuta, ahotsaren mugimendua lantuko dute uztailaren 24an eta 26an egingo duten ikastaroan. Interesatuek Azkena tabernan eman behar dute izena, 10 euro ordainduta.

Ahotsaren pedagogian aditu Bettina Aragon izango da irakaslea. Ahotsa lanerako erabiltzen dutenendako da egokia ikastaroa, eta jarra oihurek eta mugimenduak ahotsean daukaten era gina aztertuko dute.



LANTALDEA Alberto Trojaola aretxabaletarra Mitemeleteko lantaldearekin batzarrean.

MUNDUKIDE

MUNDUKIDE > EKUATORE GINEA

Oiloak hazi eta saltzeko proiektua martxa onean doa Mitemelete herrian

Alberto Trojaola aretxabaletarrak hiru hilabete inguru egin ditu Ekuatore Ginean, eta kudeaketa eta antolaketan lagundu die bertako lantaldeei

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta
Mundukide Fundazioak orain urtebete jarri zuen abian oiloak hazteko proiektua Ekuatore Ginean. Alberto Trojaola aretxabaletarra izan da hiru hilabetez bertako langileei laguntzen, eta hango berriak ekarri dizkigu.

OILOEK ERRUTEKO ZAIN
Orain urtebete sortu zuten Ekuatore Gineako Mitemelete herrian lehen lantaldea eta oilategi, aroztegi eta beste eraikin batzuk egiten hasi ziren. Ordutik hona asko ikasi dute proiektua abian jarritako kideek, bulegoan diseinatutako proiektua Afrikako baliabide eta erritmoetara egokitzea.

DATUA
10.000
OILORENDAKO OILATEGIA

Urtea bukatu baino lehen 10.000 oilorendako oilategia eraiki gura dute. Azaroan beteko dute arrautzak errungo dituzten oiloekin. Hala olio produkzioa haziz joango da aurretik martxan dagoenarekin.

izan dute eta. Hala ere, aurrerapen handiak egin dituzte eta martxa onean doa: 2.000 oilorendako oilategia bukatuta dago eta oilo

horiek hiru hilabete barru arrauutzak erruten hasiko dira; pentsu lantegia abian da; bigarren iturria egokitu dute, eta 20 mila litroko ur-andela bukatuta dago oilategietara zein herriko iturrietara ur edangarria eroateko.

Mundukideren helburu nagusia bertakoei formazioa eman eta laguntza teknikoa eta ekonomikoa eskaintzea da. Hala, eurak izango dira protagonista bai abian jarritako proiektuetan, bai eskualdeko garapen sozio-ekonomikoan. Horregatik konpromisoa eta gaitasuna garatuko duen lagun taldea sortu gura dute, eta horri bultzada emateko izan da Trojaola, Mitemeleten.

TRIALSINA

Muruak eta Zunzunegi hirugarren geratu ziren

Hilaren 28an mundiala jokatuko dute Bartzelonan

M.A. > ARETXABAleta

Bukatu da Espainiako trialsin txapelketa eta hirugarren geratu dira aretxabaletar bi. 13 urte dituen Aitor Muruak infantil mailan jokatzen du, eta 10 urteko Unai Zunzunegik hasiberriean. Granadan, Murtzian, Badajoz eta Gironan izan dituzte txapelketa probak eta guztietan bikain jardun dute, lehenengo lau postuen artean sailkatura. Ondorioz, trialsin mundialerako sailkatu dira, eta Bartzelonako Mataro herrira joango dira hilaren 28an jokatzen. Europako onenen artean jardungo dute norgehiagoa horretan.

DOMEKAN, OIARTZUNERA

Trialsinean ez ezik biketrialean ere ibiltzen da Galartza auzoan bizi den Muruak. Modilitate horretan ere Espainiako txapelketa jokatu du, eta bosgarren postuan geratu da sailkapenean: "Ezberdinak dira bi modalitateak; pedala, esaterako, jar daiteke lurrean biketrialean, baina neurtako zailagoa da", azaldu digu Muruak.

Horiez gain, Open Norte txapelketa ere badabil jokatzen, eta domekan, hilak 15, Euskadiko trialsin txapelketa hasiko du. Oiartzunen da lehen proba.



Aitor Muruak trialsin jokalaria.

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAleta

Iber

**Loteria
Paper denda
Liburuak**

Otalora 2. ARETXABAleta
Tel.: 943 79 04 39

**((112))
SOS DEIAK**

UDALA > AGINTALDI BERRIA

Udala eratzeko osoko bilkura egin zuten atzo, eguna, udaletxeen

EAJ alderdiak 11
batzordeetatik
bederatzi hartuko ditu
eta EAk, bi

Ohiko osoko bilkurak
hileko azken
eguenetan egindo
dituzte

OIHANA ELORTZA > OÑATI
Udal berria eratzeko osoko bilkura egitekoak ziren atzo, eguna, udaletxeen. Hantxe onartu behar zituzten batzordeak, Udalak beste erakunde batzueta izango dituen ordezkariak eta alkatearen, zinegotzien eta alderdien soldatak, besteaak beste.

BATZORDEEN ERAKETA
EAJ eta EA alderdiek osatuko dute aurrerantzean udal gobernuak, eta elkarren artean egin dute batzorde banaketa. Horrela, 11 batzordeetatik bederatzi EAJren eskuetan egongo dira eta beste biez EA arduratuko da. Honela gelditu da batzorde infor-

matzaileen banaketa: Lourdes Idoiagak, Ogasuna, Pertsonala eta Plan Estrategikoa; Angel Biainek, Hirigintza eta Lurralde Antolamendua; Jose Mari Igartua, Zerbitzuak, Azpiegiturak eta Ingurumena; Ainhoa Galdos, Nekazaritza eta Auzoak; Amaia Intzak, Kultura; Andoni Gartzia, Kirolak eta Garapena, Enpleguak eta Merkataritza; Mikel Iturrospe, Haur eta Gazte batzordea eta Euskara eta Hezkuntza; Ernesto Murgiondok, Turismoa; eta Rosario Galdos, Gizarte Zerbitzuak.

Udal eraketa berrian, beraz, bi aldaketa hauak egongo dira: Ainhoa Galdos Euskara eta Hez-

kuntza gaietarako zinegotzia izan da azken lau urteetan eta agintaldi berrian, Nekazaritzako eta Auzoetako gaiez arduratuko da. Kirolak, aldiz, EAk kudeatu ditu azken agintaldian eta datozen lau urteetan EAJ arduratuko da; EAk, berriz, Kultura eta Turismoa gidatuko ditu.

Batzorde informatzaileetan alderdi guztiak dute parte hartze-ko aukera, EAE-ANVak barne. Batzorde horiek itxiak izan behar

Hain zuzen ere, alkatearen soldada eta beste organo batzuei ordainduko zaien kopurua ere atzoko osoko bilkuran onartu behar zuten. "Alkatearen solda-ta ezartzeko, Eudelen proposa-mena jarraitu dugu eta Arcepa-fe-Udalhitz konbenioaren 30. maila aplikatuko da", azaldu du Idoiagak. Gehien kobra-zen duen Udaleko teknikariak baino %10 gehiago kobra-ku du alkateak.

MAIZTASUNAK

Bestalde, udalbatza eta gobernu batzordea zenbatean behin bildu-ko diren ere onartu behar zuten atzoko osoko bilkuran. Proposa-mena da hileko azken eguenetan egitea ohiko osoko bilkurak, eta gobernu batzordea, berriz, egue-nero elkartzea. Alkateak eta bes-te bost zinegotzik izango dute botoa gobernu batzordean, baina, "normalean, Udal eratzen dugun alderdietako ordezkari guztiak joaten dira", zehaztu du Idoiagak.

Ohiko osoko bilkurei dago-kienez, oporrik hartu aurreko azkena uztailaren 26an egingo dute eta opor osteko lehenengoa, irailaren 26an.

BATZORDE INFORMATZAILEEN ARDURADUNAK



Lourdes Idoiaga - EAJ



Angel Biain - EAJ



Ainhoa Galdos - EAJ



Amaia Intza - EA

Kultura



Andoni Gartzia - EAJ

Garapena, Enpleguak eta Merkataritza
Kirolak



Mikel Iturrospe - EAJ

Euskara eta Hezkuntza
Haur eta Gazte batzordea



Rosario Galdos - EAJ

Gizarte Zerbitzuak



Ernesto Murgiondo - EAJ

Turismoa



Jose Mari Igartua - EAJ

Zerbitzuak, Azpiegiturak
eta Ingurumena



ZORTEDUNAK Etxebizitza tokatu zitzainenetako lagun batzuk.

O.E.

ETXEBIZITZAK > BIGARREN FASEKO ZOKETA

Ugarkaldeko 40 etxebizitza babestu zozketatu dituzte

Urtea bukatu aurretik, Ugarkaldeko eta San Martineko beste 102 zozketatu gura dituzte

O.E. > OÑATI

Ugarkaldeko bigarren faseko 40 etxebizitza babestu zozketatu zituzten martitzenean Zubikoko pilotalekuak.

Hiru zozketa egin zituzten: lehenengoan gutxituendako etxebizitzak zozketatu zituzten; bigarrenean, familia ugariendako eta hirugarrena zozketa orokorra izan zen. Gutxituendako bi etxebizitza zeuden zozketatzeko, baina, eskaera bakarra zegoenez, hutsik gelditu zena

hurrengo zozketarako utzi zuten. Familia ugariendako bi etxebizitza zeuden eta bost eskaera. Gainerako eskatzaileak zozketa orokorrean sartu ziren. Guztira 556 lagun zeuden martitzeneko zerrendan.

Hirigintzako zinegotzi Anjel Biainek esan duenez, "urtea bukatu aurretik Ugarkaldeko beste 57 etxebizitza (40 babes-tuak eta 17 tasatuak) eta San Martineko 45 babes-tuak zozketatu gura ditugu".

UDAL GOBERNUA > AGINTALDI BERRIA

PSE-EE eta EB-Aralarrek izan ezik, beste talde guztiekin hartuko dituzte batzordeak

EAE herriko alderdi eta talde guztiekin batzartu da, eta EA, EAJ eta Elizateak Elkartearekin banatu ditu batzorde eta azpibatzordeak; azkenean, EB-Aralar eta PSE-EErekin ez dira adostasunera heldu

IKER BARANDIAREN > ESKORIATZA
Atzo, eguna, egin zuten Udaleko osoko bilkura udaletxean. Bilkura horren helburua izan zen Udaleko batzordeak eta azpibatzordeak banatzea. Horrez gain, udal erakundeetarako ordezkarriak ere aukeratu behar zituzten.

EAE-ANV taldeko ordezkarriak udalerriko alderdi eta talde guztiekin batzartu dira maiatzeko hauteskundeak irabazi zitzatenetik. Aurreko agintaldien ildo beretik, Eskoriatzan ez dute gobernu batzorderik eratuko. "Uste dugu hobe dela alderdi guztiengan artean proiektuak adostea eta esku-hartzea bultzatzea. Horiaz, orain arteko ildoa jarraituko dugu", azaldu zuen Pedro Lasagabaster alkateak.

Bestalde, EAEko ordezkariek azaldu digute batzordeen eta azpibatzordeen ardura alderdi guztiengan artean banatzen saiatu direla, baina guztiekin ez dutela adostasunik lortu.

BOST BATZORDEAK BANATUTA
Alderdiengan artean egindako negoziazioen ondorioz, Udaleko bost batzorde nagusiak banatu egin dituzte: Hirigintza Pedro Lasagabasterrek (EAE) eramango du, Kultura Edorta Barandiaranek (EAE), Ogasuna Aitor Urrutia (EAJ), Gizarte Ongizatea Juan Carlos Bengoa (EA) eta Pertsonala Pedro Lasagabasterrek (EAE), hain zuzen ere.

Batzorde horien barruan dauden azpibatzordeak ere alderdi askoren artean banatu dituzte. Hirigintzako azpibatzordeetan honako taldeek hartu dituzte ardurak: Obrak eta Zerbitzuak, EAEko Dorleta Lezetak; Elizateak, Elizateen Elkarte Leire Okarantzak; eta Hirigintza eta Ingurumena, EAEko Pedro Lasagabasterrek.

Kulturako azpibatzordeetan honako ordezkarriak izango dira: Euskara Leire Okarantzak (Elizateen Elkarte) eramango du; Gazteria, Kultura eta Jaiak, hiruak, Edorta Barandiaranek (EAE); Kirola, Juan Carlos Bengoa (EA); Turismoa, Ander Agirianok (EAE); eta Hezkuntza,



BATZORDEAK BANATUTA Ezkerretik eskumara, Pedro Lasagabaster alkatea (EAE); Ogasuneko buru Aitor Urrutia (EAJ) eta Ongizateko buru Juan Carlos Bengoa (EA). I.B.

EAJk, hain zuzen ere. Gizarte Ongizate barruan ere hainbat arlo bereiztu dituzte: Ongizatea Begoña Erañak (EAJ) eramango du; eta Emakumeak, Dorleta Lezetak (EAE). Horrez gainera, lerro hauek idazteko orduan, zalantzan zegoen Osasuna eta Drogamenpekotasuna nork harituko zituen.

Ogasuna aintzat hartuz gero, Sustapenaren eta Herri Komertzioaren ardura, biena, Ander Agirianok (EAE) hartuko du. Horrez gain, Hiri Ondarea EAJ-

ren kargu geldituko da; eta Landa Ondarea, berriz, Elizateetako Leire Okarantzaren esku.

HERRIKO SALTOKIEN ARDURA

Aipatutako azpibatzordeen artean bada berritasunik. Hain zuzen ere, Herri komertzioaren azpibatzordea berria da, eta horren helburua da herriko saltokieeak bultzada egitea. Horrez gain, legealdi honetan Ondarea azpibatzorde bitan banatu dute: Hiri Ondarea eta Landa Ondarea bereiztu dituzte, hain zuzen ere.

Bestalde, berrikuntza da baita ere Turismoa azpibatzordea Kultura batzordearen barruan sartzea, orain arte Ogasunaren barruan zegoen-eta.

UDAL ERAKUNDEETAN ORDEZKARI

Udal barruko batzorde eta azpibatzordeez gain, bestelako ordezkarriak ere aukeratu behar izan zitzuten atzoko (eguna) osoko bilkuran. Hain zuzen ere, Udalak kudeatzen dituen hainbat era-kundetarako ordezkarriak izendatu zitzuten.

Telesko herri telebistako presidente Pedro Lasagabaster izango da, baina horrez gain, herriko alderdi guztiak egongo dira ordezkatuta.

Leintz Ibarraundi Fundazioan, berriz, Udaleko hiru ordezkarri izango dira: Turismoko eta Kulturako buruak eta alkatea ere bai.

Eskoriatzako Industrialdeari dagokionez, EAEk proposatu zuen bere taldeko bi zinegotzi eta hurrengo hiru alderdi bozkatuenen bana ordezkarri egotea.

BOST BATZORDE NAGUSIAK LAU ZINEGOTZIREN KARGU



Pedro Lasagabaster - EAE



Edorta Barandiaran - EAE



Aitor Urrutia - EAJ



Juan Carlos Bengoa - EA

Alkatea
Hirigintza
Pertsonala

Kultura

Ogasuna

Gizarte ongizatea

HIRIGINTZA > DORLETA AUZOAREN ERABERRITZEA

Dorleta auzoa goitik behera eraberritu dute

Udalaren lanei azken ukituak ematen dabilta; eta auzotarrenak uda ostean bukatuko dira

I.B. > ESKORIATZA

"Urte eta erdi izan da, eta luze jo du, baina azkenean auzoa guztiz eraberritu dute", azpimarratu zuen auzotarren ordezkarri Dorleta Lezetak.

Aspaldiko asmoa zen Dorleta auzoko fatxada guztia eraberritzeta eta bestelako lan batzuk egitea, baina Udalak egin beharreko eraberritzetan zain egon ziren: "Halako baten, Udalak Jaurlaritzaren Izartu programaren laguntza eskuratu zuen eta 2006ko martxoan lanak hasi zituen. Auzotarrok ere horren arabera antolatu ginan, lanak batera egiteko asmotan".

AZKEN UKITUAK EMATEN

Injelan eta Fonorte enpresak egin dituzte auzoa eraberritzeko lanak. Espaloiak, aparkalekuak, jolas parkea eta beste lan asko egin dituzte. Horrez gain, balkoi guztien azpiko zatiari tratamendu berezia egin diote hezetasun handia hartzentzuelako.

Dagoeneko Udalaren lanak ia bukatuta daudenez, auzoko eraikinen lehenengo solairuen tratamendua egiteari ekingo diote. Hori bukatzeko muga irailaren 30a dutela azaldu digu auzotarren ordezkarri Dorleta Lezetak.

Azkeneko lanak, orain dela gutxi bukatu dituztenak, honako hauek izan dira: erreka



APARKALEKU GEHIAGO Aparkaleku plaza gehiago daude.

IKER BARANDIARAN

IKER BARANDIARAN



EMAKUMEZKOEN SASKIBALOIA Herriko neskek (argazkian) lorpen handiak egin dituzte saskibaloian.

GOIENKARIA

KIROLA > ESKORIATZA KIROL ELKARTEAREN BATZAR OROKORRA

Emakumezkoen Euskal Saskibaloit Kopa herrira ekarri gura dute urrian

Datozen hilabeteetarako egitasmo garrantzitsuak bultzatu arren, bazkidetza kanpainari eta errelebuari emango diote garrantzi handien

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Gaur, egubakoitza, Eskoriatza Kirol Elkartea urteroko batzar orokorra egingo du, 19:00etan, Ibarraundi museoan. Kirol elkarteko zuzendaritza batzordeak eskatu die bazkideei batzarrera joateko, dituzten zalantzak argitu asmoz.

Gaur egun kirol elkartea 300 bat bazkide ditu. Horietatik, 200 baino gehiago bazkide arruntak dira eta gainontzeoak, berriz, jokalariak. Bazkide arrunt bakotzak urtean 40 euro ordaintzen ditu. Hurrengo denboraldirako, berriz, bi euroko igoera aurreikusi dute. Hain zuzen ere, bazkide kuota merkeenak dituen ibarreko kirol elkartea dela jakinari digu elkarteko presidente Manolo Muñozek.

ERRELEBO FALTA

Muñozek berak jakinarazi digu oso zaila dela elkarteko ardurak hartzeko jendea lortzea: "Esaterako, aukerak daude beste talde batzuk sortzeko, baina horretarako entrenatzaila gehiago behar ditugu, eta, tamalez, ez dauzka. Pena da, baina oso zaila da horri buelta ematea".

Bestalde, Muñozek azaldu digu urri-azarorako ezohiko batzarrorako deituko duela, presidente kargua beste norbaitek har dezan: "Elkartea osatzen duten lagunek hori baino gehiago merezi dute, baina une honetan ezin dut gehiago eman; horiaz, atsedan hartu beharko dut".

EUSKAL KOPA ETA SELEKZIOA

Beste gai askoren artean, batzar orokorrean azalduko dituzte datorren denboraldirako aurreikusi dituzten erronkak. Horien artean nagusiak dira, besteak beste, honako hauek: Emakumezkoen Euskal Saskibaloit Kopa Eskoriatzan jokatzea, eta areto futboleko euskal selekzioa Eskoriatzara ekartzea.

"Gure asmoa da urrian emakumezkoen saskibaloiko lau talde onenak Eskoriatzara ekartzea, eta hala egingo dutela agindu digute: Txingudi, Atletico San Sebastian, Irlandesas eta beste talde bizkaitar bat, hain zuzen ere. Are gehiago, urrian, talde horietako jokalari amerikarrek ere jokatzeko aukera izango dute, eta ikusgarria izango da", azaldu digu, ilusioarekin, Muñozek.

Areto futboleko euskal selekzioaren hitzorduari dagokionez, hurrengo denboraldian ekartzeko asmoa dute, baina oraindik ez dakite ziur noiz izango den.

BAZKIDEAK EGITEKO KAMPAINA

Batzar orokorrean azpimarratuko duten beste egitasmo bat da bazkide gehiago egiteko kampaña abiarazi dutela. "Bazkideek urtean 42 euro jarri behar dituzte; eta horren truke herriko elkarrekin ekimentsu bati lagun diezaioke", azaldu du elkarteko presidente Muñozek.

Horrez gain, ohiko kontuak izango dituzte berbagai: denboraldiko kirol balantza, ekonomika eta beste.

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77

Zure

Zerbitzura

BADIARDUGU > 'ANTZUOLARRAK BERBETAN' WEBGUNEA

Antzuolako ahozko ondarea denon eskura dugu, Interneten

Antzuolako Udalaren eta Badihardugu euskara elkartearen arteko hitzarmenaren emaitza da

55 herritarren jarduna jaso dute eta horietako grabazio batzuk entzuteko aukera dugu

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Ekainez aurkeztu zuten Antzuolako hizkera eta ahozko ondarea jasotzen duen proiektua. Badihardugu euskara elkartearak eta Antzuolako Udalak 2004an sinatutako hitzarmenaren emaitza da. Deba ibarreko euskara elkarreta da Badihardugu eta ibarhorretako ahozko ondarea jasotzeko abian jarri zuen Ahotsak proiektua orain dela lau urte. Proiektu zabalago horren barruan sartzen da Antzuolako.

Interneten aurki dezakegu Badiharduguk egin duen lana, www.antzuola.com webguneareen barruan, *Antzuolarrak berbetan* aukera sakatuta. Hantxe, 37 bat herritarren jarduna entzuteko aukera dugu; grabazioetako batzuen transkribapenak irakurtzeko aukera ere badago.

URTEAKO LANA

Badihardugu elkartearak 15 herritar elkarriketatu ditu; elkarriketa horiek bideoz grabatuta daude eta Interneten ikusi eta entzuteko aukera dugu.

Proiektuan, baina, lehendik eginda zeuden hainbat grabazio ere erabili dituzte: Marijo Deograciasek *Kontuola* aldiakirako egindakoak; Idolaz euskara elkartearak orain dela 15 bat urte egindakoak eta Marijo Iparragirrek kantu eta jolasen gaineko beka baterako egindakoak.

GUZTIZ OSATZEKE

Oraingo, Badihardugu elkartearak bukatu du bere lana, baina aurrerago lana osatuz joateko aukera ez dute baztertzen. Izan ere, grabazioetako batzuk bakarrak daude transkribatuta eta

The screenshot shows a web browser displaying a page from the 'Antzuola Berbetan' website. The page title is 'Antonio Iturbe Txintxurreta'. Below the title is a small portrait photo of an elderly man. To the left, there's a sidebar with links like 'Azalpen orokorra', 'Hizlariak', and 'Gaiak'. The main content area contains a brief biography: 'Irimoegiogena auzoko Iralatorre baserrin jaiotako 1924. urtean. Antzinako bizimoduaren inguruko azalpen interesgarriak eskaintzen ditu: baserriko lanak; ohitura zaharrak, e.a.'. Below the biography is a table titled 'Bere pasarteak' (His publications) with a list of 8 items, each with a title and a checkmark in the 'Multimedia' column.

HIZTUNAK Hitzun gehienetan hitzak entzuteko aukera dago Interneten.

AHOTSAK

denak entzuteko aukerarik ere oraindik ez dago.

Bestalde, etxean Internet ez dutenei edo Internet erabiltzeko zailtasunak dituztenei webgune

hori ikusten laguntzeko prest dago KZGuneko arduraduna. Hilaren 26an, esaterako, zabalkiz duzue zerbitzu hori goizez, 09:00etatik 13:00etara.

bere ustez



Jone Lete

Eta gaurko gaztiak nun daude?

Azkenaldixan herrixetako jaixetan, edo aste bukaeretan poteuan irten eta beti galdera igualak irtetzen dau lagun artian: nun daude oingo gaztiak? Lehen-guan Zumarragako jaixetara jun ginan; tabernetan bazebillen jendia, baina gehixenak 30 urte inguruak. Aiba! Ta 16, 18, 20 urte inguruak nun sartzen dira ba? Edade horrekin gu gustora asko ibilten giñan taberna batetik bestera: "Benga! poteo azkarrara!" ta holako astokerixak egiten, diru gutxi geunkala

"Parrandia be zihero aldaututa dago; ez dot esan nahi oinguak balixo ez dabenik"

UDALA > BATZORDEEN OSAKETA

Udaleko batzordeak hasi dira lanean

Hirigintza batzordeak dagoeneko egin du agintaldiko lehendabiziko batzarra

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Oraingo astean elkartu da lehennengo aldiiz Hirigintza batzordea. Datorren astean hasiko da lanean Ogasun batzordea eta irailera laga dute Nekazaritza eta Ingurumen batzordearen lehendabiziko batzarra. Pixkanaka ohiko martxari heldu dio Udalak.

> ARROLA

Lastur-Deba mendi ibilaldia eta hondartzara irteera

Arrola Mendizale Elkarteak mendi-ibilaldia egiteko eta hondartzara joateko irteera antolatu du uztailaren 22rako, domenika. Lasturretik Debara oinez joango dira; ibilaldi lasaia da, pare bat orduko. Ondoren, Debako hondartzara joango dira. Egun osoko irteera da datorren astekoa. Autobusa irtengo da 09:30ean, Sagasti auzotik.

Irteeran parte hartzeko izena eman behar da Arrolaren egoitzan, datorren astelehenean, uztailak 16, 19:00etatik 20:00etara.

> UDALA

Euskara batzordean parte hartzeko deialdia egin dute

Jakina denez, Udaleko batzorde informatziale guztiak irekiak dira, edozein herritarrek du batzorde horietan parte hartzeko aukera.

Hain zuzen ere, Euskara eta Hezkuntza batzordeko ordezkariek herritar guztiei deialdia zabaldu nahi diete, interesa duten herritarrek parte har dezaten. Lehenengo batzarra egingo dute uztailaren 23an, astelehenetan, 18:00etan. Hortik aurrera, hilabeteko lehendabiziko astelehenean elkartuko dira, udaletxeko bileran, 18:00etan.

ta gorixa gasakin edaten, merkiena berori zalako.


Oin ez da holakorik ikus-ten, parrandia be zihero aldaututa dago; ez dot nahi esaterik oinguak balixo ez dabenik, baizik eta beste modu batera egiten dala, bateko botelloia, edo lokaletan egotia... Oin, aukeran, ni lehenguarekin geratzen naiz: bateko bultz egin gustatzen jatzunari, besteko harek inbitatzen gaittuala, gustatzen jaten mutila beste tabernan dagola ta benga guazen, aman ezagun bat dagola ta harek edaten ikus-teko bildurrez... Zelako ondo pasatzen giñuan.

Bueno, bakoitzak nahi daben moduan disfrutatu dei-xela, baina jaixak eta poteatzeko ohitturia, behintzat, ez deixela galdu, e!



Laser bidezko depilazioa.

Informa zaitez!



Ondo pasau jaixak!

Sagasti 1 • 943 78 71 37 • ANTZUOLA

Tomas Gezalaga

Zoruen kutxilatu eta bernizatzea

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA



GAILUR
taberna eta
gozotegia
Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga

Apaintetarako eta industriarako pinturak

-
- Paper margotuak

-
- Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

> MENDIKO BIZIKLETA

**Txomin de Vega
elgetarra hirugarren
Euskadiko txapelketan**

Txomin de Vega elgetarra hirugarren sailkatu da aurreko zapatuan, hilaren 7an, Legutianon jokatutako Euskadiko bizikleta jaitsiera txapelketan. 23 urte azpiko mailan lehiatzen da De Vega. "Ez nuen podiumean sartzea espero", esan du De Vegak. "Gustura egin nuen proba eta gustura nago emaitzarekin". Elgetarra orain hiru urte hasi zen kirol modalitate horretan. Harekin batera ibiltzen da Koldo Izagirre elgetarra ere.

> SAHARAKO UMEA

**Saharako bi ume
izango ditugu
aurtengo udan herrian**

Asteon iritsi dira Elgetara udako bi hilabeteak gure artean egingo dituzte bi ume sahararrak. 8 eta 9 urteko bi neska dira. Ana Gillegi eta Iker Irazabalek hartuko dute bat etxeen eta bigarrena Itziar Garaik.

Bergarako Bubisher elkartearen bitarte eterri dira bi umeak herrira. Martitzeneko espero zituzten familiek, baina luzatu egin da eterriera. Orain, hemen dira.

> FUTBOLA

**Bihar, zapatua batzar
orokorra eta bazkaria
egingo dute taldekoek**

Mendi Mendia elkartean, 12:00etan egingo dute bihar, zapatua, urteko batzar orokorra Elgeta Futbol Taldeko kideek. Amaitutako ekitaldiaren kontuak azaldu, hurrengo denboraldirako asmoak aurkezu eta zuzendaritza batzordea aukeratuko dute batzar horretan.

Batzar irekia da, eta "lagundu gura duenak zabalik ditu klubeko ateak", azaldu dute taldetik. Bartzarraren ostean bazkaria egingo dute jokalariek.

> EGOKI ELKARTEA

**Bertan behera utzi
dute domekako BTT
irteera Bardera**

Domekan, hilak 15, Bardera egiteko zen BTT irteerarako bost lagunek baino ez dute izeña eman. Hori horrela, bertan behera uztea erabaki du Egoki elkartea. Antolatzaleek irteera udazkenerako berriz antolatzea erabaki dute. Eskalada ikastaroak, ordea, aurrea egin du. Eguraldiak askorrik lagundu ez badu ere, lehenengo irteerak egin dituzte asteon, Atxartera. Sei lagun ari dira ekintza horretan.

ERRETIRATUAK > IZENEMATEA DOMEKARA ARTE DAGO ZABALIK

Erretiratuek festa eguna egingo dute egunean Arraten

EuskoTren eta BizkaiBus txartelak tramitatzeko epea ere domekan, hilak 15, amaituko da

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Elgetako erretiratuek egunean, hilaren 19an, Arraten egingo den festa egunera gonbidatuta daude. Debabarreneko Erretiratuen Elkarteak antolatzen du urtero festa egun hori. Izenematea domekara arte, hilaren 15era arte, dago zabalik. Eta interesatuek Pedro Mari Uberarengana jo behar dute.

Elgetako elkartetik jakinari dute bidaia doan izango dela bazkideendako. Egun-pasadenez, bazkaria non egin bakotzak erabaki behar du. Nahi izanez gero, bazkaria norberak eraman dezake; eta jatetxeen bazkaltzea nahiago dutenek Krabelin jatetxeen izango dute horretarako aukera.

GARRAO TXARTELAK

EuskoTren eta BizkaiBus enpresen garraio txartelak atera nahi dituztenek, berriaz, domekara arte izango dute zabalik txartelok tramitatzeko aukera. Kasu horretan ere, Pedro Mari Uberak hartu du

lan hori egiteko ardura. Txartel bakoitzak tramitatzeko honakoak eskatzen dituzte: nortasun agiriaren kopia konpultsatu, argazki bat eta hiru euro.

BAZKIDE EGITEA, 8 EURO

Elgetako erretiratuen elkarteak, bestalde, zabalik dauka bazkide berriak egiteko kanpaina. Elkarteo bazkide egitea zortzi euro da urteko. Joaquin Gastesi arduratzan da gai horretaz, eta zortzi euroekin batera nortasun agiriaren kopia eraman behar zaio.

MARTXA NEURTUA URRIAN

Urrirako ere badute hitzordua Elgetako erretiratuek. Gipuzkoako Erretiratuen Elkarteak antolatuta zortzi kilometroko martxa neurruan parte hartzeko deia jaso dute. Martxa hori Azkoitian egingo da urriaren 6an. Dagoeneko itxita dago izeña emateko epea. Laster hasiko dira entrenatzetan martxa neutrutu horretan izena eman duten Elgetako erretiratuek.



IRTEERA Erretiratua taldea Leintz Gatzagara egindako irteera batean.

EGOKI

Udaleku irekietako bigarren txandako umeak

Asteon eman diote hasiera Uda Kanpainako bigarren txandari.

Aurrekoan baino ume gehiagok eman dute txanda horretan izena. Maialen Elortzak, Nagore Ojangurenak eta Sandra Gonzálezek jarraitzen dute begirale lanetan.

Ludotekan egiten dute egunero hitzordua, eta elkarrekin hiru ordu ematen dituzte.



GOIENKARIA



IAZKO PODIUMA Baque taldeko Francisco Gutierrez ibarazi zuen iaz.

ARTXIBOA

TXIRRINDULARITZA > MENDIKO 23. KRITERIUMA DOMEKAN

Lasterketara elite eta 23 urte azpiko onenak etorriko dira

Elgetako Txirrindulari Elkarteko presidente Emilio Mandalunizek utzi egingo du kargua

L.Z. > ELGETA

Domekan (10:00) jokatuko den Euskalduna sariko mendiko kriteriumean 120 txirrindulari espero dituzte antolatzaleek.

Elite eta 23 urte azpiko ziklista onenak izango dira Elgetako lasterketan. Antolatzale lanetan dabilen Emilio Mandalunizek esan du maila ona egongo dela txirrindularien artean: "Alfus eta Seguros Bilbao taldeak ondo dabilta denboraldi honetan, baina ez dago sekula esaterik... Lasterketa hau oso gogorra da eta edozier gauza gerta daiteke". esan du. Aurtengoan ere lasterketa erabat hautsita iritsiko dela uste du Mandalunizek, 122 kilometro egin eta gero.

AREITIO ETA ASENTZIO

Urtero legez, Langarikaren izean emandako trofeoa irabazi ahal izango dute txirrindulariek, denboraldiko proba gogorrenetako den horretan. Elgetatik Bizkai aldera egingo dute ziklistek: Elorrio, Abadiño, Atxondo, Elorrio, Elgeta, Asentzio gaina (Langarika saria), Kanpanzar, Epele, Bergara, Elgeta.

Antolatzaleek espero dute lehenengo txirrindulariak 13:00ak aldera iritsiko direla Elgetako helmugara.

ERRELEBU ESKE

Bestalde, Elgetako Txirrindulari Elkartearen 23 urtez presidente izan ostein, Emilio Mandalunizek kargua uzteko erabakia hartu du: "Jende berriak hartu behar du errelebua", adierazi du Emilio Mandalunizek. "Ni prest nago bizpahiru urtez talde berriari laguntza eskaintzeko, baina uzteko garaia iritsi dela uste dut".

UDALA > OSOKO BILKURA

Lan asko atzeratuta daudela-eta, bi osoko bilkura oraingo hilean

Oraingo eguaztenean egin du udalbatzak bilkura bat eta bi aste barru, uztailaren 25ean egingo du hil honetako bigarrena

UBANE MADERA > ARAMAIO

Ohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzak herenegun, Asier Agirre alkatearen esanetan "lan asko daude-eta atzeratuta". Edozelan ere, alkateak gaineratu du Udal normaltasunerako bidean dabilera dagoeneko: "Batzordeak hasi dira lanean; Zerbitzuak eta Hiri-gintza normaltasunetan elkartzen dira; Ogasunaren lehenengo batzarra oraingo astean (eguenean) egitekoak ziren eta Euskara eta Kultura eguaztenetan elkartuko dira, oraingo astean lehenengo aldiiz". Hain zuzen ere, "orain gaude ikusten gauzak zela dauden, orain arteko gestioa eguneratzeko", dio Agirrek.

OSOKO BILKURA

Hereneguneko osoko bilkurari dagokionez, bestelako artean hainbat obra berbagai izan zituzten zinegotziak: Eguzkierripa, Zalgo, Errotabarri eta Arriola auzotakoak eta Bentamotz baserrakoak. Eguzkierripako lanen harira, "martxa onean" doazela kontatu du alkateak. Horrez gain, jaietan egin diren ekitaldiek dirulaguntzak aztertzeko

zituen udalbatzak eta baita ere Udalera bi lanposturen kontua: administrari orokorra hartuko dute, batetik, eta, idazkari lanpostuaren harira, zein den egoera azaldu zuten.

Hala, administrari orokorreko lanpostuari dagokionez, eguaztenean elkartu zen epaimahaia eta, besteak beste, erabaki behar zuen administraria aukeratzeko azterketaren data; datorren astean jakinaraziko dute noiz, non eta zein ordutan izango den. 48 lagun aurkeztu dira lanposturako.

Idazkari lanpostuari dagokionez, orain dagoen idazkaria, Nagore Artamendi bitarteko moduan dago. Horrek esan nahi du haren lanpostua, legeak aginduta, urtero kaleratzen dutela. Aurten ere hala egin dute, eta pertsona bat aurkeztu zen lanpostu horretarako, baina pertsona horrek gauza bera egin zuen Antzuolako Udalean, eta, gainera, Antzuolako lanpostuari eman zion lehentasuna. Horren ondorioz, automatikoki, Aramaioko lanpostutik kanpora geratu da. Beraz, oraingoz, Nagore Artamendik jarraituko du lanpostu hori betetzen.

IZENDAPENAK

Bestalde, ohikoa den moduan, aurreko bilkurako aktaren onarpena zerrendako gaien artean izan zuten herenegun. Gai horien artean, organo kolegiatuaren izendapena bazeen. Hain zuzen ere, honako ordezkariak izendatu zituzten: Zuiako Koadrilan Asier Agirre, Martin Arriolabengoa eta Iñaki Nafarrate; UEMAn (Udalearrri Euskaldunen Mankomunitatea), Martin Arriolabengoa; LGE Gorbeia Inguruak erakundeak Jon Errasti izango du Aramaioko ordezkari; Goiena Komunikabideak enpresak, berriz, Martin Arriolabengoa; Euskal Fondora alkatea joango da; Urkiolako Parke Naturaleko Patronatura, Jon Errasti; San Martin Eskolaren Kontseilura, Martin Arriolabengoa; Elkarkidetzako Kontrol Batzordera, Asier Agirre; Arabarri SAra Martin Arriolabengoa; Deba Garaiko Eskualde Ospitalea, Ainara Inuntziaga eta Vital Kutxara, Asier Agirre.

Edozelan ere, albistea idaztean batzarra bukatu barik zegoenez, ez dakigu zeintzuk izan diren udalbatzak hartutako erabakiak.



TALDEA Aramaioarrak, Andorrako La Rabasa lehiaketa.

KURTZETA GAIN

KIROLA > PLATER TIROKETA

Sariekin bueltatu dira aramaioarrak Andorratik

Bihar, zapatua, beste lehiaketa bat izango da, Kurtzetan, Arriola-Arexolako jaiak direla-eta

U.M. > ARAMAIO

Joan den asteburua egin zuten aramaioarrek Andorran, La Rabasako lehiaketa. Eta pozik etorri ziren: Enrike Ullibarriaranak bere mailako bigarren saria eskuratu zuen, Rafael Asperen lana ere saritu zuten eta Jon Nafarrateri ere eman zioten saria, aurreneko aldi halako lehiaketa batean parte hartu zuen gazteari. "Gainerakoak ere nahiko pozik geratu ginene emaitzekin", kontatu du elkarteko kide Jose Inazio Ullibarriaranak.

123 lehiakidek jokatu zuten La Rabasako lehiaketa, "espero baino gutxiagok, eta, horren ondorioz, sari gutxiago eman zuten", Ullibarriaranaren esanetan. Gaineratu du maila oso ona erakutsi zutela lehiakideek orokorrean, eta, akaso, abuztuan atzera ere bueltatuko direla Andorrara, abuztuan jokatuko den lehiaketa batera.

Baina hori baino lehenago beste lehiaketa baterako hitzordua dute: Bihar, zapatua, Kurtzetan, 17:00etan.

Soziedad Korrupta > Musika taldea

"Aprobetxatzen dugu musika esateko guk nahi duguna"

U.M. > ARAMAIO

Mikel Mendikute (bateria jotzailea), Manex Arriolabengoa (gitarra jotzailea) eta Bingen Lopez (baxu jotzailea) aramaioarrek herriko jaietan erakutsi berri dute "munduari kritika" egiteko aukeratu duten bidea: Soziedad Korrupta musika taldea. Gazteak izan arren (14-16 urte), egin dute ibilbidetxoa euren "rock amrratuarekin":

Zeintzuk dira zuen "rock amrratua"-ren iturriak?

Eskorbuto musika taldea.

Haien kantuak jotzen dituzue?

Gureak eta gehienbat Eskorbutoenak. Baita RIPenak ere.

Zeuen kantuak baditzue...

Orain lau kantu ditugu. Izan ere, aurten hasi gara gure kantuak egiten.

Kontzertuetan zabilzate...

Lau edo bost jo ditugu: Aramaion (oraingo jaietan, Anboto tabernan eta kultura etxeen), Mirafuentesen (Nafarroa) eta Elgetan. Aurreneko kontzertua (Anbotoko) geuk eskatu genuen. Eta han, entzuleen artean zegoen gaste batzen bitartez Mirafuentesko kontzertua irten zitzagun. Harrezkerro, deitu egin digute.

Zelako harrera egin dizuete? Eta zuek zela moldatu zarete?

Bi kasuetan ondo [barretxoak].

Zelan zaletu zarete musikara? Musika ikasleak zarete? Eta instrumentuak?

Manexek daki musika, gehienbat. Neuk (Mikel) bakarrrik ikasi dut eta Bingenek Manexen laguntzarekin. Instrumentuak gureak dira, lan eginda eta denborarekin

erosi ditugu. Kontzertu batzuekin lortu dugunarekin, adibidez, soinu mahaia erosи berri dugu.

Ordu asko eskaintzen diozue?


Kontzertua dugunean ia egunero entseaten dugu.

Etorkizuneko asmoak?

Jotzen jarraitu, beste barik. Dena den, zaletasun hutsa baino serioagoa da hau. Aprobetxatzen dugu musika esateko guk nahi duguna. Kritika egiten diogu, orokorrean, mundu guztiari.

Non entzun ahal izango dira zuen kantuak hurrengo?

Aramaion, uztailaren 30ean, AHTren kontrako kanpaldian. Garagartzan ere jo behar dugu, jaietan, irailean. Legutianon eta Arrasaten ere joko dugu, baina konfirmatu barik dugu hori.



Bingen Lopez, Mikel Mendikute eta Manex Arriolabengoa dira Soziedad Korrupta. U.M.

TURISMOA > GATZAGEN AZOKA

Gesaltzan egindako azokan izan dira Gatzagako museoko ordezkarriak

Joan den aste bukaeran egin zuten azoka herri horretan, eta Leintz Gatzagako Gatz Museoaren gainean interes handia azaldu zuten

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA
Gatzaren azoka egin zuten Gesaltza Añana herrian (Araba) hilaren 7an eta 8an. Leintz Gatzagako ordezkarriak izan ziren, eta herriko produktuak eta Gatz Museoaren gainerako argibideak eroan zituzten.

HARREMANAK ESTUTU
Urtero antolatu ohi dute Gatzaren azoka Gesaltza Añanan, eta aurten hiru gatzagaren ordezka-

riak izan dira: herrikoak berta-koak, Guadalajaratik joandakoak eta Leintz Gatzagakoak. Aitziber Gorosabel museoko ardura-duna izan zen, hain zuzen.

Zapatuan, Gesaltza Añanako gatzaren haranean sartzeko aukera egon zen, jai giroa nagusi zela: "Eta gauean suarekin, argiarekin eta soinuarekin egindako ikuskizun bikaina eskaini zigutene, herrikoek egiten duten antzezpe-



POSTUA Gatzagako ordezkariek postua jarri zuten herriko produktuekin eta gatz museoko maketarekin.

AITZIBER GOROSABEL

na da", azaldu digu Gorosabelekin. Domekan, osteria, artisauen eta gatzaren azoka egin zuten: "Herriko produktuak eta informazioarekin postua jarri genuen guk: gatzarekin egindako opiltxoak, erregaliz gazia, ogia eta Jakionen produktuak eskai-

ni genituen, eta erregalizak arrakasta handia izan zuen", dio Gorosabelekin. Gatz Museoaren make-ta eroan zuten, gainera, gatz zelan ateratzen duten erakusteko: "Interes handia azaldu zuten gure Gatz Museoarekiko, argibide orri asko banatu genituen".

Hala, helburu bikoitza lortu zuten herriko ordezkariek gatzaren gainean egindako azokan: Leintz Gatzagaren eta bertako museoaren berri ematea eta gatzagak dituzten herrien artean harremanak estutzea. Horregatik, oso pozik itzuli ziren.

Udalekuetako lehen astea ondo baino hobeto

Astelehenean hasi zituzten udalekuak herriko 23 bat neska-mutikok. San Fermin Eguna ospatuta hasi zuten, txupinazoa bota eta zezenaren aurrean arineketan eginda. Hurrengo egunetan eskulanak egin dituzte, jolasean jardun eta zaldian ibiltzera joan dira Arabako Etxabarri Dibina herrira. Gaur, osteria, eguraldiak laguntzen badu Gamarrako igerilekuaren emango dute arratsaldea, uretan jolasean.



> KZGUNEA
'Lana zelan topatu'
Interneten ikastaroa
astelehen goizean

Astelehenean, hilak 16, lanpostua topatzeko Internetek eskaintzen dituen aukeren berri emango du KZguneko arduradun Aitor Madridek, 11:00etatik 13:00etara. Eta hilaren 30ean, kontsumitzaleek dituzten eskubideen eta indarrean dagoen legediaren gainean jardungo dute elkartutakoek, 10:00etatik 12:00etara.

Arduraduna, gainera, 09:00etatik 13:00ak bitartean egongo da bi egun horietan; hortaz, ikastarorik ez dagoen bitartean herritarrek dituzten zalantzak argituko ditu.

Uztailaren 16a:
138 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

137 zozketako saridunak

XABIER ARREGIren HERRIA, HIRIA, NAZIOA (Pamiela argitaletxea), hiru liburu (saridun bakoitzari bat emango zaio)
- Errupino Orueta Egaña (Oñati)
- Ana Bolinaga Uribarren (Aretxabaleta)
- Jon Basurko Sarasua (Arrasate)

Sariak jasotzeko epea: 15 egun

138 zozketako sariak

**BERNARDO ATXAGA-ren
'MARKAK'**
azken liburuaren bi ale.
(Saridun bakoitzari bat emango zaio)

Sariak astero!

Astelehenean, uztailaren 16a sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Baldintzak

- Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
09:00etatik 18:30era.

Harpidetza kuota:
24 euro
2006 bukaera arte

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

> TXIRRINDULARITZA
Euskadiko 23. mendiko kriteriuma egingo dute domekan Elgetan

Euskaldun Torneoaren barruan, Elgetako Txirrindulari Elkarteak antolatuta 23. mendiko kriteriuma korrituko dute domekan (10:00).

Hala, Euskadiko eta Estatuko 23 urtez azpiko eta elite mailako puntako txirrindulariak lehiatuko dira Elgetan (122 kilometroko etapa).

> RALLYSPRINTA
Aramaiook seigarren auto lasterketa izango du hilaren 21ean

Aramaioko Azpiko Racing taldeak seigarren urtez antolatu du rallysprinta, datorren zapaturako (uztailak 21).

Hala, aurten ere Euskal Herriko eta ingurueta auto lasterkari onenak espero dituzte Aramaioko lasterketarako. Gainea, aurtengo probak 500 metro gehiago izango ditu.

> BATZARRA
Elgetako Futbol Taldeak batzarra egingo du bihar

Bihar, zapatua, 12:00etan Elgetako Futbol Taldeak batzarra egingo du Mendi Mendian elkartean. Joan berri den denboraldiaren gainerako balorazioa egingo dute, eta datorren denboraldiaren gaineran dituzten asmoak azaldu eta zuzendaritza batzordea aukeratuko dute.

> KIROLDEGIA
Musakola kiroldegiak 30 urte bete zituen eguztenean

Arrasateko kiroldegia urteurren berezia ospatzenten dabil egunotan, eguztenean 30 urte egin zituen-eta.

Musakola kiroldegiak 1977ko uztailaren 11n ireki zituen ateak, baina lau egun geroago egin zuten inaugurazio ekitaldia; uztailaren 15ean, alegia.

> BATZARRA
Eskoriatza Kirol Elkarteak batzarra egingo du gaur

Gaur, egubakoitza (19:00), Eskoriatza Kirol Elkarteak batzar orokorra egingo du Ibarraundi museoan.

Batzarraren helburua da 2006-2007 denboraldiko kirol eta ekonomia balantza egingo eta datorren denboraldiako kontu aurrerapenak, kirol organograma berria eta kirol proiektuak aurkeztea.

Mojategin, Arrasateko futbol zelai berrian, egin dugu hitzordua 10 urtez Realeko lehenengo taldeko jokalari izan den Aitor Lopez Rekarterekin.

Arrasateko domekan bertan abiatuko da Almeriara, nahiz eta oraindik ez dakien noiz egingo duen talde berriarekin aurkezpena.

Aitor Lopez Rekarte > Almeriako jokalaria

"Futbolean jokatzen jarraitzeko ilusioarekin noa Almeriara"

XABIER URTZELAI > ARRASATE
Aitor Lopez Rekarte (Arrasate, 1975) bi urterako kontrata sinatu du Lehenengo Mailara igo berri den Almeriarekin. Azken asteotan albiste hori irakurri dugu egunkarietan, baina Arrasatekoak apena eman du elkarriketarik. Realeko maila txikietatik hasita, 10 urte egin ditu talde nagusian, azkenak kapitain lanetan. Isil-isilik utzi du kluba.

Bi urterako sinatu berri duzu Almeriarekin. Zelan iritsi zaiuzu eskaintza hori?

Behin Realek irtenda, aukera guztiak aztertzen dituzu, baina Almeria izan da interes gehien erakutsi duen taldea. Behin eta berriro ibili dira ni konbentzitu guran, eta hori asko eskertzen da.

Gainera, Unai Emery eta Roberto Olabe han egoteak ere lagundu egin du. Unai taldekoide izan nuen Realean, eta haren aholkuek ere asko lagundu didate.

Ez da amestutako agurra izan.

Ez da izan, ez. Normalean, baina, horrelako irteerak ez dira oso itxurosoak izaten, baldin eta talde handi bat zu fitxatzeria etortzen ez bada. Baina, klubak zuk jarraitzeko interes handirik era-kusten ez badu, normalean agur nahiko tristeak izaten dira. Ez diot buelta larregi ematen, horrela gertatu da, eta lista.

Bigarren mailan amaitu du Realak denboraldia. Zer izan da urteko unerik gogorrena?

Batetik, hori berori, kategoria galtzea. Azkenean, kirol proiektu berri bati ekiten diozu-

nean ilusioa izaten da nagusi. Gertatzen dena da, geroago eta gogorragoa dela mailari eustea. Urtero hiru taldek galtzen dute kategoria, eta azken urteotan larri ibili eta gero, aurten gu joan gara behera.

Horrez gain, gogorra da baita ere klub batek jende asko izaten duelako atzean: zaleak, klubeko langileak... Azken horiei dagokienez, seguru jaitsierak eragin zuzena izango duela euren lanpostuetan, eta hori ere gogorra da.

Momentuz, Darko Kovacevic eta biok zarete, jokalari garrantzitsuak izanda, taldea utzik duzuenetako bi. Kovacevicek zuzendaritzarekin minduta dagoela esan du. Eta zu?

Nik uste dut gauza asko bereiztu egin behar ditugula, eta kasu horretan, zuzendaritzakoak zelako egoeran egin diren ikusi. Espero ez zituzten egoerei egin behar izan die aurre, ez zuten esperientzia handirik, eta horrelakoan gaitza izaten da ondo asmatzea. Baina bai, irteerak ez dira oso txukunak izan, nahiz eta egungo futbolean horrelako egoerak gero eta ohikoagoak diren.

Bestalde, guztiok ezagutzen dugu Darko zelakoa den, sentimendu handiarekin egiten du berba; ez dut uste horri buelta gehiago eman behar diogunik.

Dena dela, presidenteak aste barruan esan berri du zuek izan zinetela omenaldiari uko egin zeniotenak.

Zein egoeratan geunden iksita, guztiok geunden ados horretan. Alegia, ez zela momentu oneña omenaldi edo agur bat egiteko. Polita izango litzateke, baina ez zen momentu aproposena.

Urte osoan zehar, ze giro izan duzue aldagelan? Izan ere, hori da Lotinak behin eta berriro errepikatu duena, taldeak konpromiso handia zuela.

Eta horrela izan da, bestela, ez ginateke, egon garen moduan, azken unera arte borrokan ibili. Egoera txarra denean, talde-kideak elkarrekin egotea garrantzitsua da, baina futbola hori baino askoz ere gehiago da. Amaierara arte sainatu gara kategoriari eusten, eta horrek niretako balio handia du. Bistan da, baina, hori ez dela nahikoa izan.

Bakeroren ardura izan zen taldea egitea, eta denboraldi hasiera txarra eginda, Lotinak hartu zuen erreleboa. Zelan baloratzen duzu bi entrenatzale horien lana?

Bakeroren lana baloratzea ez da horren erraza, zazpi partidu baino ez zituen-eta egin taldea zuzentzen. Nik uste dut proiektua polita zela, baina hasiera benetan txarra izan zen, oso txarra. Eta Lotinaren etorrerarekin ere emaitzak hor daude. Azkenean, taldeak egiten duena guzton ardurapean dago, baita entrenatzaleengan ere, baina ez dakit zelan balora daitekeen hori.

Maila galtzearekin batera, klubba noraezean geratu da. Sasoi bateko Realera itzuli behar



REKARTE Realean hamar denboraldi egin ostean,

LOPEZ REKARTE

IRAGANA

"Ez da amestutako agurra izan, baina ez diot garrantzia larregi ematen. Horrela gertatu da, eta lista"

ETORKIZUNA

"Ez nuen nire burua hemendik kanpora ikusten, baina buelta eman diot horri"

REALA

"Ez dakit Coleman den entrenatzale aproposena, hori espero dugu denok"



Almerian jokatuko da datozen bi denboraldietan. Iruian, Mojategiko zelai berrian, egunen. Arrasatearra domekan bertan joango da Almeriara.

XABIER URTZELAI

dela diote askok, lehengo oina-rrrietara itzuli.

Bai, baina hori ez da erraza, futbola asko aldatu da-eta. Sentimenduez ari bagara, zerbait galdu egin dela esango nuke, taldea animatzearrekin batera, emaitzek laguntzen ez badute zaleek egurra ematen dutelako; dinamika horretan sartu gara, beste leku askotan moduan. Orain ez da aholkuak emateko momen-tua. Taldeari lan egiten utzi behar zaio lasai, eta emaitzak aldeko-ak direnean egonkortuko da dena.

Toshackek gomendatuta, Cole-man iritsi da. Realak Bigarren mailan behar duen entrenatzailea da?

Ez dakit, ez dut ezagutzen. Hori da denok gura duguna, eta denborak erakutsiko du hori. Momentuz lan handia du aurre-tik, eta espero dut lan horretan behar duen zortea izatea.

Azken urteotako gertaerek erakutsi dute Realeko kapi-

tain izateak baduela zerbait berezia, ardura hori hartzan duenari mesede egiten ez dio-na.

Bai, horrela izan da. Nik badut azalpen bat: gauzak gaizki doazenean aurpegia ematen duenak, normalean, egurra jaso-tzen du. Gero, beste kontu bat da jokalari moduan ze ardura dau-kagun, eta hor ere ez dugu mai-la eman. Baina, ardura hartzera-koan banekien horrelako zerbait gerta zitekeela, gertutik bizi izan nuelako lehenagoko taldekideei gertatutakoa.

Lopez Rekarteak aldeko eta kon-trako zaleak izan ditu Anoetan.

Gertatzen dena da, nire joka-tzeko moduak ematen duela horretarako bidea, kontziente naiz horretaz. Normalean, zelaian lotsa barik ibiltzen naiz, eta ulertzeko da zale batzuek hori ondo ez ikustea. Gero, badau-de beste faktore batzuk ezin direnak kontrolatu. Nire alde sutsuki egiten duten zaleak daude, eta hori ez daukat saltzeko, eta bai-



ITXAROPENTSU Almeriako etapa berriari aurre egiteko gogoz dago Rekarte. X.U.

"Denoueix da izan dudan entrenatzaile onena"

X.U. > ARRASATE

Aitor Lopez Rekarteak 1997ko irai-lean egin zuen lehenengo talde-rekin debutua, Nou Campen (Bartze-iona). Ordutik 315 norgehiagoka jokatu ditu Realean.

Zein da urte horietatik guztieta-lik gordetzen duzun oroitzapen onena?

Ez da erraza erantzutea. Bigarren geratu ginen urtea polita izan zen, baita Txapeldunen Liga jokatzea ere. Baina, futbolean egin ditudan lagunekin ditut oroitzapen onenak.

Eta txarrena?

Azken urtean jaitsi izana.

Izan duzun taldekide onena?

Sa Pintok harritu nau gehien. Fisi-koki oso indartsua zen, eta tekniko-ki, oso ona.

Taldekideen artean, lagun onena?

Ez da erraza bat esatea. Agustin Arantzabal.

Izan duzun kontrario gogorrena?

Asko egon dira. Valentziako Vicente, sasoiko zegoenean.

Eta zure onetik atera zaituena?

Ez dut gogoratzan; hortaz, arazo handirik izan ez dudan seinale.

Izan duzun entrenatzaile onena?

Raynald Denoueix.

Bete gabeko amets bat?

Profesional moduan liga bat ira-baztea.

Egindako partidurik onena?

Ba ez dakit zer esan, partidu on asko jokatu ditudalako, baina baita oso txarrak ere. Debuteko partidua oso garrantzitsua izan zen niretako.

ta nire kontra gogor egiten dute-nak ere. Baina, hori da nire bizi-tza, eta ulertzent dut momentu txarretan zaleek asko sufritzen dute-la; horrelakoan sentimendua azalean egoten dira.

Erretiroa hartzeko leku ona da Almeria.

Bueno, ez dakit erretiroa han hartuko dudan, denborarekin ikusiko dugu hori. Abuztuan egingo ditut 32 urte, eta oraindik mutil koskor bat naiz (barre). Familiagatik dut zalantza handie-na, zelan moldatuko diren leku berrira. Ni, azkenean, taldearekin ibiliko naiz batera eta beste-ra, eta familiakoak geratuko dira etxeen. Ea ondo moldatzen garen denok.

Ilusioak berritura?

Bai, bai, Almerian hasteko gogoz nabil. Lehen ez nuen ima-jinatzen nire burua hemendik kanpora, baina ideia horri buelta eman diot, eta nahiz eta hasie-ran nagikeria izan nuen, orain gogoz nago.



Karaoke Ikuskizuna

Urritik aurrera Debagoienean!

162 taldek (571 gaztetxoek) eman dute izena Kantarin esku hartzeko!
www.goiena.net/blogak/kantari

Zur eta lur gelditu gara Kantarik izan duen harrera onarekin! Eskerrik asko animatu zareten guztoio!


Hasiera baten parte hartaileen artean zozketa egiteko asmoa genuen, baina azkenean erabaki dugu guztiei ikuskizunetan esku hartzeko bidea ematea.

Horrek ahalegin berezia eskatuko du, baina merezi duela uste dugu.

Laster jarriko gara talde bakoitzarekin harremanetan, kantuak banatzeko.

Gogoratu, ikuskizunak Debagoieneko aretoetan izango direla eta emanaldi guztiak GOITBn emango direla.

BABESLEA



gaztetxoen
elkartea
club juvenil

ANTOLATZAILEA





> JON ZELAIA

Gazte oñatiarrak Rotheko (Alemania) ironman proban parte hartu berri du. Lehenengo ehunen artean sailkatzea lortu zuen. Orain, udan ondo pasatzea da helburua > 50



> KULTURA

Debagoienean Kantari gaztetxoen ikuskizuna, abian > 45

> KOMUNIKAZIOA

Internet hobeto erabiltzen ikasteko jardunaldiak antolatu dituzte > 51

Txinatik etorritako akrobatak Oñatin

Chongqing Circus taldeak emanaldia egingo du gaur Oñatin, Kalegoienean, 20:30ean

Taldea hamar neskak osatzen dute; akrobazien aspaldiko tradizioari eusten diote

EDU MENDIBIL > BERGARA

Akrobaziak, borroka-arteak eta zirkua uztartzen dituen Chongqing Circus taldea izango da gaur Oñatin. Txinatik datorren taldea da, ibilbide luzea daramana. Hain zuzen ere, 1951n sortu zuten Chongqingeko akrobazia taldea, Txinako hego-mendebaldean. Urte hauetan guztieta mundu zabalean eskaini dituzte emanaldiak: 50 bat herrialdetan izan dira, eta 4.000 emanaldi egitera iritsi dira. Akrobaten taldeak ohikoak dira Txinan, eta Chongqingekoak aspaldiko tradizioari eusten dio.

Uztailaren 1ean emanaldia egin zuten Elorriion, Musikaire jaialdiaren barruan, eta gaur, esan bezala, Oñatin izango dira. Kalegoieneko plazatxoan egingo dute emanaldia, 20:30ean. Euskal Herrian aipatutako bi emanaldi horiek bakarrik egingo dituzte.

ZARAGOZAN KONTZENTRATURIK

Elorrioko eta Oñatiko emanaldien arteko egunak Zaragozan, Egea de los Caballerosen eman dituzte. Han zirela hitz egin genuen itzultziale lanak egiten dituen Chi jaunarekin. Aurrelik, Madrilgo Txinako embaxadadaren-dako lan egindakoa da eta egunotan Chongqing Circus taldea laguntzen ari da. Espainian, guztira, 11 emanaldi egitekoak dira, uztailaren 22an amaituko den biran. Txinara itzuliko dira egun horretan.

Emanaldirik ez duten egunean entrenamenduak egiten dituzte Chongqing Circuseko nes-



Txinatik etorritako akrobatak Oñatin

(43. orrialdetik dator)

kek. Taldea hamar lagunek osatzen dute, 14 urtetik 18 urte- eta Wang Yafei da zuzendaria. Yang Shaoyuan, Quan Liandi eta Tianchong dira taldekoak ezagunenak. Esan bezala, Egea de los Caballerosko gazteen aterpetxeen dira egunotan; goizeko zazpietan jaiki eta 10ak bitartean entrenatzen dira. Bero handia izan dute egunotan Zaragozan, eta, hain zuzen, igerilekura joateko irrikaz ziren txinatar akrobatak.

AKROBAZIEN KULTURA TXINAN

Akrobazien kultura oso hedatua dago Txinan: "Enperadoreen sasoian ohikoa zen haiei horrelako ikuskizunak eskaintza. Eta Marco Poloren denboran, XIII. mendean, zetazko ibilbidea jarraituta Txinara joaten ziren atzerritarra heltean, haiei harrera egiteko modua izaten zen plater edo pitxarrekin egin-dako malabarismoak eta bihurri-karien ikuskizunak eskaintza. Aspalditik errrotutako tradizioa da, oraindik ere mantentzen dena", diosku Chik.

Aurrelik lan handia eska- tzen duten saioak dira Chong- qing Circusek egiten dituenak. Maisuen laguntzaz bi urte eman dezakete saio bat guztiz borobil- du arte. Horrela, Txinako talde-



AKROBATAK Zinten, pitxarren eta bestelako elementuen laguntzaz, akrobazia ikusgarriak dira txinatarrek eskaintzen dituztenak.

GOIENKARIA

rik onenetakoia izatera iritsi dira. Hainbat filmetan ere hartzute parte eta beraien saioetako batzuk Monakoko eta Pariseko jaialdietan saritu izan dituzte.

Gaur, Oñatin, 65 minutuko ikuskizuna egingo dute, etenaldi- rik gabe. Bederatzi saioz osatu- tiko ikuskizuna da, musikaz saritutakoa eta bestelako akro- lagunduta: buru gaineko orekak,

bihurtzeak, bolak hanka gainean, *alfonbra birakaria* izenekoa (nazioarteko hainbat jaialditan saritutakoa) eta bestelako akro- baziak.

Ikusleen artean gure artean diren Txinako hainbat ume izan zituzten Elorriion, eta ilusio berezia egin zieten ume txinatarrek emandako txaloek.



Opel



Orain duzu aukera, aldatu zure auto zaharra Opel ekologiko batengatik.

Opel sarean bakarrik emango dizugu Prever Plan Hirukoitz **1.440** euroko aurrezpen gehigarriarekin, Opel Astra, Zafira edo Meriva bat erosita.

prever
plana x 3 = **1.440€-ko**
aurrezpen gehigarriarekin

ECOFLEX

GMAC Eskaintza baliogarria: 07/07/31. Prever Planaaren baruan sortzen diren autoendako eta Opel Astra, Zafira edo Meriva erosten dutenendako. Konsumo mistoa (/100 km) / CO2 emisioa (g/km): Astra Gama 4,8-9,3/130-223ikurrera; Zafira Gama: 5,9-9,5/140-228ikurrera; Meriva Gama 5,0-7,9/135-190ikurrera.

ELGOIBAR Olaso 25	ANOETA-TOLOSA Benta-Aldea Ind. 3	BERGARA Olabarrena
EIBAR Otaola 27	ARRASATE San Andres 10D	OLABERRIA Karobi Ind.

Giauto
www.giauto.es
clientes@giauto.es

salmentak: 902 345 123
tailerra: 902 345 125



KANTUAREN SORTZAILEAK Ikuskizunen aurkezle Amaia Txintxurreta eta *Kantari* kantuaren sortzaile Domentx Uzin eta Txus Arriaran musikariak.

IKER BARANDIARAN

IKUSKIZUNA > DEBAGOIENEAN KANTARI IKUSKIZUNA

Kantariko parte-hartzaileek uda izango dute kantuak ikasteko

Debagoieneko 8 eta 12 urte bitarteko 572 ume eta gaztetxok karaoke ikuskizunak egingo dituzte

Uda ostean koreografiak entseatu eta urrian eta azaroan ikuskizunak izango dira hainbat aretotan

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Debagoienean Kantari ikuskizuna ia puntuau dago. Debagoieneko 8 eta 12 urte bitarteko ume eta gaztetxoendako karaoke ikuskizuna da. Goienak antolatu du, eta Kutxa Gaztetxoen Elkartea da horren babesle nagusia. Datorren astean hasiko dira parte-hartzaile guztieei CDak banatzen. CD horietan, talde bakoitzari egokitu zaion kantua –ikuskizunean abestu beharko dutena hain zuen ere– eta Kantarirako espresuki konposatu dutena izango dira entzungai, besteak beste.

EZ DA LEHIAKETA BAT

Debagoienean Kantari ez da lehiaketa bat, karaoke ikuskizuna baizik. Ez da ume eta gaztetxoen arteko lehiarik egongo, ezta irabazle zein galtzalerik ere. Parte-hartzaile guztiek izango dira irabazoleak, guztiek izango dute eta agertoki gainean abestu eta dantzatzeko aukera.

Hasieran Goienaren asmoa zen parte-hartzaileen artean zozketa egitea, baina, ekimenak izan duen harrera ikusita, izena eman

dutentzieti aukera ematea era-baki dute, nahiz eta jakin ahalegin berezia eskatuko duen.

Ikuskizunean 572 ume eta gaztetxok eman dute izena; eta guztiek izango dute esku hartzeako aukera, 162 taldetan banatuta. Taldeak gehienez lau lagunez osatuta egongo dira.

36 KANTUKO ERREPERTORIOA

Ikuskizunari izena ematen dion kantua Domentx Uzin eta Txus Arriaran musikariekin asmatu eta

konposatu dute, baita hitzak idatzitzen. Horrez gain, Kantariko aurkezle Amaia Txintxurreta oñatiarrak ahotsa grabatu du kantuaren. Ikuskizun guztietan erabiliko dute kantu hori.

Bestalde, Goienako lantaldeak beste 35 abesti egokitzen ditu; ume eta gaztetxoek ikuskizunetan abestu beharko dituztenak.

UDA OSTEAN, ENTSEGUAK

Azken egunotan Goienako lantaldea ibili da parte-hartzaile guztieti deitzen. Hala, kantuaren CDak banatzeko hitzorduak egingo dituzte parte-hartzaileen herrietan, hain zuen ere.

Hortaz, ume eta gaztetxoek udan izango dute ikuskizunean abestuko dituzten kantuak ikasteko aukera: egokitzen zaientzen kantuak; eta *Kantari*-ko abestia, biak.

KANTUEN BANAKETA PARTE-HARTZAILEEI

Datorren astean hasiko dira herriz herri ume eta gaztetxoek kantuak banatzen

Dagoeneko parte-hartzaile gehienei deitu diente CDak banatzeko hitzordua egiteko. Aretxabaletarrek egubakoitzean, hilaren 20an, Aretxagaztara (Durana kalean dagoen udaletxe zaharrera) jo beharko dute 12:30etik 14:00etara bitartean. Egun berean, Eskoriatzako kultura etxearen izango dira 17:00etik 18:00etara.

Hurrengo astelenean, hilaren 23an, arrasatearren eta oñatiarren txanda izango da: Oñatin, Laixanen banatuko dituzte CDak 13:00 eta 14:00etara bitartean; eta Arrasaten, Saiolan izango da horren aukera 15:00etik 16:00etara. Bukatzeko, martzizenean, hilaren 24an, Bergaran, Irizar jauregian (Barrenkale 33) banatuko dituzte 14:30etik 17:30era.

DATUA
572
UME ETA GAZTETXO

Debagoieneko 8 eta 12 urte bitarteko 572 ume eta gaztetxoek esku hartuko dute Kantari ikuskizunean. Hala, horiek guztiek izango dute ibarreko agertokietan abestu eta dantzatzeko aukera.

Iraila eta urria bitartean, berriz, Debagoienean, herririk herri entseguak egingo dituzte koreografiak ikasteko. Horretarako, dantza irakasle adituak lagunduko ditu gaztetxoak.

IKUSKIZUNAK ARETOETAN

Hala, behin kantuak eta koreografiak ikasita, ikuskizunen txanda helduko da urritik azaorra bitartean. Bergarako eta Antzuolako gaztetxoek Bergarako Jam aretoan egingo dituzte ikuskizunak; arrasatearrek eta aramaioarrek, Arrasateko Amaia Udal Antzokian; oñatiarrek, Oñatioko gaztelekuak; eta aretxabaletarrek eta eskoriatzarek, Eskoriatzako Huheziko aretoan, hain zuen ere. Areto bakotzean bina ikuskizun egin beharko dituzte, izena eman duten ume eta gaztetxo guztiek agertoki gainean esku har dezaten.

> MUSIKA
Rock kontzertua egubakoitzean Oñatioko Trianan

Gaurtik, egubakoitzza, domekara bitartean Triana auzoko jaiak ospatuko dituzte Oñati. Aurten, berrikuntza moduan, rock kontzertua egingo dute egubakoitz gauean. Aurreko urteetan errotemariak eta dantzaldiak izan dira nagusi, baina oraingoan antolatzaileek rocka aukeratu dute.

Governors, Xikinkei eta Darling Shoes taldeek egingo dute kontzertua, 22:30ean.

Juan Sangre-ren proiektu berria da Governors; hura aurretik Fjord, Ekon eta Brutal Melody taldeetan ibilia da. Horrez gain, Xikinkei talde donostiarra eta Darling Shoes soraluzetarra ere izango dira agertoki gainean.

> MUSIKA
Mahaster River taldea buru-belarri dabil kontzertua egiten

Datorren egubakoitzean, hilaren 20an, Mahaster River talde bergararrak Arrasateko Ferrerias kaleko plazatxoan kontzertua egingo du, 23:00etan. AED elkartek antolatu du, urtero sasoい honetan egin ohi duen moduan.

Horrez gain, baina, egunean, hilaren 19an, Bergarako igerilekuaren arituko dira; eta hilaren 27an, Bergarako Etxagi tabernan.

Mahaster River taldeak bluesa, folka, flamencoa eta beste batzen ditu, eta iaz *Irtenbiderik gabeko autobideak* diskoa kaleratu zuten Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen laguntzarekin.

Bitxikeria moduan, abuztuan Edinburgoko Fringe jaialdian esku hartuko dute.

> IKASTAROA
Ahotsaren mugimendua landuko dute Aretxabaletan

Aretxabaletako Jaiki elkartek ahotsaren mugimendua gaineko ikastaroa antolatu du uztail bukaerarako.

Ikastaro horren helburua da ahotsarekin hobeto jokatzen ikastea. Horretarako, Bettina Aragon Hillemann irakaslea eramango dute Aretxabaletara.

Eskolak hilaren 24an, martxizena, eta 26an, eguna, emango dituzte 18:00etan 20:00etara bitartean Aretxabaletako udaletxe zaharrean.

Interesatuek 10 euro ordaindu beharko dituzte, eta horretarako azkeneko eguna eguztiena, hilaren 18a, izango da. Horretarako, Azkena tabernara jo beharko dute.

IMMOBILIARIA
ibargarai 3 • BERGARA
Tel./Fax: 943 76 97 97
www.inmokorostek.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Ibarra 74 m². Oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m². Eguizkitsuia.
- Masterreka 92 m². Ondo.
- Osintzua 80 m². Berrieta.
- Angiozar Bi solairu. Berrieta.
- Bidekurutzea 60 m². Berrieta.
- San Pedro 65 m². Prezio ona.
- Ibarra 84 m². Prezio ona.
- Zubietza 60 m². Terrazarekin.
- Zubietza 60 m². Prezio ona.
- Masterreka 60 m². Prezio ona.
- Zubiaurre 70 m². Berrieta.
- Zabalotegi 70 m². Prezio ona.

Antzuola:

- Buztunzuri 76 m². Prezio ona.
- Antigua 72 m². Oso ondo.

Elgeta:

- San Roke 90 m². Berrieta.
- Salvador 90 m². Igogaiuarekin.
- San Roke. Prezio ona.

ELGETA

- San Roke, 75 m², ia berria.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
Tf: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

BERGARA

- Bidekurutzea, 82 m²; ia berria
- Arizuri, 97 m²; oso ondo
- Juan XXIII, 80 m²; berrieta
- Bidekurutzea, 60 m²; garajearekin
- Bidekurutzea, 60 m²; oso ondo
- Zubiaurre, 60 m²; aukera ona
- Zubietza, 65 m²; oso eguzkitsuia
- Irizar pasealekuak, 92 m²; oso ondo
- Ibarra, 60 m²; ondo
- Artetako, 62 m²; oso ondo
- Aranerrea, 87 m²; ondo
- Osintzua, 80 m²; ondo
- Mugertza, 60 m²; berria
- Masterreka etxebizitzak 3 logetakoak eta duplexak

SORALUZE

- Gabolatz, 65 m²; oso ondo
- Atxuri, 93 m²; oso ondo.

ANTZUOLA

- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m²; erdi berrieta.

ELGETA

- San Roke, 75 m², ia berria.

ARETXABAleta

Hortz klinikarako odontologia laguntzailea behar da.

Bidali currikulumak zabalearrea@hotmail.com helbidera

BERGARA

Estetizista behar da.
Irailean hasteko.
669 00 38 43

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Etxebizitza salgai, adosatua. Estreinatzeko. 607 79 00 37.

Aretxabaleta. Erdigunean, 72 m²-ko teilatukekoa eta 16 m²-ko garaje. Prezio ona. Telefonoa: 659 64 67 38.

Arrasate. Etxebizitza salgai. Otalora 2, azken solairua, ikuspegi zoragarria, 3 logela, 2 komun, bizitzera sartzeko moduan. Deitu telefono honekera: 675 71 37 27.

Arrasate. Etxebizitza salgai San Jose-pa kalean, 60 metro koadro. 2 logela. Sukaldea, egongela eta komuna. Igogaiu. Trasteleku du. Guztiz berriztatua. Telefono: 667 53 70 00.

Arrasate. Logela bakarreko apartamentua salgai Arimazubin. Terraza eta ganbarekin (estudioa/jartzeko aukera). Prezio eta egoera onean. Telefonoa: 687 83 97 37.

Arrasateko Erguinauozanetxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, komuna, sukaldesa eta bi balkoi. Oso eguzkitsuia da, etxekan kanoalderera ematen du. 72 m². Deitu telefono honetara: 660 46 47 24.

Bergara. Boni Laskurain kalean. Eguizkitsuia, altzarietkin. Bizi ziztera sartzez gerto. Prezio interesgarria. 628 26 65 77.

Bergara. Etxebizitza salgai Zubiaurren. Guztiz berritua. Bergailua eta gañbara. 619 41 39 72.

Bergara. Etxebizitza salgai erdiadean. Bizi zizterako sartzez gerto. Oso polita. Eguzkitsuia. Deitu telefono honetara: 685 72 40 30.

Bergara. Zabalotegi etxebizitza salgai. Berrieta eta jantzia. 615 79 41 02.

Bergaran. Etxebizitza salgai Zubiaurren. Bi logela, sukaldesa, komuna eta egongela. Guztiz berritua. Gas bidezko berriagailu indibidualea. Prezio oso interesgarria. Deitu: 21:00-23:00. 943 76 19 39.

Eskoriatza. Etxebizitza salgai San Pedro Kalean guztiz berritua. 73 m², 3 logela, egongela, bainugela eta sukaldesa. Eguzkitsuia. Deitu ezazu telefono honetara: 630 70 99 18.

Guardia (Laguardia). 80 m². Sukaldesa, hiru logela, egongelajangela, bainugela eta 30 m²-ko garbara. Jantzita. Hirigunean. Eguzkitsuia. Prezioa adosatiko aukera. 943 77 21 24 edo 696 02 42 10.

Hozkailu konbi bat eta garbiagailua salgai. Urtebetze erabili ditugu. 670 20 76 01.

Jaca. Estreinatzeko. Llano Victoria, urbanizazio pribatua, ige-

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU

2. GARAJEAK

201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK

301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA

401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA

601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
604. KONPONDUA
605. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK

701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK

901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. BESTELAKOAK

Egubakoitz eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrak iragarri ditugu.

943 25 05 01

sailkatuak@goiiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITU; GAINERAKO 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO.

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitekeen operazioen erantzukizunik.

BERGARA

Bergarako Udalak lehiaketa bidez ondorengo zerbitzuak kontratatzera doa:

- Osintxuko liburutegia eta ludoteka.
- Agorrosinen udalekuak eta ludoteka.
- Angiozarko liburutegia eta kultura suspertzea.

Eskaintzak aurkezteko epea 2007ko uztailaren 18ko 13:30ean bukatzen da.

Pleguak eta informazio gehigarria Idazkaritzan, Kultur Etxean eta www.bergara.net web gunean.

Bergaran, 2007ko uztailaren 3an.

ALKATE ANDREAK



BERGARAKO UDALA

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Ehiza-txakurrak. Bi hilabeteko txakurkumeak saltzen ditut. 943 71 48 90.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Bergara. EGA titulua duen universitateko ikasle Lehen Hezkuntzako eta DBHK ikasleei eskolak emateko gertu, euskaraz zein gaztelera. Telefonoa: 652 74 57 10.

Debagoiena. Ingeles eskolak ematen ditut: etsaminetarako, eskolarako lagunarrari, ingeles komunikatzalea... Deitu 15:00etik 21:00etara. Deitu telefono honetara: 610 62 84 25.

Astrolon teleskopioa salgai. 943 79 41 31.

Egurra salgai behoko suarendako. Bi kamioi. 945 44 51 11.

Egurrezko maiaia eta aulkia salgai. Prezio interesgarria. 607 46 83 66.

Gitarra. Mosrite gitarraren kopia, Dillonek egindako. Edizio mugatua, kolore zuria. Estatu Batuetan erozi berria. 400 euro, negoziagarrirak. Telefonoa: 607 21 19 69.

Umeandako segurtasun aulkia, autoan erabitako. Telefonoa: 943 79 41 31.

Kamera digitala salgai. Sony DSC-V1. Egoera onean. 685 76 44 77.

Karabana. Knaus markako karabana salgai. 2005ekoan. Hiru girotan banatua eta gehigarri guziekin. 620 39 69 47.

Kronometro profesionala salgai. Berria. 200 euro. (Nerea). 943 79 68 18.

Mahai obalatua salgai. 1,36 x 0,92 cm ditu, eta luza daiteke. 200 euro, negoziagarrirak. 617 17 15 88.

Maison guitarra elektrikoa saltzen dut, Les Paul estiloko, beltzia. Funda eta kablearekin. 240 euro. 648 06 79 85.

Mendiko bikileta salgai. BH markakoa. Egoera onean. 100 euro. 686 20 03 31.

Quinny Zapp. Umeendako kotxa. Egoera oso onean. 100 euro. 667 31 37 45.

Opel Zafira 2.0 Dti, 2004koan. Aire-giroa. ESP, agunak (Ilantx). Deitu telefono honetara: 629 56 29 25.

Passat TDI. 130 ZP. Egoera oso onean. 58.000 km. Gris iluna. 17.000 euro. Deitu telefono honetara: 667 31 37 45.

Zodiac xlalupa. 3.80 metro luzean eta 1,72 metro zabaleran. 25 ZPKo motorra. 665 70 36 49.

Zodiac txalupa motorduna salgai. 25 zaldiko gasolina moto-rra. 665 70 36 49.

806. GALDU

601. SALDU

Enduro motorra. KTM 250 EXC 2006 mendiko motorra salgai. 665 74 05 48 edo 665 74 05 48.

Motorra saltzen dut. BMW-f650. Egoera onean. Maletak dauzka. 1999koan. 3.000 euro. Deitu telefono honetara: 607 80 34 40.

Opel Astra 2.0 16 V Sportive salgai. 136 ZP. 1998koan. 120.000 km. Egoera onean. Irrati CDa eta MP3a. 4.000 euro. Aitor. Deitu telefono honetara: 696 56 04 87.

Opel Kadett. Zmatrakila. 61.000 km. Egoera oso onean. 100 euro. 667 31 37 45.

Opel Zafira 2.0 Dti, 2004koan. Aire-giroa. ESP, agunak (Ilantx). Deitu telefono honetara: 629 56 29 25.

Renault Safrane 2.5. 168 ZP. Gasolinazko. 9 urte eta 138.000 km. 18:00etik aurrera deitu. Deitu telefono honetara: 678 73 65 05.


Seat Alhambra Sport monobolumena salgai. Egoera onean. Deitu telefono honetara: 653 71 04 56.

Seat Ibiza salgai. Diesela. SS-AT. 685 73 79 65.

W-Sharan autoa salgai. 1996koan. 3.200 euro. Deitu telefono honetara: 618 02



Aretxabaletako **Rafael Dovao** eta **Arantxa Gomez** ezkondu zirela 25 urte beteko dira martitzenean, uztailaren 17an. Zilarrezko ezteietan, zorionak, bikote, eta urte askotaroko. Muxu handi bat, familiakoen partetik.



Aritz Arabiourrutia eta **Gemma Nogales** arrasatearrak uztailaren 14an ezkonduko dira Arantzazun. Bidaia Kenyara, Tanzaniara eta Maurizio irletara egingo dute. Zorionak, familiakoen eta lagunen partetik.



Arantza Elortza aramaioarra eta **Periko Mertxan** arrasatearra orain dela 25 urte ezkondu ziren, uztailaren 14an. Zilarrezko ezteiak betetzen dituzten honetan, zorionak, lagun baten partetik.

hildakoak

- **Trinidad Arregi Muruamendiaraz.** Bergaran, uztailaren 1ean. 94 urte.
- **Luis Larrañaga Orozko.** Bergaran, uztailaren 1ean. 74 urte.
- **Sabino Zubala Garitaonandia.** Arrasaten, uztailaren 3an. 72 urte.
- **Juan Jimenez Garcia.** Arrasaten, uztailaren 3an. 72 urte.
- **Benito Arriola Zugasti.** Eskoriatzan, uztailaren 4an. 49 urte.
- **Luciano Lizarralde Lizarralde.** Oñati, uztailaren 5ean.
- **Jone Etxebarria Etxagibel.** Arrasaten, uztailaren 5ean. 16 urte.
- **Jaione Zabaleta Pildain.** Bergaran, uztailaren 7an. 90 urte.
- **Tomasa Untzueta Arteaga.** Bergaran, uztailaren 7an. 92 urte.
- **Jesus Elortza Garro.** Arrasaten, uztailaren 11n. 50 urte.

ESKER ONA

Consuelo Garcia Oñate

Jose Luis Zubiagaren alarguna

Arrasaten hil zen 2007ko ekainaren 27an, 72 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrik
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2007ko uztailaren 15an.

ESKER ONA

Jaione Zabaleta Pildain

Bergaran hil zen 2007ko uztailaren 6an, 90 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrik
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko uztailaren 15an.

ESKELA

Jone Etxebarria Etxagibel

Arrasaten hil zen 2007ko uztailaren 5ean, 16 urte zituela.

Betirako laguna, betirako gure bihotzeta.
Agur, Jone



Haizea, Gladys, Paula, Itsaso, Arrate eta Olatz.
Arrasaten, 2007ko uztailaren 15an.

URTEURRENA

Karlos Ginart Arzamendi

Lehen urturreneko meza
domekan, uztailaren 15ean,
12:00etan,
Arrasateko San Joan Bataiatzailearen elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Dolores Iñarra Osa

Eusebio Igartzaren alarguna

Lehen urturreneko meza
domekan, uztailaren 15ean,
09:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Primi Moreno Blazquez

Lehen urturreneko meza
domekan, uztailaren 15ean,
09:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Luis Larrañaga Orozko

Kikio

Bergaran hil zen 2007ko uztailaren 1ean, 74 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrik
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko uztailaren 15an.

ESKER ONA

Tomasa Unzueta Arteaga

Juan Elkororen alarguna

Bergaran hil zen 2007ko uztailaren 6an, 92 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrik
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.




Bergaran, 2007ko uztailaren 15an.

URTEURRENA

Roman Garitano Zurutuza

Lehen urturreneko meza
domekan, uztailaren 15ean,
09:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:



OROILORE

Hileta eta beilateko zerbitzuak

Momentu txar horietan sortzen diren
galdera, kezka eta arazo guztiei
aurre egiteko zuei laguntzeko ireki berria da

Amillaga 27, Bergara
Tel.: 617 44 21 55 – 943 76 94 73 / Fax: 943 76 94 76
Zerbitzu Debagoiena osorako

bila-bila 7**hitz gezidunak**

	* Irudiko lorea	▼	Fruitu mota	▼	Esaten duzu	▼
			Ekarpen		Akaso, bo-kalik gabe	
Poesia	Beharbada, agian	►				
Elaiaik	Isurkariak irentsi	►			Kontso-nantea	►
					Hodia	
Ontzira igo	Titaniaoa	▼			Uranioa	►
					Herbehe-reak	
Gizon izena	Atzizkia	►			Bizkaieraz, iratzea, garoa	
					Lurralde	►
H2O	Egur zati erre	►			Potasioa	
					Bokal errepikatua	
Ugari	Gauzak, gaiak	►				

sudokua

5		1		3		6	8
2			4				
	9			5		4	
8		9		7			
	5				7		
		6	8			5	
1	5			2			
		8			6		
3	8	7		9		1	

hieroglifoa

Nola etorri zarete?

DDZDD

hizki salda

5 izen euskaldun

A	M	A	H	U	L	U	J	A
Z	U	B	O	S	Z	K	T	L
T	E	D	I	T	A	A	R	U
R	N	U	A	R	R	O	I	G
A	A	R	H	R	K	E	N	O
N	A	E	A	B	A	T	D	I
A	N	I	E	N	E	L	U	J
D	T	M	E	K	T	O	T	A
Z	I	L	O	Z	T	I	A	Z

bono fotoa

**Argazkiko baseria Arrasaten dago, Gesalibar auzoan.
Nola du izena?**

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta

Super BM

 Super BMk emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

 Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara
Albo atun argia

92 g-ko 3ko packa+1 doan


2,95 €

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAIKICO IRABAZLEA

Arrasateko Sabina Altunarenak izan da erosketa-txartela. Zorionak!

Galderaren erantzun zuzena: Hernani etxea.

**umore giroan**

Kike Amonarriz

Azokatik bueltan
 Teodora eta Dorotea azokan
ikusi eta erositakoez ari dira
hizketan:

- Nik honelako azenario
bat erozi dut —adierazi dio
Teodorak Doroteari—.

- Bada, nik horrelako
berenjenak aurkitu ditut —
erantzun dio Doroteak—.




Orduan Maritxu azaldu da
eta: - Aizue, zertaz ari zarete
hizketan?

Koloretako telebistak

- Ba al dakizue nola hondoratz
tzen diren Tolosan egindako
itsasontziak?

- !!!

- Uretan jarrita!

soluzioak



*Promoción VALLEHERMOSO DIVISIÓN S.A. Inscripción en el R.M. de Madrid, tomo 372, folio 25, hoja M-7306 del Libro de Sociedades, CIF-A-9494233. Toda la información relativa al R.D. 5/5/89 del 21 de abril, se encuentra a disposición de los compradores en nuestra oficina de ventas. *Las cantidades se ingresan en la cuenta especial 0019100569 271029-997, y están avaladas por Afesa. * Obra en construcción.

Zabalganako onena



**ETOR ZAITEZ GURE BULEGORA ETA INFORMA
ZAITEZ PREZIOEZ ETA ORDAINTZEKO ERAZ.**

MERKATARITZA INFORMAZIOA:

Vallehermoso bulegoa

Florida 29-31 (Ortiz de Zarate kalea iskina)

01005 - Vitoria-Gasteiz



**Edo dei egiguzu
eta hitzodua egingo dugu,
ereduzko etxebizitza
ikusteko.**

Vallehermoso



945 13 47 47 | www.vallehermoso.es

Número Uno en Calidad de Vida

Jon Zelaia > Kirolaria

"Ohikoa urtean hiru oinetako pare erabiltzea da; nik bakarra erabili dut"

Jon Zelaiak (Oñati, 1980) Rothe-ko ironmanean parte hartu zuen ekainaren 24an; lehenengo aldia

izan arren, uste baino hobeto ibilizten eta 9:33:09ko denbora egin zuen. Hain zuzen ere, lehenen-

go ehunen artean sailkatzea lortu zuen oñatiarrak. Orain, berriz, udako oporrik prestatzen ari dela

esan digu. Eta, kirola egingo duen arren, helburua ondo pasa- tzea du Zelaiak.

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Oñatiko Triatloia Taldeko artean, gazteenetarikoa da Jon Zelaia; hala, taldekoideen laguntza eskertu gura izan du; bereziki Jesus Cantero eta Unai Pedregalek egindako lana. Taldekoideen babesea ezinbestekoa izan dela aitortu digu.

Nolako esperientzia izan da Rothe-ko ironman?

Lehenengo aldia da halako proba batean parte hartzen dudan, eta uste baino hobeto ibili naiz; hasieran, beldur nintzen, baina proba aurrera joan ahalia ondo ikusi nuen nire burua. Ondo nindoala konbentzitu nintzen eta, azkenean, probarekin gozatu egin nuen.

Nolako giroa bizi izan zenuten Alemanian?

Mundu guztiko jende mordoa joaten da probara. Hasierako urteetan, herriko etxeetan geratzen zen jendea; baina orain, hainbeste jende joaten da bertara, ez dago denontzako lekurik. Horregatik, inguruko herri batean geratutu ginen (Nurenberg). Egia esan, urrutti samar zegoen; proba jokatu zen herritik ordu erdira, gutxi gorabehera.

Proba jokatu aurretik, hainbat gauza egin behar izaten dira; dortsalak hartu eta abar. Horregatik, goizeko 7etarako hasiera puntuari egoteko, goizeko 3etan atera behar izan genuen etxetik.


Noiz eta zelan hasi zinen triatloio probak egiten?

Betidanik gustatu izan zait kirola egitea; lehen, eskubaloian jokatzen nuen, eta eskubaloia-rekin batera igeriketa uztartzen nuen. Gero, eskubaloia utzi nuen, kiroloren hutsunea betetze-ko, korrika eta horrelako kiro-lak egiten hasi nintzen. Oñatiko Triatloia Taldean sartu nintzen, eta iaz, lehenengoz, Zarauzko Triatloian parte hartu nuen.

Zelan erabaki zenuen ironmanean parte hartzea?

Rothe-ko ironmanean parte hartzeko ideia irten zenean, taldeko gehienek parte hartzeko asmoa azaldu zuten, eta niri ere ideia ona iruditu zitzaidan. Taltearen babesarekin izena ematea samurragoa denez, animatu egin nintzen, eta ez naiz damutzen. Irailean eman genuen izena; urtarria arte lasai egon nintzen, eta gero gogor entrenatu naiz.

Triatloian egiten direnetatik, zein kirol duzu gustukoen?



GOIENKARIA

PERTSONALA

Herria: Oñati. **Adina:** 26 urte. **Ikasketak:** Industria Mantenua ikasi dut Arrasaten. **Zaletasunak?** Kiro-laz gain, zinema eta lagunekin tertulian egotea atsegin dut, mahai inguruan afari baten ostean edo kafea hartzen. **Gorrotatzen duzu zer edo zer?** Bai, gezu-

rra. **Gomendatzeko moduko film bat?** Ikusi dudan azkena, adibidez: *Babel*. **Musikari bat?** Talde bezala, Coldplay atsegin dut. **Baduzu maniarik?** Bai, asko ditut! **Bidaia bat?** Lagunekin, furgonetan, Italian barrena ibili ginena, adibidez.

Egia esan, ez dut oso ondo edo oso gaizki ibiltzen naizen kirol zehatzik. Hala ere, esan daiteke korrika egitea egiten zaidala gogorrena, beharbada triatloian egiten den azkeneko proba dela-ko antxintxika egitea. Bainan ez naiz inoiz aritu ez bizikletan, ez korrika ezta igerian ere gogor, hau da, lehiaketatan; horregatik, ez dut puntu indartsurik.

Zelako entrenamenduak egin dituzu?

Lazkaoko entrenatzaile batekin aritu naiz. Hilero egiteko entrenamendu saioak jarri dizkit; aste bukaeratan, entrenamendu luzeak egin ditut. Helburua aste bukaeratan bi kirol saio jarraian egitea izan da; adibidez, zapatuaren igeri eta bizikletan eta domekan bizikletan eta korrika jarraian. Astean zehar, egun bat deskantsatu egiten nuen.

Guztira, 18-20 ordu egin ditut astean entrenatzen: 10 kilometro igerian, 60 kilometro korrika 350 kilometro bizikletan.

Eta jana zelan zaintzen duzu?

Zerbait zaindu dut, baina ez dut dieta berezirik egin. Kanti-tate handia jaten dut; entrenamenduak jarri dizkidean lekuaren, dietak ere jartzen dituzte, eta haiek gidatu naute. Bainan ez dut dieta berezirik egin. Jan garbia eta asko, hori izan da sekretua.

Urte honetan zenbat oinetako pare apurtu dituzu?

Urte guztian oinetako pare berarekin aritu naiz; jendea harritu egiten da zelan ez ditu-dan oinetakoak apurtzen, baina ni berekin aritu naiz. Alemania-را joan aurretik, Ritzar Fernandezek oinetako pare bat eman zidan; aurreko bi egunetan ordu erdi erabili nituen eta azkenean haietan egin nuen proba. Zorte ona eman zidaten. Normalean, jendeak hiru edo lau oinetako pare erabiltzen ditu urtean.

Animatuta zaude datorren urtean ere parte hartzeko?

Entrenamenduak egin ahal izateko beste gauza batzuei uko egin behar izan diet; horregatik, azkeneko hilabetea oso luzea egin zitzaidan. Proba egin eta gero, asko gozatu dudanez, animatuta nago beste bat egiteko. Hala ere, ez dakit urtero egitea merezi duen. Beharbada, datorren urtean proba txikiago bat egingo dut eta hemendik bi urtera berriro ere ironmana. Orain, maratoi bat egin gurako nuke.



IRAKASLEAK Sergio Peñak, ezkerrean, eta Gorka Juliok, eskuinean, tailer bana emango dute.

IMANOL SORIANO

INFORMATIKA > IKASTAROAK

Tailerrak 2.0, Internet hobeto erabiltzen ikasteko jardunaldiak

Lehenengo tailerrak euskarazko wikipedia izango du aztergai, Arrasaten, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoaren campusean

IMANOL SORIANO > ARRASATE
Irailean, *Euskal Herria 2.0, lokalisazioa eta internazionalizazioa* jardunaldiak egin ziren Donostia-ko Artelekun. Oraingoan, tailer praktikoak antolatu dituzte eta, alde teorikoari baino gehiago, praktikoari eskainiko diote tarte luzeen. Helburua Web 2.0 tresnak eta filosofia hedatzea da. Tailerretan parte hartzea debalde da eta ikastaro bakar batean nahiz guztieta eman daiteke izena.

BOST TAILER

Datorren astelenean hasiko dira tailerrak. Lehena Arrasaten izango da. Euskarazko wikipedia izango dute aztergai Arkaitz

Zubiaga eta Galder Gonzalez wikilariek. Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan egingo da, 10etan hasita goiz eta arratsaldez. Gela zehazteke.

Hurrengo tailerretan, blogak eta web 2.0, Ubuntu, software librea lehenengo urratsak, bideo-gintza, podcastinga eta irrati-gintza tailerrak izango dira, hainbat tokian.

PART-E-HARTZAILEAK

Ekimen irekia da. Guztiaren artean ikasteko, jendeak tailer gehiago, eman edo jasotzea proposatu ahal izango du propio sortutako wikian, <http://tailerrak.bipuntuzero.org>.

Tailerrak 2.0, egitaraua

Uztailak 16, astehena

Euskarazko wikipedia, MUko Goi Eskola Politeknikoan.

Uztailak 18, eguztena

Ubuntu, software librea lehenengo urratsak. Larrabetzuko Hori Bai gaztetxeen.

Uztailak 19, eguna

Irrati-gintza eta podcastinga. Bilboko Kafe Antzokian.

Uztailak 21, zapata

Blogak eta web 2.0. Gasteizko Saregunen.

Irailean

Bideo-gintza. Eguzki Bideoak ekoitzietxe alternatiboak antolatuta.

teknologia berriak

> ROUTERRA

Kanpoko pantailari esker, bezeroak, transferentzia tasak eta banda-zabalera zein diren jakin dezakegu

Belkinek Vision N1 routerra garatu du. Kanpoko pantaila da tresna nabarmen egiten duena. Pantailari esker, routerrera konektatuta dauden bezeroak eta haien transferentzia tasak ikus ditzakegu. Gainera, konexioaren banda-zabalera zein den jakin dezakegu pantailan bertan erakusten diren bi abiadura grafikotan.

Router horrek 802.11n protokoloa erabiltzen du.

Estatu Batuetan merkaturatuko dute, 200 dollarretan, eta Europara laster helduko da.



Kontrola daitekeen LCD pantaila du, eta bertan ematen du infomazioa.

> BIDEO-KONTSOLA

Sonyren PSP berria meheagoa eta arinagoa da eta bideo irteera du telebistara konektatzeko

Sonyk bideo-kontsola eraman-garriaren modelo berria merkaturatzekotan dela azaldu du konferentzia batean.

Aurreko modeloarenkiko berrikuntza gutxi baditu ere, interesgarria den bat du. Bideo irteera bat du, bideo-kontsola ez eramangarria izango balitz bezala telebistan erabiltzeko.

Egituran aldaketa nabarmenak izan ditu, %33 arinagoa da eta %19 meheagoa.

Noiz eta zein salneurritan kaleratuko den ez dute argitu.



Zilar eta beltz koloreetan eta Star Wars filmekin edizio mugatuan eskuragarri dago.

> ARGAZKI-KAMERAK

Casio Exilims argazki-kamera berriak optimizatuta daude bideoak 'YouTube'-ra igotzeko

Casio enpresa japoniarak Exilims gamako bi modelo berri aurkeztu ditu asteon.

Best Shot teknologia dute biek, irudiak prozesatzeko Exilim motor berria.

Berrikuntza nabarmenena bideoak YouTubera igotzeko optimizatuta daudela da.

Casioren YouTube Capture moduarekin kalitate handiko MPEG-4 H.264 formatuan grabatzen dira bideoak; horrek konpresio bikaina eskaintzen du, kalitaterik galdu gabe.

Salneurria: 167 eta 218 euro bitartean, modeloaren arabera.



Bideoak ikusi eta partekatzeko gunearrekin lortutako akordiari esker, YouTube atzemate modua gehitu diote.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko-blog.komertzialak

www.goiena.net/blogak

/aebyn	/denetik	/gertu	/korozabaleta	/richimairer
/aiastui	/dragon-oriental	/gorkataxi	/markiegi	/tabernaberri
/aretxargi	/dukiena	/gurea	/maulanda	/udalaitz
/argi-plastik	/ego	/gutzizeder	/mayte	/urdeki
/arregi	/ekiore	/hamaka	/merkeopari	/urbelta
/atai	/ekin	/itxaseder	/multiopticash	/urko
/azkarate	/elejalde	/irudisport	/ohiak	/vitoria
/bastida	/ezkutuorly	/ixaun	/ogizun	/zaindusz
/briz-	/galgorri	/jacing	/okipark	/ziripot
aseguruak	/gallastegi	/joseba	/otzeta	
/BZ-sistemas	/ganeshha	/lamaino-etebeberri	/pando	
/bolusukaldeak	/garaia	/lorelan	/puerta-ingles	

Eta baita ere:

- www.aizue.com
- www.amgautoak.com
- www.baster-aldejateak.com
- www.ehmff.com
- www.gelatzu.com
- www.goikobenta.com
- www.haurtxoa.com
- www.klorofila.com
- www.landaluze.com
- www.lilura.com
- www.toldoslete.com
- www.uxarte.net



berriak

> GOITB
Euskaldunak hizketan saio berria urrian GOITBn

Tokiko telebisten elkarrean ekoiztutako *Euskaldunak hizketan* saio berria estreinatuko dute laster GOITBn. Saioa adineko pertsonai egindako elkarriketaz osatuta dago eta saio bakotzean gai bakarra jorratu da. Gaiak askotakoak izango dira: kirolak, baserria eta industria, gastronomia, gerra garaia eta gerra ostea eta herriak. Gai horiek guztiak, mende hasierako testuinguruan kokatuta.

> GOITB
Debagoienean Kantari saioaren melodia grabatu dute

Uda ostean hasiko den Debagoienean Kantari saioaren melodia grabatu dute jada Goiena Telebistan. Kantu alaia eta dantzagarría, Txus Arriaran eta Domentx Uzin dira kantuaren egile eta ekoizleak. Letra erraza eta alaia dauka abestiak eta 80ko hamarkadako estiloa eta erritmo japoniarra ere baditu. Hain zuzen ere, ibarreko haurrek izango dute abestia ikasteko aukera.

> ARRASATE IRRATIA
Disko eta kantuen grabaketak besteak beste, asteburuan

Disko baten grabazioaren atzean dagoen lana ezagutzeko bidea izan dugu astean. Batetik, Shot! estudioan izan gara. Danbaka lehiaketako irabazle Aby-Kem taldeko Mikel Alvarez abeslariak grabazio prozesua azaldu digu.

Bestetik, astean grabatu dute Kantari ikuskizunaren abestia. Arrasate Musika Eskolako Txus Arriaran irakaslea da konposatzaleetako bat. Harekin ere izan gara.

> ARRASATE IRRATIA
Sarrerak eskuratzeko aukera Uda giroan saioko zozketan

Donostiako Aquariumerako sarrerak gura badituzu, deitu 943 71 17 31 telefonora. Abenduaren 31ra arte erabiltsekoak dira. Bestalde, Musakolako igerilekura gure kontrua joatea nahiago baduzu, modu berean eskuratu ahal izango dituzu; irailaren 16ra bitartean erabil daitezkeen sarrerak dira.

Baina musika ikuskizunetarako sarrerak ere badiagu; zatoz, bada, gurekin *Uda giroan* saiora.


'ILUNPEAN' >EGUBAKOITZA 22:15

ADEGIko presidente Eduardo Zubiaurre 'Ilunpean' saioan

Eduardo Zubiaurre
Gipuzkoako enpresarien elkarteko presidente da; gaur egun Elgetan bizi da

GOIENKARIA > ARRASATE

Eduardo Zubiaurre Eibarren jaio zen duela 45 urte, baina egun Elgetan bizi da. 2006an izendatu zuten ADEGIko presidente (Gipuzkoako Enpresarien Elkartea). Zubiaurrek bere jaioterrian, Eibarren, du enpresa; *JAZ Zubiaurre* izena du eta metalezko hortzak dituzten eskulak egiten dituzte bertan. Hainbat sari eta errekonozimendu eskuratu ditu *JAZ Zubiaurre* enpresak; hala, 2003an Toribio Etxebarria saria irabazi zuen, eta 2005ean, Enpresa Kudeaketa aurreratuen kasuetaarako aukeratua izan zen.



EDUARDO ZUBIAURRE Oihana Elortzak elkartekatuko du. GOIENKARIA

'JAIAK' > EGUAZTENA 20:47

Asteburuan ospatuko diren Antzuolako jaietako gorabeherak GOITBn

GOIENKARIA > ARRASATE

Asteburuan ospatuko dira Antzuolan herriko jaiak. Eta, ibarreko beste herri batzuekin egin duten moduan, Goiena Telebistak jaietan jasotako irudi eta gertaerekineko egingo du saioa. Oraingoan ere Amaia Txintxu-

rreta aritu da aurkezle lanean eta jai giroan murgilduko da, zuei ahalik eta saio osatuena eta dibertigarriena eskaini ahal izateko. Gaur bertan, antzinako ezkontzaren lehen zatia grabatuko dute; ezkongaiak plaza hurreratuko dira familiarekin,

eta plazan bertan, notarioak dotearen berri emango du. Ezkontzaren bigarren zatia domekan, hilak 15, ospatuko da. Andregaiaren etxetik irten eta senargai jaso osean plazantz joango dira. XIX. mende bukan bezala jantziko dira herri-tarrak, eta, beraz, klase sozialen bereizketarik ez da faltako. Honetaz gain, bihar, zapatua, umeentzako herri kirolak jarraituko ditu GOITBk eta Mairuaren Alarde ospetsua ere ikusi ahal izango duzue. Eguztenean, hilak 18an, 20:47an duzue hitzordua Goiena Telebistan.

tele begi

Unai Loidi

Emozioak

Umetako ohiturari eusten diot uztailean: 8etan jaiki, eta telebista piztea. Ezer bada telebistan zuzenean lekuko emozio guztia transmititzeko gai, San Ferminetako entzierroak dira (Tourreko etaparen bat ere igual...). Konpetentziarik ez zeukanen ere, asko estimatzen nuen Javier Solanoren kontaketa, jakituria, esperientzia... Aurten, Cuatro ere entzierroak zuzenean ematen hasi denean, gehiago baloratzen dut Solano. Sekulako lehia dago TVE eta Cuatroren artean: TVEk ez du kamerarik zezen-plaza barruan, eta konpetentziak eraginda, bere betiko formula aldatu du. Gonbidatuen seta, beste aurkezle bat Solanoren ondoan, elkarriketza asko (gehiegi)... Soberan. Cuatrocobei, topikoan jausteko erraztasuna sumatzen zaie, San Ferminetara lehen aldiz iritsi eta entzierroak deskubritzen ari denaren harridura eta ezjakintasunarekin. Esatriak ditu ibilbidearen puntu guztietan, hiru komentarista bai behintzat, eta denek hitz egin nahi dute... Entzierroa komentariorik gabe, eta giro soinuarekin, mesedez! Horrelaxe bakarrik iristen da emozioa etxeraino.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua. Aby-Kem musika taldeko Mikel Alvarez; Esklerosi anizkoitza gaitzari buruz, Juan Antonio Untzurruntzagarekin; Agurne Juldain, Nubi elkarteko kidea; Elkár Megadendako Espe Arriaranekin, bidaiatzekogidiliburueburuz; Aitor Lopez Rekarte;...

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Uda Giroan

Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarriketak
Agenda
Bainutokiakonexioak: Garaioko urtegia, Musakolako igerilekua, Donostiaquarium
Liburu gomendioak
Zozketak
Zorion agurak
Efemerieak
12:05 Izarran ordua: abesti ezagunak
14:00 Uda Giroan (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.

GOITBko programazioa

Egubakoitzta, 13

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musikantoi. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Hitz bitan. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu. 16:15 Eltz beroa. 16:45 Albisteak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Berto saioa. 18:45 Albisteak. 19:15 Erreportaje. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Gaurkoak. 20:47 Ikusten. 21:15 Teknopolis. 21:45 Berriak. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 23:45 Gaurkoak. 23:30 Musikantoi. 00:15 Emisio amaiera.

Zapatua, 14

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Boboboak, Calimero eta Trikitraka trikitron. 11:00 Ikuasmira. 11:30 Erreportajea. 12:00 Astekoak. 12:15 Eltz beroa. 12:45 Eltz beroa. 13:30 Ur eta Iur. 14:00 Berbaire. 15:00 Berto saioa. 16:00 TAM-TAM. 16:30 Erreportaje. 17:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Hasiberriak. 19:30 Bizitegia. 20:00 Ikusten. 20:30 Erreportaje. 21:00 Ikuasmira. 21:30 Erreportaje. 22:00 Astekoak. 22:15 Bizitegia. 22:30 Ilunpean. 23:00 Didjeridu. 23:30 Musikantoi. 00:00 Emisio amaiera.

Domeka, 15

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Calimero, Boboboak eta Trikitraka trikitron. 11:00 Ikusten. 11:30 Musikantoi. 12:00 Ur eta Iur. 12:30 Bizitegia. 13:00 Erreportaje. 13:30 Erreportaje. 14:00 Didjeridu. 14:30 Ilunpean. 15:00 Ikuasmira. 15:30 Marrazki bizidunak. 18:00 Ur eta Iur. 18:30 Ikusten. 19:00 Hasiberriak. 19:30 Eltz beroa. 20:00 Ikuasmira. 20:30 2x2 erreportaje. 21:00 Berto saioa. 22:00 Didjeridu. 22:30 Ikusten. 23:00 Erreportaje. 23:30 Ilunpean. 00:00 Musikantoi. 00:30 Emisio amaiera.

Astelehena, 16

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Teknopolis. 14:15 Hitz bitan. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Bizitegia. 16:15 Erreportaje. 16:45 Albisteak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ur eta Iur. 18:45 Albisteak. 19:15 Erreportaje. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Gaurkoak. 20:47 x5. 21:15 Harmailatik. 21:45 Berriak. 22:15 Ikuasmira. 22:45 Berriak. 23:15 Didjeridu. 23:45 Gaurkoak. 23:30 Hasiberriak. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 17

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Boboboak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Harmailatik. 14:15 Erreportaje. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Eltz beroa. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Telesaia. 16:15 Ikuasmira. 16:45 Albisteak. 17:15 Boboboak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Bizitegia. 18:45 Albisteak. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Boboboak. 20:45 Gaurkoak. 20:47 Erreportaje. 21:15 Berbaire. 21:45 Berriak. 22:15 Harmailatik. 22:45 Berriak. 23:15 Hitz bitan. 23:45 Gaurkoak. 23:30 Musikantoi. 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 18

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Erreportaje. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Ur eta Iur. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu. 16:15 Eltz beroa. 16:45 Albisteak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Harmailatik. 18:15 Eltz beroa. 18:45 Albisteak. 19:15 Teknopolis. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Gaurkoak. 20:47 Erreportaje. 21:15 Berbaire. 21:45 Berriak. 22:15 Harmailatik. 22:45 Berriak. 23:15 Hitz bitan. 23:45 Gaurkoak. 23:30 Musikantoi. 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 19

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Boboboak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Jaiaik: Antzuola. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Eltz beroa. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Telesaia. 16:15 Ikuasmira. 16:45 Albisteak. 17:15 Boboboak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Eltz beroa. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albisteak. 19:15 Berto saioa. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Boboboak. 20:45 Gaurkoak. 20:47 Erreportaje. 21:15 Berbaire. 21:45 Berriak. 22:15 Harmailatik. 22:45 Berriak. 23:15 Hitz bitan. 23:45 Gaurkoak. 23:30 Musikantoi. 00:15 Emisio amaiera.

Ikus itzazu argazkiak, astero, ASTELEHENKO GOIENKARIAn!

III. UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENKO GOIENKARIA LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak

Har ezazu parte!



Baldintzak

- Udako argazkiak izango dira, eta berdin izango da aurtengo udan ateratakoak izan edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak jasotzeko epea hasiko da ekainaren 22an eta amaituko da irailaren 17an.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoineneko edozeinek parte hartu ahal izango du, eta ez da adin mugarrak izango.
- Argazkiak aurkezten ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzezko moduko erresoluzio eta kalitatearekin).
- Bidali ahal izango dira e-postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri. **Arrasate:** Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500, edo Otarola Lizentziaduna 31, 20500. **Bergara:** Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570. **Aretxabaleta:** Durana 11, 2. solairua, 20550.
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean, edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri beltzean.

- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira egilearen izen eta abizenak, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero ASTELEHENKO GOIENKARIAn.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren lein jakingo dugu ASTELEHENKO GOIENKARIAn.
- Parte-hartzaleek gehienez bost argazki bidali ahal izango dituzte.
- Lehiaketaren epai-mahaia osatuko dute Goienako kideek eta argazkigintzan adituak diren debagoendarrek.
- Epai-mahaiaiak baloratuko ditu argazkiaren kalitatea, originaltasuna, balio historikoa eta bizitasuna, besteak beste.
- Honez gain, Goienako beste hedabideek ere egindo dute lehiaketaren jarraipena.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENKO GOIENKARIKO artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, beti ere egilea aipatuz.

Sariak



1. saria

Olympus E-400 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.

- 10 milioi pixel.
- Bi objektibo aldagarril: Zuiko digital 14-42 mm eta 40-150 mm.
- Flash eta guzti.
- 2,5 hazbeteko LCD pantaila.




- 2. saria:** Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonarentzat, Arrasate Bidaia-en eskutik.



- 3. saria:** bi pertsonarentzako afaria edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxeen.

Babeslea:



kutxa

Lagunzaileak:



Arrasate Bidaiaik
BIDAIK-AZENTZIA ELKARTUA

GURE AMETSA
JATETXEA

**ASTELEHENKO
Goienkaria**
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51
Asteleheneitik egubakoitzera
09:00etatik 18:00etara

Uztailak 13-20

Musika



ELORRIO

> Ruper Ordorika musikariak emanaldiak akustikoa egingo du

Oñatiako musikariak emanaldia egingo du Elorrioko Musikaire egitarauaren barruan. Jon Piris kontrabaxu jotzaileak lagunduta egongo da Ordorika agertokian. Gaur, egubakoitza, izango da, 22:30ean, Argiñetan.

Jaiak



ANTZUOLA

> Herriko jaiak ospatuko dituzte domekara bitartean

Besteak beste egingo dute bihar, zapatua, urteroko alardea, 18:30ean. Eta, etzi, domeka, hainbat herriarrek antzinako euskal ezkontza antzetzuko dute, 18:00etan, plazan. Horrekin batera askotariko ekitaldiak izango dira.

Musika



BERGARA

> Bergarako Aritzeta abesbatzak emanaldia egingo du hilaren 18an

Santa Marina egunarekin batera egingo du emanaldi hori Bergarako abesbatzak, urteroko ohiturari jarraituz. 19:00etan meza izango da Santa Marina parrokan eta mezaren ondoren egingo du emanaldia abesbatzak.

MONIKA BELASTEGI
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguzteneko eguerdia baino lehen. Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

dira. Elkartean daude 600 lagunetik gora eta Yuebdumun dago, Alice Springsetik 300 kilometrora, Australia iparraldeko erdialdean. Bestalde, elkarte horretako kideen lanak ezagunak dira kolore biziko margo akrilikoengatik eta serigrafiengatik.

Uztailaren 18an, 19an eta 20an, 11:00-13:30 eta 16:30-19:00, Sancti Spiritus unibertsitatearen klaustroan.

ESKORIATZA

> Espainiako gerraren gainean liburuetan ageri ez dena

Irakatsi gabeko irakasgaia. Espainiako Gerra Zibila eskolako liburuetan du izena erakusketak. Helburua da Espainiako gerra orain arte nola ikasi den eta gaur egun nola ikasten den erakustea.

Iralaren 16ra arte, Ibarraundi.

Ospakizunak

OÑATI

> Trianako jaiak ospatuko dituzte domekara bitartean

Gaur, egubakoitza, Astostrasto jaitsiko da, 19:00etan, jaiei hasiera emateko eta 23:00etan rock kontzertua izango da. Bihar, zapatua, 17:30ean, herri kirolen topaketa izango da eta 21:30ean, jardunaldi gastronomikoa; 23:00etan, berriz, dantzaldia Luhartz taldearekin. Etzi, domeka, 12:00etan meza izango da San Martinen eta gero luntxa; 13:00etan, herriko bertsolari gazteen saioa; 15:00etan herri bazkaria; 18:00etan, umeendako *Kiska* antzerki emanaldia eta 20:00etan, erromeria. Gaur hasi eta domekara arte.

ARRASATE

> Santa Marina jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran

Gaur, egubakoitza, hasiko dira jaiak. 18:30ean, umeendako jolasak egongo dira; 22:00etan, kontzertua, Scam eta 23F taldeekin, Makatzenan; eta 22:30ean, diskoteka, Agerre plazan. Bihar, zapatua, Gorriti eta haren animaliak egongo dira 11:00etan, eta 13:00etan, meza. 18:00etan, apar jaia egingo dute Makatzenan; 23:00etan, dantzaldia izango da Cristal orkestrarekin eta 00:30ean, suzko erruberak. Domezan, berriz, paella eta gazpatxo lehiaketa izango dira, 12:00etan eta 21:30ean, dantzaldia, Nuevo Talisman taldearekin. Gaur hasi eta domekara arte.

Bestelakoak

DEBAGOIENA

> 'Irakurri, gozatu eta oparitu' kanpaina luzatu egin dute

Dantza

ELORRIO

> Mar Gomez dantza konpainia-ren emanaldia

Tres vole vodeviles ikuskizuna egingo dute. Antzerkia, narrazioa, umorea, keinua eta mugimendua dira ikuskizunaren ezaugarriak. Hiru koreografiak osatzen dute lana.

Etzi, domeka, 19:30ean, pilotalekuan.

Lehiaketak

ARAMAIO

> Esaera zaharren lehiaketa deitu dute, lehenengoz

Zuiako Koadrilak deitu du. Aramaion zein koadrilako herrietan bizi direnek har dezakete parte. Lehiakide bakoitzak gehienez bost esaldi aurkezta ahal izango ditu. Gaia librea da. Hiru maila bereiztu

dituzte: 10 urtera artekoak; 11tik 17ra artekoak, 18 urtetik gorakoak. Lanak aurkeztuko dira liburutegian, udal bulegoan edo koadrilako bulegoan, hilaren 19a baino lehen.

Informazioa: www.cuadriillazuria.com.

ESKORIATZA

> Leintz Ibarraundi Fundazioako logotipo lehiaketa deitu dute

Diseinu grafikoan diharduten espezialista eta profesionalei zuzenduta dago. 2.000 euroko sari bakarra egongo da. Proposamenak jasoko dira hilaren 18ra arte, Ibarraundi museoan.

Informazio gehiago: 943 71 54 53.

Erakusketak

OÑATI

> Australiako komunitate aborigen margo erakusketa

Warlukurlangu Artista Aborigen Elkartearren lanak

PROPOSAMENA



Musika

BERGARA

> Arrasate Musikal Big Band taldearen emanaldia

Uztailako jazz emanaldien barruko saioa egingo du Arrasate Musikaleko taldeak. Udalak antolatutako emanaldi sorta da, Zuhaitz eta Hamaiaka tabernen laguntzarekin.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean, Espoloian.

BERGARA

> Udal Musika Bandak emanaldia egingo du

Santa Marina jaien barruko emanaldia da. Lau obra egingo dituzte. Horien artean, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren *Kalezkale musikaz* martxa estreinatuko dute.

Etzi, domeka, 12:00etan, Udal Pilotalekuaren. 11:00etan, kalejira ere egingo dute eta 15:00etan, herri bazkaria pilotalekuaren, bandaren 175. urtemuga ospatzeko.

ELORRIO

> Alasdair Fraser eta Natalie Hassen emanaldia

Alasdair Eskoziako biolin jotzaile ospetsuenetako da. Natalie Hass biolontxelo jotzaileak lagunduta egingo du emanaldia.

Bihar, zapatua, 22:30ean, San Agustinen.

BERGARA

> Blues gaua izango da Agorrosin ekintzagunean

Santa Marina jaien barruan Mahaster Riverrek egingo du emanaldia.

Hilaren 19an, eguna, 22:00etan.

Antzerkia

OÑATI

> Chongqing Circus, Txinatik datozen akrobatak

OÑATI

> Gari Garaiade argazkilaria-ren erakusketa

Hondarribiko argazkilariak *Ametsak besarkatuz* izeneko erakusketa ireki zuen atzo, eguna. Surfaren gaineko zuri-beltzeko argazkiak dira. 33 irudik osatzen dute erakusketa eta Garaiaderen esanetan "surfaren beste aurpegia" erakusten dute. Argazkiok ikusgai daude gazteleku kuboan (18:00etan eta 20:00etara) eta Kalezarreko eta Kalebarriko hainbat dendetako erakusleihotan. Hilaren 22ra arte egongo da ikusgai.

Elgeta eta Bergarako euskara elkarteen herriko liburutegiek eta Elkar megadendarekin batera egindako kanpaina da. Euskarazko irakurketa bultzatzea du helburu. Kanpainan parte hartzeo egin behar da: liburutegira joan, aparteko apal batean dauden 100 liburuetako bat maileguan hartu eta irakurri eta gero, lau galdera orokor dituen fitxa bete. Hala, deskontu txartela jasoko du erabiltzaileak eta Elkarren liburu hori erosteko orduna %25eko deskontua izango du. Elgetako Goibeko eta Bergarako Jardun elkarteko kide izanez gero, beste %25eko deskontua egingo diote.

Uztailaren 21era arte.

DEBAGOIENA

> 'Biblioporrak' gidaliburua kalean dago

Uda sasoian gaudela eta, Debagoieneko udal liburutegiek hainbat liburu eta ikus-entzunezko jasotzen dituen *Biblioporrak* gida kaleratu dute. Adintarte guztidako proposamena jasotzen ditu.

Liburutegietan daude eskuragai.

Ikastaroak

ARETXABAleta

> Ahotsaren mugimenduaren gaineko lau orduko ikastaroa

Hilaren 24an eta 26an izango da, 18:00etik 20:00etara, udaletxe zaharrean. Jaiki elkarteko antolatu du, Udalaren laguntzarekin. Eskolak emango ditu Bettina Aragon Hillemanek. Prezioa hamar euro dira.

Izenematea hilaren 18a baino lehen, Azkena tabernan.

DEBAGOIENA

> Oihulari Klown taldeak hainbat ikastaro emango ditu

Klown jardueraren gaineko hastapen eta sakontze ikastaroak emango dituzte. Hainbat izango dira uztailean hasi eta urriko arte. Uztailaren 17an hasiko dira. Virginia Imazek eta Jose Carmelo Muñozek –taldearen sortzaileak– emango dituzte eskolak.

Izena emateko edo informazio gehiagorako deitu 607 20 45 03 zenbakira.

BERGARA

> Argazkilaritza ikastaroa Photoshop bitartez

Hastapen eta sakontze mailak emango dituzte. Hastapen maila urriaren 1etik 11ra izango da (16 ordu), astelehenetik egunera, 18:30-20:30 ordutegian, Miguel Altunian. Izenematea 40 euro dira, 30 euro ikasle, erretiratua eta langabetuendako. Sakontze maila, urriaren 15etik 31ra izango da (22 ordu), hastapen mailaren ordutegi eta leku berean. Prezioa ere bera da. Bietan izena emanet gero, 60 euro dira, 50, ikasle, erretiratua eta langabetuendako. Parte hartzeo diru sarrera egin behar da Kutxan: 2101 0070 84 0010740827. Gero, kultura etxera eraman beharko da ordainagiria.

Plaza mugatu daude (24 lagunendako) eta bergarrek lehentasuna dute.



Red road ***

Zuzendaria: Andrea Arnold.
Aktoreak: Kate Dickie, Tony Curran, Martin Compston.
Danimarka/Britainia Handia. 2006. 113 min.

Juan den astean aipatutako *Los Climas*-ekin pasatzen zen bezala, gaurko *Red road* (jatorrizko hizkuntzan azpitituluekin) Donostiako gela batean soilik estreinatu da. Britainia Handia eta Danimarka arteko ekoizpen honen istorioa Glasgow gertatzen da, eta emozioei buruzko thriller katartikoa kontsidera dezakegu.

Kamaren sistemaren bidez Glasgow hiriko kaleak zaintzen dituen emakume bat da istorioaren protagonista nagusia. Eszena askotan bere lana egiten ikusten dugu, eta hortik kango, gehiegiz zehaztu gabe, haren bizitzari buruzko datu batzuk jakingo ditugu: haren senarra eta alaba hilik daude, haren gizonaren familia-rekin dituen harremanak nahiko latzak dira, eta dituen topaketa sentimental-sexualak nahiko tristea dira. Tarteak emandako datu horiek ikuslearenengen intriga edo jakin-mina sortzen dute. Hori guztiz areagotzen da kartzelatik irteten denean gertatutakoarekin zerikusi handia duen gizona. Hortik aurrera mendekua izango da emakumearen bizitza beteko duen sentimendua.

Red road-en oso ondo deskribatzen dira kaleko giro errealista eta grisa eta personaien sentipenak, horregatik idatzi dut emozioei buruzko thriller bat dela. Argumentuari dagokionez thriller bat da, baino benetan garrantzia duena gauzak gertatzen diren ahala pertsonaiak sentitzen dutena ezagutzea da. Filmak mende-ku, gorroto eta erru komple-xuari buruz hitz egiten digu, baita bakardadeari eta bizi-ztak sortzen duen nahigabeari buruz. Eta horri guztiorri oso modu egokian borbildutako bukaera bat gehitzen badiogu, oso film interesgarria eta indartsua daukagu.

Antonio Zabala

Zinema

ARETXABAleta
HERRIKO PLAZA

Pequeña Miss Sunshine
Egubakoitz: 22:30.

ARRASATE
MONTERRON

Rocky Balboa
Egubakoitz: 22:30.

EIBAR
UNZAGA

Harry Potter
Egubakoitz: 19:30, 22:15. Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30. Astelehena, martxetena eta eguztena: 19:30, 22:15.

GASTEIZ
GURIDI

Transformers
17:00, 19:45, 22:30.

Harry Potter y la orden del Fenix
17:00, 19:45, 22:30.

Los lios de Gray
17:30, 20:00, 22:30.

Chuecatown
17:30, 20:00, 22:30.

Shrek Tercero
16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

Verdades ocultas
17:30, 20:00, 22:30.

Requiem por Billy el Niño
20:00, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

Fast food nation
18:00, 20:15, 22:30.

El violin
16:00, 20:15, 22:30.

El final del espíritu
17:30, 22:30.

Odette, una comedia sobre la felicidad
17:30, 20:00, 22:30.

Bajo las estrellas
18:00, 20:15, 22:30.

Jindabyne
20:00.

Cafe solo... o con ellas
17:30, 20:00, 22:30.

La suerte de Emma
17:30, 20:00, 22:30.

YELMO
CINEPLEX-GORBEIA

Harry Potter
12:15, 15:45, 17:30, 18:45, 20:30, 21:45, 23:30, 00:30.

Los lios de Gray
12:15, 16:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

Transformers
12:15, 15:30, 17:00, 18:30, 20:00, 21:30, 23:00, 00:30.

28 semanas después
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

Operación Stormbreaker
Egubakoitz: 15:50, 17:55. Zapatua: 15:50. Domeka: 12:15, 15:50, 22:05.

Cafe solo... o con ellas
20:20, 22:20, 00:20.

Shrek Tercero
12:15, 16:15, 17:15, 18:15, 19:15, 20:15, 21:15, 22:15, 23:15, 00:15.

Ocean's 13
12:15, 15:35, 17:50, 20:05, 22:25, 00:40.

Erase una vez... un cuento al revés
12:15, 16:20, 18:20.

Piratas del Caribe en el fin del mundo
12:15, 17:10, 20:20, 23:35.

Zodiac
17:40, 20:40, 23:40.

Spiderman 3
Egubakoitz: 17:25, 20:25. Zapatua: 12:15. Domeka: 17:25, 20:25.

Descubriendo a los Robinsons
12:15, 15:40.

Gauerdiak saioak, eguba-

koitz eta zapataun. Eguediko saioak, dome-kan.

Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

ÁBACO
BOULEVARD

Los lios de Gray
12:10, 16:10, 18:15, 20:15, 22:25, 00:30.

Harry Potter
12:00, 16:00, 16:30, 19:00, 19:30, 22:10, 22:30 01:00.

Transformers
12:00, 16:10, 16:30, 19:10, 19:30, 22:10, 22:30 01:00.

28 semanas después
12:15, 16:05, 18:15, 20:30, 22:40, 01:00.

Cafe solo... o con ellas
12:10, 16:00, 18:05, 20:15, 22:20, 00:45.

Sherk Tercero
12:15, 16:05, 16:30, 18:10, 18:30, 20:15, 20:30.

Ladrones
22:10, 20:00.

Ocean's 13
22:30, 01:00.

Piratas del Caribe en el fin del mundo
12:00, 16:10, 19:25, 22:40.


Zodiac
22:25.

Gauerdiak saioak, eguba-

koitz eta zapataun.

Eguediko saioak, dome-kan.

Eguna, ikuslearen eguna.



Sylvester Stallon famatu egin zuen Rocky filmak.

Rocky Balboa

AEB, 2006. Zuzendaria: Sylvester Stallone. Aktoreak: Sylvester Stallone. 104 min. 7 urtetik gorakoendako. Rocky sagaren seigarrena da *Rocky Balboa* filma. Munduko txapelduen ohi Rocky Balboa urteak daratza bokeotik urru. Adinean gora doa eta ez du bizi nahi izan zenaren itzalean. Hori horrela, boxeo lizenzia eskuratu du. Mason Dixon Munduko txapelduaren aurka egin beharko du borrokan Balboa.

Eskasa: * Balekoa: ** Ona: *** Oso ona: **** Bikaina: *****

Bajo las estrellas ***

España, 2007. Zuzendaria: Felix Viscarret. Aktoreak: Alberto San Juan, Julian Villagrán. 100 min.

Benito Lacunzak tronpeta jotzailea izna nahi du. Aita hil ondoren, jaio-terria itzuliko da, Nafarroara. Hara iritsi, eta Benitoen anaia parrande-tako aspaldiko bere lagun batekin ezkontza doala jakin du; lagun horren alabarekin ere egingo du topo.

Steak

Frantzia, 2007. Zuzendaria: Quentin Dupieux. Aktoreak: Eric Judor, Ramzy Bedia. 85 min. 2016. urtea. Moda eta edertasun irizpidea asko aldatu dira. Moda berri batek jendea aurregi lifting-a egitea eramango du. Georgek orain gutxi egin du lifting-a eta udako oportunean Chivers buruzagi taldean sartu nahiko du. Blaise galtzaileak, txikitako Georgesen lagunak, helburu beria izango du. Horixe hasiko dira tira-birak.

Erase una vez... un cuento al revés

AEB-Alemania, 2006. Zuzendaria: Paul J. Bolger. Marrazki bizidunak. 87 min.

Maitagarrrien ipuin munduan dena oso ondo doa. Baina egun batean, gaizkia eta ongi kontrolatzen dituen mago baten lagunzalek okerreko botaori emango diote.

Hemendik aurrera, gaizkileek ipuin amairak aldaitzeko. Zer gertatuko da ipuin amairak aldatuz gero?

Corazones solitarios

AEB-Alemania, 2007. Zuzendaria: Todd Robinson. Aktoreak: John Travolta, James Gandolfini. 108 min.

Elmer C. Robinson eta Charles Hildebrand detektibek Bihotz Bakartien Hitzaldeko bikotearen atzetik dabilta, haiek harrapatu nahaian. Bikote horrek alargun hiltzen ditu. Benetako gertaeraetan dago oinarrituta film honen istoria.

Descubriendo a los Robinsons ***

AEB, 2007. Zuzendaria: Stephen J. Anderson. Marrazki bizidunak. 102 min.

Lewisek etorkizunetik datorren multil misteriotsu bat ezagutuko du: Wilbur Robinson. Biek denboran bidaia egingo dute.

Spiderman 3 *

AEB, 2007. Zuzendaria: Sam Raimi. Aktoreak: Tobey Maguire, Kirstan Dunst, James Franco. 139 min.

Parkerrek oreka aurkitu du Mary Janeren maitasunaren eta superhero eginbeharren artean. Baina, ekaitz baten ostean, haren trajea aldatu egingo da.

Zodiac ****

AEB, 2007. Zuzendaria: David Fincher. Jake Gyllenhaal, Robert Downey. Saileko hiltzaile batek izu zabalduko du San Frantziskon. Bi kazetarrendako obsesio bilakatuko da.

nire aukera

Sanferminetako beteranoa

JUAN LUIS BIKUÑA Kazetari
 bergararrak ez du hutsik egin azken
 30 urteotan Iruñeko jaietan

EDU MENDIBIL > BERGARA
 Sanferminetako beteranoa dugu Juan Luis Bikuña kazetari bergararra: azken 30 urteotan ez du hutsik egin Iruñeko jaietan. Bestetan baino erritmo lasaiagoan baina auren ere kazetari lanetan ibili da Bikuña: "Zezenen inguruko informazioa lantzen ibili naiz eta, horrez gain, zezenketen ostean Club Taurino delaikoan eta Maisonnave hotelean izandako tertulietan parte hartu dut. Tabernariak eta kazetariak dira sanferminetan lan handien egiten dutenak".

Goizean goiz jaiki eta seiak eta laurdenetarako Euskal Telebistak Iruñean duen egoitzan egoten da Bikuña: "Oinez ordu erdi inguruko ibilaldia daukat, eta gustatzen zait paseo hori egitea. Egundira arte egoten naiz lanean, ondoren lagunartean txikitxo pare bat hartu eta bazkalostean, Tourrero etapa ikusi eta zezen-plazara. Berandu bukatzen da zezenketa, eta, hainbat telebista autonomikori irudiak bidaltzen dizkieguenez, gauerdi aldera bukatzen dut

lana". Aurtengo zezenketen artean eguztenekoa nabarmenzen du: "Sei belarri moztu zituzten. Orain dela urte batzuk Bergaran toreatu zuen Francisco Marcok bat eraman zuen".

JAI FINAK IRUÑEKOAK
 Entzierroak eta zezenketak dira Iruñeko ikur ezagunetakoak. Baita han elkartzen diren milaka parrandazaleak ere. Hala ere, bestelako ekitaldiak nabarmenzen ditu Bikuñak: "Jai finak eta politak dira, askotan komunikabideetan *juergari* gehiegizko protagonismoa ematen bazaio ere. Aurten, adibidez, San Fermin eguneko prozesioa jarraitu du lehenbiziko aldiz eta Zapateria kalean San Fermin eskaintzen dizkioten jotak oso bereziak dira. Erraldoen kalejira ere ikusgarria da oso... Umeendako eta helduendako gauza interesgarri asko dago". Entzierroak zezenplazan, ezkutalekuauan jarraitu ditu eta parrandarako tarterik izan ez duela diosku Bikuña. Hurrengo urtean agian....

LANA "Kazetariok eta tabernariekin egiten dugu lan handien egunotan sanferminetan", dio Juan Luis Bikuñak

JAI BEREZIAK "Jai finak eta politak dira, askotan 'juergari' gehiegizko protagonismoa ematen bazaio ere", gehitzen du



OHITURA Tradizioak agindu bezala, praka eta alkandora zuriak eta gerriko eta zapi gorriak janzten ditu Bikuña.

GOIENKARIA

ahobero

"Zenbait jenderi loteria txartel batek aldatzen dio bizitza. Nire kasuan, Hugh Grant aktoreari eskainitako zerbitzu bat izan zen"

Divine Brown > Prostituta ohia

Zerbitzu horrengatik izar stusa beregantzu zuen Divine Browneak. Hugh Grantekin filma egitera iritsiko ote?

iturri onetik

Emakumezkoen errugbi taldea osatzen ari dira Arrasaten

Arrasate Errugbi Taldeak emakumezkoen taldea osa lezake hurrengo denboraldirako. Dagoeneko errugbian aritzeko interesa duten 25 neska inguru zuzendu dira taldeko arduradunengana. Herenegun, eguztenean, bigarren bilera egin zuten Musakolan. Badirudi gauzak bide onetik doazela. Taldea osatzen bada, senior mailako Euskal Ligam lehiatuko litzateke Arrasateko taldea.

piperraутса

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperraутса

Musikaire 07

Honezkero askoz badakizue fenomeno bitxia gertatzen dela Elorriion urtero, uztaila hurbildu ahala. Munduko toki askotatik hasten dira artistak agertzen, baita etxekoak ere; herriko txoko ahaztuak paraje zoragarritan bilakatzen dira, argia, ilargia eta hego haizea lagun; jauregietako lorategi ezkutu misteriotsuak ikusgai jartzen dira, duten edertasun betean; ermita eta elizetara fededunak bezala fedegabeak ere hurbiltzen...

Musikaire deitzen zaio Elorriion fenomeno honi. Hainbat asteburutan zehar gertatzen da (*musikaire.com* helbidean duzue programa), eta ez dago ordaindu beharrak ikusteko. Aurten ez dut lehenago aipatu, asti faltan ez bainaiz antolaketa ibili. Joan bai, joaten naiz hutsegia gabe, eta dagoeneko gozatu ederrak hartu ditut.

ai, eñe!



Gimnasiora joan beharrik ez duen txakurra

Wendy du izena txakur gihartsu horrek; mutazio genetiko baten ondorioz giharren gehiegizko handitza sufritzen du gaixoak...

<http://tinyurl.com/yqfcqq>

Toyota Avensis 2007 berria, ukipen-pantaila duen nabigatzalea 21.600 €-tik aurrera.

Toyota Avensis 2007 gama:

D-4D Diesel motoreak: 2.0 126 ZP., 2.2 150 ZP. eta 177 ZP.
 VVT-i gasolina motoreak: 1.8 129 ZP., 2.0 147 ZP. eta 2.4 163 ZP.



Toyota Avensis bat daukazu 20.800 €-tik aurrera.



Kalitaterako bidea eskuekin ukitu daitekeen zerbait da.

Toyota Avensis 1.8 VVT-i Sol berria (ukipen-pantaila duen nabigatzalea barne). Publikoarentzako salmenta prezioa gomendatua Penintsulan eta Balear Uharteetan, biltegian dauden autoentzat. BEZA, garraioa, matrakulazio zerga, kontzesionarioaren promozioa eta ekarpena barne. Prever Plana EZ dago barne. ** Toyota Avensis 1.8 VVT-i Sol berria. Publikoarentzako salmenta prezioa gomendatua Penintsulan eta Balear Uharteetan, biltegian dauden autoentzat. BEZA, garraioa, matrakulazio zerga, kontzesionarioaren promozioa eta ekarpena barne. Prever Plana EZ dago barne. Igarkiko modeloak: Toyota Avensis Wagon Sol. Konsumo konbinatua 5,5 eta 9,6 l/km tartean. CO2 igorpena 146 eta 228 g/km artean.



FINANCIAL SERVICES



Kontzesionarioa
www.euskoauto.toyota.es

EuskoAuto

Olabarrena z/g BERGARA 943 76 23 85

BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI